goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2016-06-03
EGUBAKOITZA
686. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

**Vasco-Navarro trenaren gaineko erakusketa egingo dute** | 14

**Ospakizun bikoitza Eskoriatzan, Ferixie eta Almen oinarri** | 29

Kultura kalera aterako dute Aretxabaletan egunotan | 27



Debagoieneko Caritasek zentro berria prestatuko du | 9



Hiru Haundiak egin dituzte, mendiko bizikletan, Uriartek eta Gordok | 34

INDEPENDENTZIARI BURUZKO HERRI GALDEKETA




Debagoieneko bederatzi herrietako –Aramaio barne– ordezkariak Leintz Gatzagan astelehenean, Erain Debagoiena ekimenaren batzarraren aurretik, hautetsontziekin, botoa ematera animatzen. | J. DOMINGO

# Burujabetzaren bidean, domekan herritarrei emango diete berba

54.833 lagun daude deituta etziko, domeka, Debagoienean –Aramaio barne– egingo den herri galdeketara. 16 urtetik gorakoek parte hartu ahalko dute Gure Esku Dago dinamikak sustatutako eta Erain Debagoienak bideratutako kontsultan. Independentziari buruz da galdera, baina parte-hartzea da bultzatu gura dutena. | 2




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Transplanteak: berriro jaiotzea
- Reincidentes taldeko kideekin berbetan

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05




SINADURAK

- Erabaki polemikoa, nonbait? | 10 — ARITZ ARRIETA
- Gutxi inporta | 10 — OIHANA ELORTZA
- Galdeketa historiarako | 16 — ITSASO ERRETOLATZA
- Euskalduna | 19 — IOSU ELORTZA
- Zertarako isildu? | 25 — ALAZNE GURIDI
- Erabakitzeko eskubidea | 48 — AINTZANE OIARBIDE

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 10 | HERRIAK 14 | KIROLA 34 | KULTURA 38 | GAZTEAK 41 | ZURE IRAGARKIAK 42 | ZORION AGURRAK 43 | TELEBISTA-IRRATIA 44 | EZKONTZAK 45 | ESKELAK 45 | NON-ZER 46

# Herriaren borondatea azaleratzeko deia

- Domekan egingo dute herri galdeketa Debagoienean
- 54.833 lagun daude deituta hautetsontzietara

**MIRARI ALTUBE** | DEBAGOIENA

Gure Esku Dago dinamikak –eskualdean Erain Debagoiena bitartez– deitutako herri galdeketaren eguna iritsi da. Domekan, ekainaren 5ean, da eta 54.833 debagoiendarrek –aramaioarrak barne– dute aukera independentziaren gainean egindako galderari erantzuteko: *Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?*

**16 urtetik gorako guztiek**

Bozkatzeko eskubidea izango dute 16 urte beteta dituzten guztiek, betiere, Debagoieneko herriren batean erroldatuta egonez gero. Galdeketa-mahaietan ez da hautes-erroldarik egongo; hortaz, baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute boto emaileek espainiar herritartasuna izanez gero: nortasun agiria edo pasaportea; eta bozkatzera doan Debagoieneko



Debagoieneko Gure Esku Dago lantaldeetako ordezkariak astelehenean, Leintz Gatzagan

## EKAINAREN 5ERAKO EGITARAUAK HERRIZ HERRI

### ARRASATE

- **09:00** Suziri-jaurtiketa eta bozkalekuen irekiera.
- **10:00** Txalaparta auzoz auzo, Garagartzatik hasita.
- **11:00** Dantzariak, dultzaineroak eta erraldoiak.
- **12:00-14:00** Txaranga lesakarra.
- **12:00-15:00** Txosna Herriko Plazan.
- **12:30-14:30** Bertsolariekin eta trikitilariekin girotutako poteoa.
- **17:00-19:00** Txaranga lesakarra.
- **20:00** Suziri-jaurtiketa, bozkalekuen itxiera eta boto-kontaketa.

### BERGARA

- **09:00** Suziri-jaurtiketa eta bozkalekuen irekiera.
- **11:30** Umeendako jolasak seminarioan. Goizean zehar kalejira herriko kaleetan: txistulariak, trikitilariak...
- **12:30-14:30** Mikro irekia. Kontzertu-segida Domingo Irala kalean, Pol-Pol tabernako balkoian.
- **13:00** Antzerkia Matxiategiko bozkatzeko karparen plazatxoan. Eguerdian pintxo-poteak erdialdean eta Matxiategi kalean.
- **18:00** Kantu jira erdialdean.
- **20:00** Bozkatzeko mahaien itxiera.

### OÑATI

- **09:00** Suziri-jaurtiketa eta bozkalekuen irekiera.

OLAKUA-SAN LORENTZON

- **12:30** Oñatz taldeko dantzariak.
- **13:00** Triki-poteoa.

**Foruen Plazan**

- **12:00** Bizikleta-martxa Herriko Plazatik bozkalekuetara.
- **12:30** Haur-jolasak Oinaztu taldearen eskutik.
- **13:30** Boto-kutxatik boto-kutxarako bertso saioa.
- **18:00** Txorimalo eta erraldoiak herriko kaleetan.
- **20:30** Luncha eta emaitzen irakurketa.

SAN ANTON PLAZATXOAN

- **18:00-20:00** Kontzertua herriko musikarien eskutik.

### ARETXABALETA

- **09:00** Suziri-jaurtiketa eta bozkalekuen irekiera.
- **09:30** Diana txistulariekin.
- **11:00-14:00** Puzgarriak.
- **11:30** Trikitilariak.
- **12:00** Kalebarreneko txaranga.
- **12:30** Kantu-poteoa.
- **13:30** Bertso-saioa Lekaixokaren eskutik.
- **14:30** Herri bazkaria Mitarte kalean.
- **17:00** Street boulder saioa Pagaldeixenetik abiatuta.
- **17:30** Gaiteroak eta buruhandiak.
- **18:00** Trikitilariak.
- **18:00** Bolo-txapelketa.
- **19:00** Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldia.
- **20:00** Mahaien itxiera eta boto-kontaketa.

Egunean zehar artisau postuak egongo dira.

### ESKORIATZA

- **09:00** Suziriak eta txistularien diana.
- **11:00** Herriko taldeen ikuskizunak: dantzariak, gimnasia erritmikoa...
- **12:00** Giza proba Santa Marina plazan.
- **13:00** Gure Esku Dago dantza plazan.
- **13:30** Bertsolariak eta trikitilariak plazan.
- **14:30** Herri bazkaria plazan. Mahaiak egongo dira eta bakoitzak bere jana eraman beharko du.
- **16:00** Haurrendako jolasak eta lantegiak Txirikila taldearen eskutik.
- **17:00** D-Skarga eta Jasan musika taldeen kontzertuak plazan.
- **19:00** Jauzi dantzak plazan.
- **19:30** *Herritik mundura, mundutik herrira* fusio-dantzaldia plazan.
- **20:00** Gure Esku Dago abestia eta denok dantzara, eguna ondo amaitzeko.

Egunean zehar haurren lantegiak egongo dira.

### ANTZUOLA

- **09:00** Bozkalekuak irekitzea.
- **12:00** Herriko txistularien kalejira.
- **14:30** Herri bazkaria Zurrategin. Ondoren musika emanaldia herriko taldeekin.

### ELGETA

- **09:00** Bozkalekua irekitzea.
- **12:30** Trikitilariek poteoa girotuko dute.
- **20:00** Mahaiaren itxiera eta boto-kontaketa.

### ARAMAIO

- **09:00** Suziri-jaurtiketa eta bozkalekuen irekiera.
- **12:00** Kalejira herriko trikitilariekin plazatik kiroldegira, Arabako hainbat herritatik laguntzera eta giroa berotzera etorriko diren 150 laguni harrera egiteko.
- **12:00** Talo-postua, barra-zerbitzua eta Gure Esku Dago-ren mahai ofiziala. GEDen kamiseta koralei Erain Debagoienaren logoa jartzeko aukera.
- **12:15** Legutioko txistularien kalejira, kiroldegitik plazara.
- **13:00** Erain Debagoienaren otzararen zozketa plazan.
- **13:15** Kantu-jira Gasteiz kantuz taldearekin, plazatik abiatuta.
- **14:30** Kantu-jira Gasteiz.
- **13:15** Gonbidatuek bazkaria egingo dute kiroldegian. Nahi duten herritarrek paella dastatzeko aukera izango dute, bost eurotan. Bazkalostean, kantuan egiteko aukera paregabea izango da.
- **17:00** Dantza gidatua plazan, neka-neka egin arte.
- **20:00** Mahaiaren itxiera eta boto-kontaketa.

### LEINTZ GATZAGA

- **09:00** Bozkalekuak irekitzea.
- **14:30** Herri bazkaria.
- **17:00** Bolo-txapelketa.





, herri galdeketa antolatzen . | JAGOBA DOMINGO

herria agertzen ez bada nortasun agirian, udaletxean eskatu behar den errolda ziurtagiria ere bai. EHNArekin bozkatzeko ere errolda ziurtagiria behar da. Espainiar herritartasuna ez dutenen kasuan, atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) behar dute; eta bizileku gisa bozkatzera doan herria ez bada agertzen dokumentu horretan, AIZarekin batera errolda-ziurtagiria. Identifikazio agiriek jatorrizkoak izan behar dute (kopiek ez dute balio).

**Bozkalekuak zabalik**

Legeak ez du finkatuta galdeketa egikaritzeko jarraitu beharreko prozedurarik; horregatik, Gure Esku Dagok ezarritako protokoloa eta beste herri batzuetan emandako prozedurak jarraituko dituzte, betiere, "berme juridikoak" aintzat hartuta eta "parte-hartzea" bultzatuz.

Galdeketa-mahaiak 08:00etan eratuko dituzte, eta hiru lagun egongo dira horietan: mahaiburua eta bi mahaikide. Jarraipen batzordeko kideek eta segurtasunerako izendatutako lagunek ere bozketa-lekuan egon beharko dute. Ondoren, 09:00etan, herritarrendako irekiko dituzte bozkalekuak eta egun osoan izango dira zabalik; mahaiak itxiko dituzte 20:00etan. Orduan ekingo diete boto kontaketari. Hori guztia antolatzeko eta eguneko kontuei jarraipena egiteko 648 lagunek osatutako taldeak jardungo du lanean.

Herri batzuetan galdeketa-mahai bat baino gehiago jarriko dituzte, herritarrei erraztasunak emate aldera; Aramaion, esaterako, hainbat auzotan jasoko dituzte botoak –guneak eta ordutegia taulan zehaztutax– Herri horietako bizilagunek edozein mahaitan bozkatu ahal izango dute, ez dago-eta hautes-erroldarik.

**Jai giroa herrietan**

Herri galdeketaren eguna "jai eguna" izan dadin gura dute Gure Esku Dagoko kideek. Horregatik egitarau dotoreak antolatu dituzte herri guztietan. Galdeketa-mahaiak zabaltzearekin batera ekingo diete ekitaldiei, eta egun guztian zehar izango dira, besteak beste, kalejirak, kontzertuak, umeendako jolasak eta herri bazkariak.

DATUA

**54.833**

LAGUN

Bozkatzera deituta daude 54.833 lagun: Arrasaten, 19.119; Bergaran, 12.684; Oñatin, 9.448; Aretxabaletan, 5.781; Eskoriatzan, 3.661; Antzuolan, 1.754; Elgetan, 936; Leintz Gatzagan, 203; eta Aramaion, 1.247.

DATUA

**648**

BOLUNTARIO

Galdeketa bermatzeko osatutako lantaldean 648 lagun izango dira: mahaikideak, 329; Berme batzordeko eta Jarraipen batzordeko kideak, 49; eta beste lantalde batzuetakoak, 270.

## BOTOA EMATEKO LEKUAK

Hautetsontziak egongo diren galdeketa-mahaien ordutegia izango da 09:00etatik 20:00etara.

Boto aurreratua hainbat herritan eman daiteke oraindik. Antzuolan, gaur –11:30-13:00–; eta Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan gaur –18:30-20:30– eta bihar –Arrasaten, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00; Bergaran, 10:30-13:30 eta 18:30-20:30; eta Aretxabaletan, 11:00-14:00–. Horretarako Erain Debagoienaren edo Gure Esku Dagoren lokaletara jo behar da.

**ARRASATE**

**Gesalibar,** Gentil-Ola elkartea.
**Garagartza,** Leze-Txiki elkartea.
**Uribe auzoa,** plaza.
**San Andres,** Txindoki dorrearen behealdea.
**Arimazubi,** Arrasate pasealekua, 18.
**Erguin,** Usaetxe plaza.
**Ferixalekua,** Otalora Lizentziaduna, 8.
**Santa Marina,** Agerre kalea, 21.
**Musakola,** San Antolin plaza, 16 (karpa).

**BERGARA**

**Ibargarai,** Seminarioko karpa.
**Ibarra** kalea, Caritasen lokala.
**Martoko** kalea, 22 (karpa).
**Matxiategi** kalea, 7 (karpa).
**Angiozar,** eliza ingurua.
**Osintxu,** bolatokia.

**OÑATI**

**Olakua** kalea, 7.
**Errekalde** kalea, 4.
**Unibertsitate** hiribidea, 3.

**ARETXABALETA**

**Pagaldaixena.** Basabe bidea, 2.

**ESKORIATZA**

**Jose Arana** kalea, 19 behea.

**ANTZUOLA**

**Kalebarren** 16, behea.

**ARAMAIO**

**Ibarra, Bizente Goikoetxea** plaza, 7.
**Oleta**, auzoko plazan: 12:00-14:30 eta 17:30-19:30.
**Arexola**, auzoko elkartean: 17:30-18:30.
**Arriola**, auzoko plazan: 19:00.
**Uribarri**, auzoko plazan: 12:00-14:00.
**Untzilla**, elizpean: 12:00-14:00.
**Azkoaga**, elizpean: 12:00-14:00.
**Barajuen**, elizpean: 12:00-14:00.
**Gantzaga**, elizpean: 12:00-14:00.
**Etxaguen**, elizpean: 12:00-14:00.

**ELGETA**

**Salbador** kalea, 4.

**LEINTZ GATZA**

**Jakion** enpresako biltegia.

Kontsultarako mahaien kokapena

Arrasate (09:00-20:00)
**San Andres auzoa**, T. TXINDOKI: Araba etorb., 1
**Arimazubi** (San Biator Txiki): Arrasate paseal., 18
**Uribe auzoa**: plaza
**Erguin**: Usaetxe plaza
**Ferixalekua** (Ikastola): Otalora Lizentziaduna, 8
**Musakola**: San Antolin plaza (karpa jarriko da)
**Santamaña**: Agerre kalea, 21
**Gesalibar**, 8: Gentilola Elkartea
**Garagartza**, 21: Leze-txiki elkartearen aurrean

Aretxabaleta (09:00-20:00)
**Pagaldaixena**: Basabe bidea, 2

Antzuola (09:00-20:00)
**Kalebarren** kalea, 16 (lokala)

Bergara (09:00-20:00)
Ibargarai kalea, 14: seminarioko karpa
Ibarra kalea, 8: Caritasen lokala
Martoko kalea, 22 (DYAko aterpea)
Matxiategi kalea, 7 (karpa)
Angiozar auzoa, 29: eliza inguruan
Osintxu: bolatokian

Elgeta (09:00-20:00)
**Salbador kalea**, 4, botika parean

Eskoriatza (09:00-20:00)
**Jose Arana kalea**, 19: udaletxe ondoko lokala

Leintz Gatzaga (09:00-20:00)
**Jakion** enpresako biltegian

Oñati (09:00-20:00)
**Olakua** kalea, 7
**Errekalde** kalea, 4
**Unibertsitate hiribidea**, 3

Aramaio

| Tokia | Ordutegia |
|---|---|
| **Ibarra**: Bizente Goikoetxea plaza, 7 | 09:00-20:00 |
| **Oleta**: auzoko plazan | 12:00-14:30 eta 17:30- 19:30 |
| **Arexola**: auzoko elkartean | 17:30- 18:30 |
| **Arriola**: auzoko plazan | 19:00 |
| **Uribarri**: elkarte ondoan, auzoko plazan | 12:00- 14:00 |
| **Untzilla**: elizpean | 12:00-14:00 |
| **Azkoaga**: elizpean | 12:00-14:00 |
| **Barajuen**: elizpean | 12:00-14:00 |
| **Gantzaga**: elizpean | 12:00-14:00 |

Etorkizuna eraikitzeko eskubide osoa duzu

Adierazi libre eta demokratikoki zure borondatea

*"Erabakitzeko eskubidea gauzatzea demokraziaren agerpen gorena da"*

Gipuzkoako Batzar Nagusiak

Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?

EKAINAK 5

Erabakitzen HASI GARA

**Angel Oiarbide** | Gure Esku Dago dinamikako bozeramailea

# "Pausoak eman ahala ari gara jarrerak barneratzen, ahalduntzen, eta horrek balio du"

- Domekan herri galdeketa egingo dute 34 udalerritan
- "Bigarren olatu bat elikatuko duen lehenbizikoa" da


Angel Oiarbide, Arrasaten, elkarrizketa egin ondoren. | JAGOBA DOMINGO

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

**Hiru printzipioren bueltan antolatutako dinamika da Gure Esku Dago: *1) Herri bat gara. 2) Erabakitzeko eskubidea dugu. 3) Herritarron garaia da.* Oinarriok abiapuntu, Euskal Herriko 34 udalerritan herri galdeketa egingo dute domekan, tartean, Debagoieneko 9 herrietan, Erain Debagoiena mugimenduak bideratuta. Angel Oiarbidek, Gure Esku Dago dinamikako bozeramaileak. azpimarratu du ekainaren 5a "mugarria" izango dela. Goiena Telebistako *Harira* saioan Eneko Azkaratek egindako elkarrizketaren laburpena da hauxe:**

**Zer moduz doaz herri galdeketaren antolakuntza kontuak?**

Oso ondo doa; ez da erronka makala herritarrok jarri genuena eta, batez ere, 34 herriok geure buruari jarri geniona. Hautetsontziak eta boto batzuk herritarren eskura jartzea erraza dirudi, baina lan handia dakar. (…) Horiek denak aurrera ateratzen ari gara eta asko ikasten ari gara.

**Herri galdeketa antolatzeko herritarrak aktibatu dituzue, ez horretara ohituta dagoen jendea…**

Horrek demaseko balioa du. Ekainaren 5a iristea 34 herritan, non bozkatu dezaketenak 125.000 lagun baino gehiago diren, eta hori guztia antolatzeko gai izatea, ikaragarrizko erronka da. Batetik, berme guztiak izan behar dituen prozesua izan behar delako, eta, bestetik, egunak berak dakarren lanarengatik… Eta herritarrentzat balio duena da pausoak eman ahala, ikusi ahala, sentitu ahala, jarrerak barneratzen ari garela, eta asko ikasten ari garela eta ahalduntzen ari garela. Ikustea herritarrok gai garela horrelako gauzak egiteko… beste maila bat igotzen dugu herritarrok, eta horrek demaseko garrantzia dauka.

**Debagoienean 9 herritan egingo da; ze beste lekutan egingo da?**

Bizkaian Ispasterren, Araban Aramaion eta Gipuzkoan Debagoieneko 8 herrietan, Azpeitian eta Goierriko 23 herritan: 34 herri. Nafarroako Bakaikun eta Bizkaiko Diman ere orain egitekoak ziren, baina erabaki dute udazkenera atzeratzea. Izan ditugu zailtasunak: iaz prozesu hauek martxan jarri zirenean ez genuen aurreikusi Espainiako hauteskundeen errepikapenik. (…) Horrek behartu gaitu data aurreratzera, ahalik eta urrutiren sentitzeko Espainiako hauteskundeetako zurrunbilotik. Hori izan zen arrazoia kontsulta horiek guztiak ekainaren 5era aurreratzeko. (…) Uste dut aukera ona izan dela aurreratzea, elkarrekin egitea eta estatu espainoleko hauteskundeen aurretik euskal herritarrek ere mahai gainean jartzea hemen ere hasi dela olatu bat, lehenbizikoa, bigarrena elikatu nahi duena, uhin indartsu bat sortu nahi duena, gure etorkizuna erabaki nahi dugulako: ze egitura politiko, ze estatus politiko… horren inguruko eztabaida hasi dela hemen eta herritarrek hartu dugula protagonismoa. Uste dugu mezu ezin hobea doala joan behar den lekura.

> **"Emaitzaz harago, adostasunaren kultura jorratzen gabiltza, herriz herri"**

> **"Garrantzitsuena da gai izatea herriaren borondatea azaleratzeko"**

**Bigarren olatua aipatu duzu; hori noiz gauzatuko da, eta non?**

Izango da 2017ko udaberrian, eta txiki utziko ditu oraingo herri galdeketak. Ja aurreratu dute Oarsoaldeak, Tolosaldeak, Txorierrik, Bermeok, Elorriok… hainbat herrik eta eskualdek aldarrikatzetik gauzatzerako bidea egingo dutela. Guk hasieratik aipatu genuen aldarrikatzetik gauzatzerako trantsizioa egingo zuen herri dinamika gineila eta determinazio guztiak genituela pauso horiek egiteko. Esan genuen gure egitekoa hiru fasetan zela: ehundu, adostu eta erabaki. Dinamika hau, gaur egun, Euskal Herriko 200 herri baino gehiagotan dago batzordeka, eta diasporan ere bai, Argentinan. Gaitasunetako bat da eskualde bakoitzeko errealitatera egokitzen den dinamika dela; kasu honetan, ekainaren 5ean 34 herritan hiru faseak osatu dira: ehundu da, borondate bat sortu da, bildu da, adostu da bai prozesua eta baita galdera ere, eta erabakitzeko fasean jartzen gara. Beste herri batzuetan ehuntzen doaz, baina dudarik ez dugu herri horiek guztiak norabide batean doazela, eta hori da euskal herritarrok gure etorkizuna erabakitzea.

**Domekan Bulebarrean ere ekimenak egiteko asmoa duzue...**

Bai, ze ekainaren 5ekoa guretzat mugarria izango baita. Ahaztu gabe aurrekariak –2014ko Etxarrikoa eta Arrankudiagako herri galdeketak–, ze handik bi urtera gai izan baikara 34 herrik parte hartzeko. Eta gai gara, gainera, aurreratzeko badatozela beste herri batzuk ere. Ekainaren 4an eta 5ean herri askotan izango dira ehuntzeari begira, borondateak biltzeari begira ekintzak. Donostian jarriko dituzte 10 hautetsontzi Bulebarrean, zera galdetuz: *Nahiko zenuke Donostian ere horrelako prozesuak martxan jartzea?* Donostian bezala, Getxon egin behar dute, Tafallan, Gasteizen… herri askotan ehuntzen ari dira hurrengo fasera pasatzeko.

**Zein da igandeko helburu nagusia? Emaitza zenbateraino da garrantzitsua? Eta ze emaitza?**

Zurriolara 2014an aterkiak hartuta joan ginenean, ez genekien ze dimentsiotako ekintza egiten ari ginen. Perspektibarekin, ekintza droneekin grabatu zenean –zeina Europako komunikabide askotan erabili zuten Eskoziako kasuan eta Kataluniako galdeketaren bueltan–, orduan konturatu ginen uste baino garrantzitsuagoa zela, eta ekainaren 5ari ere perspektiba horrekin begiratu beharko genioke. (…) Ikaragarrizkoa da gai izatea hiru urtera Gure Esku bezalako dinamika bat 34 herri kontsulta antolatzeko. Zergatik? Emaitzaz harago, atzo zen eguna gu lantzen ari garen gai hau "korapilatsua" zela, haserreetarako egokiena (…) jende gehiena gai horretatik oso urruti zegoen (…). Gai izatea herritarrek ustez hain "korapilatsua" zen gaia hartu, herriz herri eztabaidak sortu, bata besteari entzuten hasi, bata bestearengandik ikasten hasi, prozesu bat, galdera bat adostu… hau da, adostasunaren kultura jorratu… eta hori elkarrekin egikaritu eta erabakitzea, biszeralitate batetik arrazionalitate batera trantsizioa egiteak eta "gai korapilatsua" zena normalizaziora pasatzeak herritarrak aitzindari izanda, balio ikaragarria du. Ez dugu dudarik hau guztia gure ordezkariengan islatu egingo dela. Herritarrok gaia lantzen hasi garenean konturatu gara mito asko jausten ari direla, korapilatsutik ez dauka hainbeste, konfliktibotik ez dauka hainbeste… ekainaren 5ak, niretzat, hori guztia sinbolizatzen du. Hori honaino ekartzea demaseko erronka eta lorpena da. Eta hori eginda, berdin zaigu dinamika bezala baiezkoak, ezezkoak edo zuriak gehiengo izatea… ahalik eta partaidetza handienarekin irabaziko du kontsultak.

**Zein parte-hartze izango litzateke gustura geratzeko modukoa?**

Garrantzitsuena da gai izatea herriaren borondatea azaleratzeko. Azaleratzen denean, ikusiko dugu zenbateraino duten herritarrek borondatea norabide horretan pausoak emateko. Baina azaleratzen dena azaleratuta ere, ez da ezer bukatzen ekainaren 5ean; egongo da ekainaren 6a, 7a… Katalunian 2009tik ari dira erabakitzen. Arenys de Munt-en kontsulta hasi zenetik (2009an) urte eta erdian Bartzelonara iritsi arte parte hartu zutenen batez bestekoa ez zen iritsi %19ra. Ikusi zen gaia azaleratu egin dela eta borondate hori areagotzen joan dela. Ekainaren 5ean zerbait egiten hasten bada, da hasi; badakigulako nora goazen, zer nahi dugun, –herritarrek erabakitzea–, eta joango gara pausoz pauso borondate hori areagotzen.



# Alderdi politikoen artean, askotariko iritziak



**BEÑARDO KORTABARRIA**
EH BILDU

## "Esan 'Bai', ongizatea eta etorkizuna bermatzeko"

"EH Bilduk babes osoa adierazi nahi dio galdeketari, eta debagoiendar guztiei ariketa demokratiko honetan parte hartzeko deia luzatu nahi diegu. EH Bilduk baiezkoaren alde egingo du, eta herritarrak ere horretara animatu nahi ditu, iritzi guztiak errespetatuz. Guk, hemen, Debagoienean eta Euskal Herrian erabaki nahi dugu, mugarik gabe erabaki, gainera: gure industria politikaren inguruan; gure nekazaritza ereduaren inguruan; gure hizkuntza eskubideen inguruan;... Debagoiendar guztion bizi baldintzak hobetzeko, sozialki justuagoa den gizarte berri bat eraikitzeko, gure etorkizun politikoa zein izango den libreki erabakitzeko, bozkatu *Bai*".



**JOSU EZKURDIA**
EAJ

## "Giltzarri da ibilbide egingarria aurkeztea"

"Hasteko, ekimenari errespetu osoa adierazi nahi diogu, beti ona delako herriaren iritzia kontuan izatea. Baina egia da, galdeketak egin ondoren jendeak hurrengo urratsa zein den galdetuko duela. Euskal estatu independente bat nahi dugun galdetuta, abertzale batek baiezkoa erantzutea agerikoa da. Horregatik, herri bezala dagokigun erabakitze eskubidea gauzatzerakoan giltzarri da ibilbide sinesgarri eta egingarria aurkeztea. Hor dago, alegia, Legebiltzarrean lantzen ari garen Autogobernu Ponentzia. Urratsak planifikatu eta ebaluatu behar dira, helburua, hau da, independentzia, erdiesteko. Bestetik, kontuan izanda zentsuaren %24 eskasek sinatu duela galdeketaren alde, oso emaitza eskasa espero zaie".



**IGOR URIZAR**
BALEIKE-AHAL DUGU

## "Galdeketak funtsezko erremintak dira"

"Galdeketak funtsezko erremintak dira herri demokratiko eta parte-hartzaile bat eraikitzeko; demokrazia zuzena sendotzen dute eta hiritarren borondatea islatzeko ezinbesteko dira. Positiboki baloratzen ditugu. Ekintza honek mahai gainera dakar euskal gizartean existitzen den borondate politiko bat, eta honi erantzun apropos bat eman behar zaio indar politikoen aldetik. Garbia da euskal nazio bat badagoela eta herritarrek burujabe izateko eskubidea dutela eredu soziala, ekonomikoa edo Estatuarekiko erlazioa erabakitzeko. Ildo horretan, alderdion artean marko politiko bat adostea derrigorra da, herriaren borondatea bideratzeko, erabakitzeko eskubidea erreminta zentral bezala erabiliz".



**JUAN LUIS MERINO**
IRABAZI

## "Galdera baztertzailea dela deritzogu"

"Positiboa da kontsultak egitea, bizitza publikoko hainbat gai —lan arlokoak, sozialak, ekonomikoak, harreman arlokoak— erabakitzeko parte-hartze erreminta gisa. Baina, independentziari buruz galdetzea zilegi izanda ere, baztertzailea deritzogu, Espainiarekiko harreman modu bakarra jasotzen duelako; herritarren sektore bati bakarrik dago bideratuta, eta ez dira kontuan hartzen beste aukerak: harreman federalak %34ko babesa du, autonomiak %32koa eta independentziak %23koa, azken Euskobarometroaren arabera. Behar dena da, hasteko, estatu ereduari buruzko —eredu soziala eta ekonomikoa barne— gizarte eztabaida handia. Eta gero, galderak behar luke adostua eta inklusiboa".



**OSCAR GARCIA**
PSE-EE

## "Mozorrotutako independentismoa da"

"Jendeari inporta diona da langabezia, zerbitzu publikoak... Horretan gaude sozialistok, beste guztia bigarren mailakoa da. Erabakitzeko eskubidea egunero gauzatzen da demokrazian, bakoitzak erabakitzen du bere eskumenekoak diren gauzetan. Inork harantzago erabaki nahi badu, eskumenak eta legeak aldatzen saia dadila. Sozialistontzat, erabakitzeko eskubidea da mozorrotutako independentismoa, marra gorri bat, jendea zatitzeko baino balio ez duena, gainera. Gu ari gara lanean denon etorkizun hobe baten alde; etorkizun bat elkarrekin, berdintasunean, askatasunean eta eskubideekin. Pertsonak dira gure aberria".

demokraziaren festa

Eskualde osoan
09:00 Mahaien irekiera
20:00 Botoen kontaketa eta emaitzen informazioa

Leintz Gatzaga
Ekainaren 5ean
14:30 Herri-bazkaria
17:00 Bolo-txapelketa




Arrasate
Ekainaren 4an
18:30 Txalapartariak + Bertsolariak + Dantzariak Biteri plazan
19:00 Castellersak Biteri plazan
Ekainaren 5ean
09:00 Suziri-jaurtiketa
10:00 Txalaparta auzoz auzo (Gesalibartik hasita)
11:00 Dantzariak eta dultzaineroak auzoz auzo
12:00-14:30 Txaranga Lesakarra
12:00-15:00 Txosna Seber Altuben
12:30-14:30 Bertso poteoa
18:00-20:00 Txaranga lesakarra
20:00 Suziri-jaurtiketa

Aretxabaleta
Ekainaren 3an
19:30 Bertso-saioa Pagaldaixenean: Nerea Elustondo eta Aitor Sarriegi
Ekainaren 5ean
09:00 Txupinazoa
09:30 Diana txistulariekin
11:00-14:00 Puzgarriak
11:30 Trikitilariak
12:00 Kalebarreneko txaranga
12:30 Kantu-poteoa
13:30 Bertso-saioa Lekaixokaren eskutik
14:30 Herri-bazkaria Mitarte kalean
17:00 Street boulder saioa Pagaldaixenetik abiatuta
17:30 Galteroak eta buruhandiak
18:00 Trikitilariak
18:00 Bolo-txapelketa
19:00 Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldia
20:00 Mahaien itxiera eta boto-kontaketa
Egunean zehar artisau-postuak

Eskoriatza
Ekainaren 5ean
09:00 Suziriak eta txistularien diana
11:00 Herriko taldeen ikuskizunak (dantzariak, gimnasia erritmikoa...)
12:00 Giza proba Santa Marina plazan
13:00 Gure Esku Dago dantza plazan
13:30 Bertsolariak eta trikitilariak herriko plazan
14:30 Herri bazkaria plazan (mahaiak egongo dira eta bakoitzak bere jana ekarri beharko du)
16:00 Haurrentzako jolasak eta lantegiak Txirikila taldearen eskutik
17:00 D-skarga eta Jasan musika-taldeen kontzertuak plazan
19:00 Jauzi dantzak plazan
19:30 "Herritik mundura, mundutik herrira" fusio-dantzaldia plazan
20:00 Gure Esku Dago abestia eta denok dantzara, eguna ondo amaitzeko
Egun osoan zehar haurren lantegiak

Bergara
Ekainaren 5ean
09:00 Etxafuegoak
11:30 Haurrentzako jolasak seminarioan
Goizean zehar kalejira herriko kaleetan: txistulariak, trikitilariak...
12:30-14:30 Mikro irekia. Kontzertu-segida D. Irala kalean
13:00 Antzerkia Matxiategiko plazatxoan
Eguerdian pintxo-poteak erdialdean eta Matxiategi kalean
18:00 Kantu jira erdialdean
20:00 Bozkatzeko mahaien itxiera

Oñati
Ekainaren 5ean
09:00 Etxafuegoen jaurtiketa
OLAKUA -SAN LORENTZON
12:30 Oñatz dantza-taldeko dantzariak
13:00 Trikitilariekin triki-poteoa.
PLAZAN
12:00 Bizikleta-martxa herriko plazatik bozkalekuetara
12:30 Haur-jolasak Oinaztu taldearen eskutik
13:30 Boto-kutxatik boto-kutxarako bertso-saioa
18:00 Txorimalo eta erraldoiak herriko kaleetan zehar
20:30 Luntxa
SAN ANTON PLAZATXOAN (Ona taberna parean)
18:00-20:00 Kontzertua herriko musikarien eskutik

Antzuola
Ekainaren 5ean
09:00 Bozkalekuak irekitzea
12:00 Herriko txistularien kalejira
14:30 Herri bazkaria Zurrategin
Ondoren Musika-emanaldia herriko taldeekin
20:00 Bozkalekuak ixtea eta boto-kontaketa

Elgeta
Ekainaren 5ean
Trikitilariek giroituko dute eguna

Aramaio
Ekainaren 4an
22:30 Kontzertua: Entxufaus eta Katar (barra-zerbitzua)
Ekainaren 5ean
09:00 Bozkalekuen irekiera, etxafuego eta guzti
12:00 Kalejira herriko trikitilariekin plazatik kiroldegira.
12:00etatik aurrera Talo-postua, barra-zerbitzua eta Gure Esku Dagoren mahai ofiziala.
12:15 Legutioko txistularien kalejira kiroldegitik plazara
13:00 Erain Debagoiena otzararen zozketa plazan
13:15 Kantu-jira "Gasteiz kantuz" taldearekin plazatik abiatuta
14:30 Gonbidatuen bazkaria kiroldegian nahi duten herritarrekin (paella: 5€. Txartelak kiroldegian)
17:00 Dantza gidatua plazan, neka-neka egin arte
20:00 Bozkalekuen itxiera eta boto-kontaketa

EKAINAK 5

E5
Erabakitzen
HASI GARA

# Erantzunerako zenbait gako, ekonomiatik

Domekako independentziaren gaineko galderaren aurrean, bi ikuspegi desberdin

## "Gure ekonomiarentzat hil edo biziko kontua da garapen eredu propioa lantzeko aukera izatea"


GOIENA

**ADRIAN ZELAIA**
Ekai Centerko presidentea. Ikerketan, aholkularitzan, komunikazioan eta prestakuntzan hainbat erakunderekin egiten dute lan, kudeaketa publiko eta pribatua hobetzeko asmoz.

"Euskal Herria ez da Katalunia. Balizko estatu propioaren abantailak eta desabantailak zehazteko egin beharreko azterketa ekonomikoa zeharo ezberdina da kasu batean eta bestean. Hala ere, Euskal Herriaren kasua aztertzen duten ikerketa gehienek Kataluniaren antzekoa balitz moduan eta, batez ere, aurrekontu politiketan oinarritutako azterketa egin ohi dute. Baina, Euskal Herriaren kasuan, autogobernu mailak –edo independentziak berak– garrantzia izan dezake aurrekontu politiketan –sarrera eta gastu publikoetan–, jakina, baina –betiere– bigarren mailakoa. Zergatik? Kontzertu Ekonomikoagatik. Bestalde, berebiziko garrantzia dauka gure kasuan gure eskuetan oraindik ez dauden eskumenen kudeaketak. Eta, zehazki, politika publikoek eta gure klase politikoaren gaitasunak. Datu objektiboen arabera, Espainia eta Europako erdiguneko herrialdeen arteko leku batean, erdi inguruan, dago kokatuta Euskal Herria, bai egitura produktiboaren aldetik, bai errentaren aldetik, bai eta teknologia eta prestakuntzaren aldetik ere. Berezko eredu produktiboa eta garapen eredua behar ditugu, eta gero eta zailagoa bihurtzen ari da oraingo egoera politiko eta instituzionalean. Gure ekonomiarentzat, hil edo biziko kontua da garapen eredu propioa lantzeko aukera izatea. Eta, horretarako, finantza sistema, lan harremanak eta lan araupena, gizarte segurantza, hezkuntza, ikerkuntza, prestakuntza eta unibertsitatea antolatzeko, arautzeko eta garatzeko eskumenak izatea behar-beharrezkoa da. Bidegurutzean dago euskal ekonomia. Balio erantsian, prestakuntzan eta teknologian oinarritutako garapen eredu baten beharrean gaude, inoiz baino gehiago. Horretarako, nahitaezkoa da behar diren politika eta estrategiak landu eta garatzeko aukera izatea. Politika eta estrategia ezberdinak, garatuagoak eta eredu produktibo aurreratuekin bat datozenak behar ditugu, gero eta premia handiagoaz. Hala ere, ez dugu ahaztu behar dagokigun garapen eredua martxan jartzeko beharrezko tresna baino ez dela eskumen guzti horiek eskuratzea. Eskumen horiek modu egokian erabiltzeko, gure ekonomiari dagokion diagnostikoa egiteko eta behar diren lidergoa, estrategiak eta politikak gauzatzeko gai den klase politikoa ere behar dugu. Ba al dugu horrelako klase politikorik? Frankismo osteko 30 urteko ibilbidea aztertu eta baloratuz gero, baietz esan beharko litzateke. Tamalez, finantza krisia lehertu zenetik gertatutakoa kontuan hartzen badugu, zalantzan jar daiteke balizko eskumen horiek guztiak kudeatzeko gure klase politikoak gaitasunik balukeen. Nolanahi ere, gure eskuetan legoke".

## "Independentziak lekarke Europako Batasunetik eta eurotik kanporatuak izatea"


GOIENA

**ANTXON PEREZ DE CALLEJA**
Sortzez zarauztarra izan arren, Aretxabaletan bizi izaten urteak daramatzan ekonomialaria. *Diagnóstico de la Economía Vasca* liburuaren egilea eta hainbat kooperatibaren bultzatzailea.

"Balizko independentziaz ari garela, Kataluniara begira jarri nahi nuke, hango esperientziari so egin. Independentziari buruz hizketan hasi zirenean, lehenago edo beranduago txosten ekonomikoren bat agertzeko zain egon nintzen, ditxosozko independentziak izango zituen alde on eta txarrak azalduko zituena; batez ere, kontuan izanda kataluniarrek duten jende zentzudun fama. Denbora asko pasa zen eta ez zen inongo txostenik agertzen, azkenean dokumentu moduko bat atera zuten arte; dena arrosa koloreko agertzen zuen: 'Ez da ezer gertatuko; lehengo modura jarraituko dugu, Europako Batasunaren barruan, euroaren barruan; eta, gainera, Espainiarekin orain artekoak moduko merkataritza harremanak izango ditugu'. Eta hori ez du inork sinisten; dokumentu hark esaten zuenak zentzugabeko gauza eta inongo oinarri errealik gabea zirudien. Eta, nik uste, hori eurek ere bazekitela; hau da, independentzia operazio arriskatua eta ausarta dela, eta dakarrela momentuko egoerarekiko apurketa, bi zentzutan: batetik, Europako Batasunetik kanporatua izatea, baita eurotik ere; eta, gainera, Estatu berriaren kokatzea Europako eszenatokian oso zaila izango litzateke eta ekarriko luke denbora luzea zailtasun handiekin. Hori kontuan izanda eta Euskadira etorrita, ikusten da nazionalistak eroso eta lasai daudela Kontzertu Ekonomikoari esker. Amets zoroenetan ere ez zuen pentsatu izango EAJk 12.000 milioi euroko aurrekontu bat kudeatuko zuenik, eta 120.000 funtzionario izango zituenik. Hain da egoera erosoa eta lasaia –eta, gainera, industria birmoldaketa edo ETArena moduko arazo potoloenak administrazio zentralaren esku egonda–, hori utzi eta hainbeste zailtasun lekartzakeen independentzia baten bidean sartzea pentsaezina litzatekeela. Baina, noski, noizean behin, nazionalista horiek gogoratzen dira independentistak direla, eta, batez ere, hauteskundeetara begira, gogora ekarri behar dute 40 urtean hauteskundeak hauteskundeen ostean irabazteko aukera eman dien gaia; eta antolatzen dira joko malabareak, eta zuzenean independentzia aldarrikatu beharrean, hitz egiten da erabakitzeko eskubideaz, eta areago soberanismoaz, eta hori da itzulinguruka ibiltzea, erabaki drastikoak hartzerik nahi ez delako. Badago biztanleriaren %15-25 arteko kopuru bat independentzia nahiko lukeena, baita horrek hondoa jotzera eta 30 urtean larri ibiltzera eramango gintuzkeela jakinda ere, baina gainerakoek ez dute halakorik nahi, jarraikortasuna nahi dute, ezer pasa ez dadin nahi dute".



# Ondo zehaztutako prozedura botoen kontaketarako

Berme Batzordeak galdeketaren "gardentasuna, neutraltasuna eta objektibotasuna" bermatuko du



Zenbait herritar botoa aurrez emateko ilaran eguaztenean, Arrasateko Erain Debagoienaren lokalean. | JOKIN BEREZIARTUA

**JOKIN BEREZIARTUA** | DEBAGOIENA

Domekako herri galdeketarako bozkalekuak 09:00etan ireki eta 20:00etan itxiko dira. Debagoienean eta Aramaion bizi diren herritarren %10 baino gehiagoren sinadurak bermetzat hartuta, "lan handia" hartu du Erain Debagoienak galdeketa bera eta osteko botoen zenbaketa prestatzeko.

Hau da, galdeketa "ahalik eta era egokienean eta garbienean" egiteko, Gure Esku Dago dinamikak onartutako *Herri galdeketen protokolo markoa* hartuko dute aintzat, bertan jasotzen diren "printzipio, ezaugarri eta betekizun guztiak" errespetatuz.

**Bermea, batzordez batzorde**

Herri galdeketak "berme juridikoa" izan dezan, batzorde ezberdinak sortu ditu Erain Debagoienak: Berme Batzordea, Jarraipen Batzordea, Begiraleak eta Galdeketa Mahaiko Kideak. Berme Batzordea legelariek, politologoek edota hauteskunde-prozesuetan "eskarmentua" duten pertsonek osatzen dute eta euren egitekoa izango da galdeketaren "gardentasuna, neutraltasuna eta prozesuaren objektibotasuna" bermatzea. Egiteko zehatzen artean izango dituzte honako hauek, besteak beste: kontsultako protokolo orokorra gainbegiratzea eta onartzea, galdeketaren emaitzak aldarrikatzea, kanpainaren gardentasuna egiaztatzea eta kanpainan galdeketaren egunean eta ondoren aurkezten diren idatzizko ohar, alegazio edota erreklamazioak ebaztea, eta bozketako dokumentazioa suntsitzen dela egiaztatzea.

Bestalde, Jarraipen Batzordea herrian ospe handia edo herritarrek parte hartzeko prozesuetan "eskarmentua" dutenek osatuko dute. Euren zeregin nagusia Berme Batzordeari laguntzea izango da. Esaterako, mahaietan egon nahi duten irabazi asmorik gabeko elkarteetako edo eragile politiko, sozial zein ekonomikoetako ordezkarien akreditazioak egiaztatu beharko dituzte eta baita ordezkari horiek artatu ere.

Horiekin batera Begiraleak egongo dira, independentziaz arituko diren prestigiozko pertsonak. Herrikoak bertakoak, Euskal Herrikoak, espainiar estatukoak edo estatu kanpokoak izan daitezke. Galdeketaren "gardentasuna eta garbitasuna" egiaztatzea izango da horien zeregina, eta, zehazki, galdeketa herri-galdeketei aplikatzen zaizkien estandar orokorren arabera gauzatu dela egiaztatzea.

Azkenik, Galdeketa Mahaiko Kideak egongo dira, mahaiburua eta bi laguntzaile; ordezkoak ere izan ditzakete, izendaturiko titularrek halabeharrez ezin dutenerako. Hiru kide horien egiteko nagusia izango da herritarrei botoa ematen laguntzea, botoak jasotzea eta zenbatzea. Horrez gain, beste zeregin batzuk ere izango dituzte, besteak beste, mahaia eratzea, botoaren izaera sekretua bermatzea eta boto-emaileen zerrenda osatzea eta zaintzea.



Domekako herri galdeketarako boto-paperak. | JOKIN BEREZIARTUA

## Goienak uneoroko jarraipen zehatza egingo du etzi

Erain Debagoienak domekarako antolatu duen herri galdeketaren jarraipen uneorokoa eta zehatza egingo du Goiena Komunikazio Taldeak. Ekitaldien jarraipena, emaitzak herriz herri, balorazioak eta irudiak erakutsiko ditu, *Goiena.eus*–en eta Goiena Telebistan. Azken honetan, saio berezia emango du 20:00etan hasita: eguneko gorabeherak, emaitzak, balorazioak... jasoko dira saio berezi horretan. 20:00ak bitartean

Bestetik, domekako –edo aste bukaera osoan zehar antolatutako ekitaldietako– argazkiak bidaltzeko gonbita ere egin die Goienak herritarrei. Argazkiak bidaltzeko hiru modu egongo dira: 688 69 00 07 telefono zenbakira bidalita erretratua Whatsapp edo Telegram aplikazioen bidez; posta elektronikoz *berriak@goiena.eus* helbidera; eta Goienaren mugikorretarako aplikazioaren bidez.

**Protokoloa: zenbait xehetasun**

Botoen kontaketak protokolo zehatza jarraituko du. Hainbat puntu jasotzen ditu protokolo horrek, eta horien artean honako hauek nabarmendu daitezke: bozketa amaitzean aurrez botoa eman dutenen gutun-azalak boto-kutxan sartuko dira; botoen kontaketa jendaurrekoa da eta ezingo da gelditu boto guztiak zenbatu arte; eta mahaiburuak berehala kanporatuko ditu botoak zenbatzeko trabak edo nahasteak eragiten dituzten pertsonak.

Izan ere, botoen zenbaketaren aurka kexarik balego, mahaikideen gehiengoz hartuko da erabakia eta Berme Batzordearen irizpidea eskatuko eta jarraituko du mahaiak. Gainera, kontaketa amaitu eta emaitza egiaztatutakoan, boto-paperak suntsitu egingo dira, boto baliogabeak eta erreklamazioren baten xede izan direnak izan ezik –kasu horietan, mahaiko kideek sinatu egingo dituzte boto-paper horiek, eta bilkura-aktari erantsiko dizkiote–.

Amaieran, mahaiburuak bozketaren emaitzaren berri emango du eta mahaiko boto-zenbaketaren aktan jasoko du –akta horretan jasoko dira eguneko gorabeherak ere–. Honako datu hauek jakinaraziko ditu mahaiburuak: boto-emaileen kopurua, boto zurien kopurua, boto baliogabeen kopurua eta erantzun bakoitzak –bai edo ez– lortu dituen botoen kopurua.

HERRI GALDEKETA GOIENAN

**GOIENA.EUS:** EGUNEKO EKITALDIEN JARRAIPENA | EGUNEKO BOZKETA | EGUNEKO GORABEHERAK | EMAITZAK HERRIRIK HERRI | BALORAZIOAK, IRUDIAK, ARGAZKIAK...

**GOIENA TELEBISTA:** SAIO BEREZIA 20:00ETAN HASITA | EGUNEKO EKITALDIAK, BOZKETA EGUNA, EMAITZAK, BALORAZIOAK...

**PARTE HARTU:**
BIDALI EGUNEKO ARGAZKIAK: **Whatsapp: 688 69 00 07** | Telegram: 688 69 00 07 | Posta elektronikoa: berriak@goiena.eus | Goiena app: Parte hartu.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Antxon Mendizabalen pentsamendua partekatuko dute

'Tonino'-ren omenezko I. formazio topaketak dira

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Globalizazioa eta autogestioa, "Antxonek asko landu zituen bi gai" horien gainean jardungo dute Arrasaten bihar, zapatua, egingo dituzten Antxon Mendizabalen (Arrasate, 1946-2016) omenezko I. formazio topaketetan –egitaraua taulan–. "Asmoa da Antxonek bere bizitzan zehar egin zituen hausnarketa sozial, ekonomiko eta politikoak mahai gainean jartzen hastea eta eztabaida irekitzea aurrera begira bide berriak jorratzeko eta ekarpen berriak burutzeko", esplikatu dute Antxonen Lagunak izena duen topaketen antolatzaile taldeak.

### 30 lagunek eman dute izena

Sei aditu gonbidatu dituzte globalizazioaren –goizean– eta autogestioaren –arratsaldean– gainean jarduteko Etxaluzen. Eta parte hartzeko aurreikusitako 40 partaiderendako lekua ia bete dute, atzo, eguena, 30 lagunek ja izena emanda baitzuten – *internazionalistak.arrasate@gmail.com*–; "hala ere, 40ko kopurua gainditzen badugu, egingo dugu lekua", azpimarratu dute antolatzaileek.

**EGITARAUA**

**11:00-13:00**

Carlos Sanchez, historialaria eta irakaslea

Txema Uriarte, historialaria eta idazlea

Jesus Valencia, internazionalista

**13:30: Bazkaria eta omenaldia**

**16:00-18:00**

Sylvia Gay, EHUko kidea

Nekane Jurado, ekonomialaria

Gabriel Valin, Auzolan Euskal Herria-ko kidea

# Apal, baina beherako joerari eutsi egin dio langabezia tasak

**JON BEREZIBAR** | DEBAGOIENA

Atzo, eguena, jakinarazi zituzten maiatzari dagozkion eskualdeko langabezia datuak. Haien arabera, oro har, urte hasieratiko bilakaerari eutsi egin dio langabeziak ekainera arte, eta jaitsi egin da, baina murrizketa apalarekin.

### Apenas 70 gutxiago

Debagoien osoan, Aramaio barne, urtarrilean 3.306 langabe zeuden eta maiatza 3.236 langaberekin amaitu da; bestela esanda, 70 langabe gutxiago daude Debagoienean. Batez besteko tasa %10,70ekoa da; urte hasieratik %0,24 jaitsi da tasa.

**HERRIZ HERRI**

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| Antzuola | 72 | %6,63 |
| Aramaio | 27 | %3,56 |
| Aretxabaleta | 280 | %8,16 |
| Arrasate | 1.477 | %14,16 |
| Bergara | 701 | %10,05 |
| Elgeta | 50 | %8,43 |
| Eskoriatza | 204 | %10,07 |
| Leintz Gatzaga | 9 | %6,57 |
| Oñati | 416 | %7,82 |
| **GUZTIRA** | **3.209** | **%10,70** |

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

## Arnaldo Otegi Arrasaten izango da gaur, 19:00etan

Sortuko idazkari nagusi eta EH Bilduko lehendakarigai Arnaldo Otegi Arrasatera etorriko da gaur. Herritarren iritziak, kezkak eta proposamenak zuzen-zuzenean entzuteko helburuarekin, EH Bilduk antolatu duen *Hobetzeko entzuten* ekitaldi zikloaren baitan dator Arrasatera. Ekitaldi horietan, Arnaldo Otegi eta EH Bilduko beste ordezkari batzuk herritarrekin harreman zuzenean jarriko dira. Uarkapen izango da ekitaldia, gaur, 19:00etan hasita.

## Erdi mailako heziketa ziklo bi jarriko ditu abian Arizmendik

Heziketa ziklo bi jarriko ditu abian Arizmendi Ikastolak datorren ikasturtean. Bata da *Osasun larrialdiak* eta bestea, *Mikroinformatika sistemak eta sareak*. Erdi mailakoak dira biak, eta Arrasaten, Ferixalekuan emango dituzte eskolak. Aurrematrikula egiteko epea ekainaren 6an zabalduko dute. Ziklo berri horietan izena emateko baldintza bakarra dago eta da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua izatea –adina kontutan hartu barik– derrigorrezkoa dela.

# Lokal berria alokatu du Bergarako EAJk, hauteskundeetara begira

**X.G / M.A** | BERGARA

Ibargarai kaleko 15. zenbakian zabaldu du Bergarako EAJk datozen hilabeteetan erabiliko duen lokala. Astean egin dute inaugurazio ekitaldia, eta, bailarako alkate eta zinegotzi jeltzaleez gain, han izan dira Joseba Egibar GBBko presidentea eta Gipuzkoako hautagaiak Kongresurako eta Senaturako.

Espainiako Gorteetarako hauteskundeei eta uda ostean egingo diren hauteskunde autonomikoei begira sor daitezkeen beharretarako alokatu dute lokala, batzokia erre ostean, oraindik ez baitago erabilgarri. Hasiera baten, sei hilabeterako hartu dute hori.

### Elkororen eta Egibarren hitzak

Aretxabaletako alkate Unai Elkorok hartu zuen hitza bailarako alkateen izenean. Agintean bete berri duten urtearen balorazioa egin zuen hark eta herritarrengandik gertu egoteko EAJk duen konpromisoa mantenduko dutela azpimarratu zuen.

Joseba Egibarrek, bestetik, EAJk bailaran izandako gorakada nabarmendu zuen eta Espainiako hauteskundeetan "EAJk herri honen defentsa egin dezan" botoa eskatu zuen.



Debagoieneko EAJko alkateak, zinegotziak eta ordezkariak Bergaran. | X.G.



Erraustegiaren kontra, Donostiako Bulebarrean. | GIPUZKOA ZUTIK

# Gipuzkoa plazara batzeko dei egin du Gipuzkoa Zutik mugimenduak

**MIREN ARREGI** | ARRASATE

Gipuzkoa Zutik mugimenduak asteburuan Gipuzkoa plazako mobilizazioetara batzeko dei egin du; izan ere, gaurtik domekara bitartean, kontzertu, hitzaldi, azoka eta manifestazioak antolatu dituzte.

Igor Tome da erraustegiaren kontrako mobilizazioetan Gipuzkoa plazan astea eman duten oñatiarretako bat: "Erraustegia gelditu gura dugu, baina kontsumo gizarte eredua ere kritikatu gura dugu. Gipuzkoa plaza hartu dugu, baina, hemendik botatzen bagaituzte, beste toki batera joango gara", dio. Izan ere, segurtasun indarrekin tentsio momentu ugari bizi izan dituzte, kanpalekua husten ahalegindu baitira behin baino gehiagotan. Atzo, esaterako, bi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak, han bildutakoek Gipuzkoa plaza uzteari uko egin ziotelako: "Elkartzeko eskubidearen kontra ari dira, ihintzagailuak ere ipini dituzte gauean".

AIHERRA




GOIENA TELEBISTA | DOKUMENTALA | ANTZUOLA SENIDETZEAREN GAINEKO DOKUMENTALA

EKAINAK 8, 22:00

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Kataiden 1.000 m2-ko zentroa prestatuko du Debagoieneko Caritasek urte bukaerarako

Askotariko zerbitzuak emango dira bertan: tailer okupazionala, eskolak eta beste batzuk

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Tailer berria gertu izan nahi du Debagoieneko Caritasek urte bukaeran. Arrasateko Kataide industrialdean egongo da, eta 1.000 m2-ko hedadura duen pabiloian. Bergaran gaur egun dagoen halako tailerra erabiltzeari utziko dio Caritasek. Dena dela, Arrasateko zentro berrian, tailer okupazionalaz gain, beste "zerbitzu ugari" emango ditu Caritasek, langile Xabier Jorrinen esanetan: "Bertan izango dira jangela, baita ematen ditugun formazio saioak ere, eskulanak egiteko lekua..." Zerbitzu horiek guztiak emateko "boluntario asko" behar izango ditu Caritasek eta deialdia egina dago: "Zenbat eta esker oneko jende gehiago etorri, hobe; boluntario guztiak izango dira ongi etorriak", dio Jorrinek.

Iragarpen horrekin batera, 2015eko jardueraren erradiografia eta balorazioa egiten dute Debagoieneko arduradunek. Eta bat dator joan den astean Gipuzkoako 2015eko Memorian jasotzen zenarekin: "Pobreziaren kronifikazio bat eman da; beharrean dauden pertsonen kopuruak bere horretan edo, akaso, zertxobait murriztu da, baina egoera horretan daudenen aterabidea zailagoa da", Jorrinek azaltzen duen moduan.

Profil ohikoena familiena da: asko, guraso bakarreko familiak, emakume atzerritarrak gehienetan, hiru edo lau umerekin; baita bakarrik etorri diren gizonezkoak ere, eta bertako familiak.

**245.000 euro**

Zehazki, iaz 1.248 pertsonari egin zien harrera Debagoieneko Caritasek Bergaran, Antzuolan, Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan; 2014an baino 374 gutxiago. Horietatik 477 bakarrik zeuden, eta 749 familiak ziren. 477 haietatik 433 etorkinak izan ziren, eta 44, nazionalak.

Gipuzkoan 5 milioi inguru banatu ziren laguntzatan; Debagoienean, 245.000 pasatxo, 2014an baino 13.700 euro gehiago. Honako kopuruak eman ziren, laguntza motaren arabera: bizi iraupenerako, 76.855 euro; etxebizitzarako, 64.800 pasatxo; jangelan, 7.545; enplegu eta formazioan 24.100 euro gastatu ziren; garraioan, 4.910; eta beste premia batzuetarako, 78.800 pasatxo.

**XABIER JORRIN** | CARITASEKO LANGILEA

## "Herri bakoitzak bere sena dauka eta dena ez da Arrasaten zentralizatuko"


L.K.

**Caritasera jotzen dutenek aurrera egitea lortzen dute edo laguntzaren mendeko bihurtzen dira?**

Denetarik dago. Zoritxarrez, badaude kasu batzuk, denok ezagutzen ditugunak, non batzuetan egoera kronifikatu egiten den. Badaude ere langabezian geratu direnak, familia arruntak, behar larrian. Batzuk uneko laguntzarekin aurrera atera daitezke. Etorkinek zailagoa dute; ez daukate lan–merkatuan sartzeko trebetasunik, hizkuntza ez dute menderatzen...

**Ze laguntza mota ematen duzue?**

Pertsonaren profilaren arabera, Gehienetan, uneko laguntzaz eta diru laguntzaz gain, saiatzen gara formazioaren bidez bere kabuz bizi izateko trebetasun horiek ematen: gaztelania eta sukaldaritza eskolak, tailer okupazionala... nolabait, gizarteratzen laguntzeko. Izan ere, gure artean bizi ahal izateko beste atal oso garrantzitsu bat da gure bizimodua eta kultura ezagutzea eta ondo txertatzea. Badaude bakarrik bizi direnak, eta horiei ere laguntza ematen diegu: entzutea, eurekin egotea, tramiteak egiten laguntzea... Hori ere oso gustura egiten dugu.

**Aurrerantzean zerbitzu guztiak Arrasaten zentralizatuko dira?**

Guztiak ez, herri bakoitzak bere sena dauka. Lehenengo harrera eta kontaktua herri bakoitzean egiten da. Baina tailerra eta formazioa bai, Arrasaten emango dira. Ahalegin handia egiten ari gara hemen askotariko edukiak dituen zentroa egiteko.

# Goienarekin eta Ekoliorekin hitzarmena egin du KMK-k

**TXOMIN MADINA** | BERGARA

Urriaren 2an egingo den Kilometroak 2016ra begira, lankidetza hitzarmenak sinatu berri dute Goiena Komunikazio Taldeak eta Kilometroak Kultur Elkarteak. Hitzarmen honi esker, bi aldeak elkarlanean arituko dira, hainbat modutara, zabalkundea emateko Kilometroak 2016 dela-eta urtean antolatzen diren ekitaldiei. Aldizkari bat aterako dute batera, publizitatean ere izango du eragina eta Goienako bazkideek zozketa bidez Kilometroetako materiala eskuratu ahalko dute.

Goienarekin bakarrik ez, Ekolio proiektuarekin ere sinatu du hitzarmena Kilometroak Kultur Elkarteak. Kasu honetan, jasangarritasuna eta ingurumenaren zaintza sustatzea dira helburuak.

# Saharako hiru ume etorriko dira bailaran uda pasatzera

**L.K.** | BERGARA

Sahararekiko elkartasun talde Bubisherrek jakinarazi du urte honetan Debagoienean Saharako hiru ume izango direla udako bi hilabeteak pasatzera. Aurten, berezitasuna da Euskadira datozen ume saharar guztiak batera etorriko direla, hegaldi berean; orain arte, bi egunetan banatuta etortzen ziren.

Debagoienera hauek etorriko dira: Husein Salama, 11 urtekoa, Bergarara; Nasruha Mohamed, abuztuan 10 urte egingo dituena, Arrasatera; eta Fatma Hafed, ekainean 11 urte egingo dituena, Oñatira. Husein Asmarako kanpalekuan bizi da, eta Fatma eta Nasruha, Aaiungo kanpalekuan.

# Biurtekoa bukatzeke, jende gehiago igarri dute enpresek

Egun handienak eguenetik zapatura izan arren, hasieratik mugimendu handiagoa sumatu da

**L.K.** | BARAKALDO

Azken urteotako Makina-erremintaren Biurteko garrantzitsuena izango zela iragarri zuten, eta badirudi hori betetzen dabilela. Astelehenean, maiatzak 30, hasi zen BECen sektore horretako Hego Euskal Herriko eta Espainiako azoka nagusia, Debagoieneko dozena bat enpresa inguru ere han zeudela, eta inpresio ona agertu dute: "Astelehenean poliki hasi zen, urtero bezala; baina martitzenean igarri genuen beste urte batzuetan baino jende gehiago zebilela", dio Antzuolako Oerlikon Balzers-eko Nagore Jimenezek.

Fagor Arrasate eta Konikerreko David Chico ere BECen izan da, eta martitzenean honakoa esan zion GOIENAri: "Bigarren eguna izateko, balorazioa positiboa da. Jende gehiago eta makinen eta aurkezpenen inguruko interes handiagoa sumatzen da".



Oerlikon Balzers enpresako taldea, biurtekoan. | NAGORE JIMENEZ

Soraluceko zuzendari komertzial Eleazar Rayak honako hau esan zuen eguaztenean: "Oraingoz, balorazioa ona da. Lan-karga handia eta aurreikuspen onak dituzten bezeroek bisitatu gaitzte. Soraluce FMT multitask zentroa aurkeztu du Soralucek, DAS sistema berritzailearekin hornitua".


# BIXENTE ATXA



GOIENA TELEBISTA | HARIRA | ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIEKIN ELKARRIZKETAK,
BIXENTE ATXA, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

EKAINAK 7, 22:00 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

EGIN GALDERA: **Whatsapp**: 688 69 00 07 | **Posta elektronikoa**: berriak@goiena.eus | **Goiena app**: Galdera bidali

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## ZABALIK



**ARITZ ARRIETA**
goiena.eus/komunitatea/

# Erabaki polemikoa, nonbait?

Gaur egun estatu mailan dagoen polemika sabel alokairuaren legeztapena da. Badirudi zenbait alderdi politikok beraien hauteskunde programako zirriborroan sabel legeztapenaren legea zeramatzatela eta azkenengo momentuan atzera egin omen dutela; zergatik?

Ematen du gai polemikoa dela, eta hauteskunde garaietan gai polemikoak eztabaidatik kanpo geratzen omen dira; hau da, ez direla askorik arriskatzen lege berri aurrerakoiak publikoki defendatzen.

Kasu honetan, erreferentzia edo eredua Ameriketako Estatu Batuak dira; izan ere, hango estatu batzuetan, orain dela 20 urte legeztatu zuten, eta kontua da bikote askok eta askok, gutxienez, 160.000 euro ordaindu behar izaten dituztela tramite guztiak aurrera eraman ahal izateko.

**Zein da, ba, arazoa hemen legea aurrera ez ateratzeko?**

Badirudi segurtasun juridikorik handiena han dagoela, Ameriketako Estatu Batuetan, hain zuzen ere, baina Ukrainan, Mexikon, Kanbodian, Errusian… ere badago sabel alokairua egiterik.

Zein da, ba, arazoa hemen legea aurrera ez ateratzeko? Zer dira, arazo etikoak, juridikoak...?

Ondo pentsatzeko zerbait dela badakit, baina kontu honi noiz heldu behar diogu adarretatik?

Bikote ugari dago legearen zain; bitartean, hauen itxaropena arrazoi ekonomiko bilakatzen da.

Beraz, pentsatzekoa da ez dela gai txikia, eta honi erantzun azkarra eman behar zaiola.

Badaukagu eredu legislatiboa eta badauzkagu medioak legea aurrera atera ahal izateko.

Goazen, ba, beldurrak, polemikak eta etika kontu merkeak alde batera uztera eta apustu egin dezagun legea aurrera ateratzeko, zirriborroak zirriborro bilakatzen baitira.

## USTEAK USTE

**OIHANA ELORTZA** | oelorza@goiena.eus

# Gutxi inporta

Txirrindularitzaren inguruko hitzaldi bat, Bergaran, bertan behera gelditu zen jenderik joan ez zelako. Kultura taldeekin Denis Itxasok deitutako hitzordu bat ere suspenditu egin zen duela egun gutxi, eragile bakarra joan zelako. Aurreko astean, Athleticeko futboleko nesken taldearen prentsaurrekoa ez zen egin, hedabideak joan ez zirelako. Interes faltagatik edo zabalkunde nahikorik ez egiteagatik jende gutxi joatea gerta daiteke, baina kosta egiten zait sinistea futbolak ez duela interesik hedabideendako. Nesken taldearen gainekoa zen, eta hori, akaso, nahikoa arrazoi da askorendako interesa kentzeko. Sare sozialen bidez eman eta zabaldu da informazioa.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Ez derrigorrez

**Aritz Galarraga**
http://goo.gl/a1mShl

*Selfie* bat, zer kontatuko dizuet zuei, argazki kamerari buelta eman, besoa aski luzatu eta geure buruari ateratzen diogun erretratua da, dela bakarrik, dela lagunduta, dela giza-burmuinak imajina dezakeen gauzarik estrainioena egiten ari garela. Baina, are, erretratuaren historiaren kapitulurik modernoena ere bada, modako zerbait izatetik urrun, argazki genero gisa finkatu dena. Gizarte handiustetsu eta egozentriko baten adierazpena dela? Joan Fontcuberta argazkilariak esango dizu derrigorrez ezetz. Internetek narzisismoaren bozgorailu gisa funtzionatzen duen arren, ni-aren baieztapenak eta banitateak humanitatearen historia guztia ibili duela. Kontxo, hori guztiori oso ondo ulertu du ETBk, gizartearen abangoardian beti, eta garaiari ezin hobeki egokitutako programa bat eskaini digu: *Hi Selfie!*

Zertan den programa ezin garaikideago hori: aurkezleak *selfie* batzuk bidaltzen dizkie lehiakideei, eta lehiakideek bueltan argazki ahalik eta berdinena itzuli behar diote aurkezleari. [...] Probarik garrantzitsuena uzten dute bukaerarako. Aurkezleak berak, Julian Iantzik azaltzen digu: "Ni topatu eta nirekin *selfie* bat ateratzea". Programa txarra bada, berez, halako gauzek egiten dute jasangaitza. Julian Iantzi, ez zait inor hoberik bururatzen *selfie* bat bestearen atzetik ateratzea helburu bakar duen saio batentzat: "Aitortuko dut, nik oso gustuko ditut; eta esan didatenez nahiko ondo ateratzen naiz". Gizarte handiustetsu eta egozentriko baten adierazpena dela *selfie*-a? Fontcuberta argazkilariak esango dizu derrigorrez ezetz. Derrigorrez. Baina argi dago, kasu batzuetan badela. Segun eta kamera noren eskuetan erortzen den.

Hondar galdera bat daukat: jendeak zergatik parte hartzen du halako lehiaketa batean? Hantukeria eta egozentrismoa aparkatuta, 1.000 eurokoa da saria, hiru lagunen artean banatzeko —eta zergak kendu aurretik, noski—. Ez dut uste giza duintasunak hain gutxi balio duenik. Auskalo, Fontcuberta jauna: handienak ere nahasten dira tarteka.

# Balio balio

**Anjel Lertxundi**
http://goo.gl/I35xk8

Juana Bixentaren nagusi jaun berorrexek ere baldin balio balio demokratikotzat jo behar dela zortzi hilabeteren bueltan hiru hauteskundetara deitzea, utikan berorri. Susunkordak berak ere baldin balio balio zibilen barruan kabitzen dela beste inori barkatzen ez zaizkion gezur-mendi eta irain-metak agintariei barkatzea, popatik susunkordari. Putetxeko madreak ere baldin balio balio demokratikoen zakuan sartzen dela herritarrei trufa egitea, tarari madreari. Monsieur du Lanpernierrek berak ere baldin balio balio santu konstituzionala dela ideiak eta iritziak bezatzea, mozala mozoloari! Kandelen kea gainetik kendu arteraino belztzat geneukan Santokristo Lezokoak berak ere baldin balio balio tradizionalen kapituluan sartzen dela Elizaren eta Estatuaren arteko zilborrestea oraindik ez eten izana, kandelen kea eta brea Santokristori!

Ai, ozpin txar horrek guztiak Zakilixuti balio balio txortan egiteko sikiera gaurko biñetan!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza




goieskola
debagoieneko euskal
eskola publikoa

Aramaio S. Martin HE
Arrasate Herri Eskola
Arrasate BHI
Arrasate HHI-EPA
Eskoriatza Luis Ezeiza HE
Aretxabaleta Kurtzebarri HE
Aretxabaleta Kurtzebarri BHI

Antzuola Herri Eskola
Elgeta Herri Eskola
Bergara San Martin Agirre HE
Bergara Ipintza BHI
Bergara HHI- EPA
Oñati Errekalde HE
Oñati Zuazola-Larraña BHI

GUTUNAK

## Iturbide egoitzako langileei

**Amaia eta Garbiñe Arana**
(Teresa Ezpeletaren familiaren izenean)
Arrasate

Esker oneko hitzak bakarrik datozkigu burura zuetaz gogoratzean. Zuen profesionaltasuna egunero argi uzteaz gain, pertsona moduan balio duzuena agerian geratu da behar izan dugun denetan. Zuen laguntza eta babesa ezinbestekoak izan dira ia bi urte hauetan aurrera egiteko.

Eskerrik asko lehenengo egunetik etxean bezala sentiarazteagatik, bizitako momentu on eta zailetan gurekin egoteagatik eta batez ere, gure amama Teresa maitatu eta zaindu duzuen moduagatik.

Adeitasunez.

## Arrasateko epaitegiaren kontrako ekintzaz

**Mikel Olabezabala**
(Arrasateko zenbait militanteren izenean)
Arrasate

Komunikatu labur honen bitartez, maiatzaren 30ean Arrasateko Epaitegiaren aurka pintura gorriz betetako botilekin egindako ekintza azaldu nahi dugu.

Ekintza hori 25 euskal preso politikok espainiar eta frantziar *justizia* sistemaren baitan gaur egun jasan behar duten bakartze edo isolamendu egoera salatzeko egin dugu.

Hori erraz ulertzeko, kazetariak bertaratu direnerako zoritxarrez ezabatuta zegoen margoketa bat egin genuen: *25 preso bakartuta; isolamendurik ez.*

Ehunka edo milaka izan dira errepresioaren ondorioz isolamenduan jarri dituzten euskal presoak, batzuetan hainbat eta hainbat urtetarako, euren izaera militante eta politikoa nahiz euren konpromisoa apurtzeko asmoz edo, besterik gabe, espetxe barruan aldarrikapen bat egin izanagatik zigortzeko asmoz, Itziar Morenoren kasuan gertatu den bezala.

Bakartzea euskal presoen aurka sistematikoki erabiltzea erabaki politiko hutsa da, tortura luze eta gogorra, presoaren egoera fisiko eta mentalarentzat oso kaltegarria. Izan ere, isolamenduak presoa ziegan bakarrik mantentzen du egunean 22 orduz edo batzuetan 24 ordu jarraian baino gehiago, beste presoekiko harremanik gabe eta funtzionarioen zaintza etengabearekin. Presoen erbesteratzeak, isolamenduak, espetxe barruko sakabanaketak, senideek egin beharreko bidaia luzeak eta izandako istripu eta hildakoak, eraildako preso politikoak... Aski da! Espainiako Estatuak eskuak odolez zikinduta dauzka!

Egoera latz honek salaketa gogorra eta berehalako gizarteratzea eskatzen du, eta, horretarako, ezohiko bideak erabiltzea exijitzen digu. Soilik borrokarekin lor daiteke etsaiak ezarritako blokeo informatiboa eta bake faltsua astintzea.

## Atzeko kaleko obrak

**Olatz Arizti**
(San Miguel Kooperatibako 13 langileren izenean)
Oñati

Alkate jauna:

Badirudi zure izena *enpresa handi bat* ez bada, ez daukazula *ezer* egiterik. Enpresa txikiei ematen diezuen laguntzaz harro sentitzen zaretelakoan, zuen laguntza hau baldin bada, nahiago genuke zuen laguntzarik *inoiz ez* izan.

Dirudienez, ez duzue ulertu nahi.

35.000€euroko inbertsioa egin berri dugu hozkailu eta izozkailu berrietan, hilero eta puntual ordaindu behar ditugunak. 13 pertsonaz osatutako plantilla dugu. Eta zuek trabak besterik ez diguzue jartzen.

Ulertzen dugu egoera berezian gaudela eta egoera honek *denen* partaidetza eta esfortzua eskatzen duela. Baina beti gu gara, *enpresa txikiak,* kaltetuta ateratzen garenak. Bezeroei sarrera itxi eta etxez etxeko banaketan trabak jartzen dizkiguzue.

Zer etorriko da hurren?

Kooperatibaren itxiera?

Azkeneko urteetan, gogor ekin dugu gure lekua lortu eta mantentzeko, BMren, Eroskiren eta DIAren instalazioaren ostean. Gainera, ahal dugun moduan, krisia jasan dugu. Eta orain badirudi aurkako faktore horiek guztiek lortu ez dutena Udalak eta Bilduk lortuko dutela.

## Erabakitzeko eskubidearen alde

**Ainhoa Galdos Olazar eta Josu Lizarralde Aiastui**
(Oñatiko Udaleko zinegotzi ohiak)
Oñati

Ekainaren 5ean, Oñatin demokrazian sakontzeko ariketa herritarra burutuko da, demokraziaren agerpen gorena den erabakitzeko eskubidea gauzatuz.

Gutun honen sinatzaileok behin baino gehiagotan adierazi dugu erabakitzeko eskubidea babesteko dugun konpromiso irmoa, eta oraingoan ere erabateko babesa eskaintzen diogu ekimen horri, herritarren parte hartzeko eskubidea ez baita proiektu politiko bat, printzipio demokratiko bat baizik. Herritarren parte hartzeak indartu eta batu egiten du gizarte demokratikoa.

Erabakitzeko eskubide demokratikoak duen babes herritar zabala kontuan izanda, ekainaren 5ean Oñatin erabakitzeko eskubidearen gauzatze praktikoa babestu behar dugulakoan gaude; demokrazian, hau da, herritarrengan sinesten dugulako.

Hori horrela, ondorengoa adierazi nahi dugu:

1. Euskal Herriko herritarrei etorkizunaz erabakitzeko, kontsultatuak izateko eta libre eta demokratikoki adierazten duten borondatea errespetatua izateko dagokien eskubidea eta gaitasuna babesten dugu.

2. Demokrazia herritarron erabakia dela, eta, beraz, erabakitzeko eskubidea gauzatzea demokraziaren agerpen gorena dela aldarrikatzen dugu. Horrexegatik, erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenetik gauzatzera igarotzeko ekimenak balorean jarri eta babestu behar direla adierazten dugu.

3. Ekainaren 5ean Oñatin herri-ekimenez burutuko den erabakitzeko eskubidearen gauzatze praktikoa babesten dugu; eta herritarrei parte hartzeko deia luzatzen diogu.

## Noizko berdintasun teknikaria Bergarako Udalean?

**Itziar Usandizaga eta Ainhoa Narbaiza**
(Martxanterak! talde feministaren izenean)
Bergara

Egin dezagun hilabete batzuk atzera: 2015eko urriaren 2a, Bergaran. Emakumeen Mundu Martxa. Karabana feminista iazko urrian pasatu zen Bergaratik, eta pozarren hartu genuen herritar askok; zenbat emakume ezagutu eta elkartu garen ordutik! Bertan, haziak erein genituen eta uzta kalean jasotzen ari gara, belaunaldiak, kezkak, abiapuntuak eta esperientziak josiz. Ahal dugun heinean, konpromisoak hartuz.

Udalaren partetik, ordea, ez dugu jaso espero genuen erantzuna eta konpromisoa: pasa den astean, kasualitatez, mikroa heldu zitzaigun, eta aspaldian bueltaka darabilgun kezkari heldu genion, galdera zuzena bidaliz telebistara: *Noizko berdintasun teknikaria Bergaran?* Erantzunik ez.

Mindu egin gaitu alkate andreak Goiena telebistako *Harira* saioan Martxanterek egindako galdera ignoratu izana eta erantzun gabe utzi izana.

Kezka honi heltzeko, beste bide batzuk erabili ditugun arren, zain jarraitzen dugu, eta beharra geroz eta argiago ikusten dugu.

Herri eragile feministak indartsu edukitzea bezain besteko garrantzitsua iruditzen zaigu berdintasunaren gaian arituak eta adituak diren teknikaria(k) herritarren zerbitzura izatea, baita edozein herritarrek gai hauen inguruko informazioa eskura izatea. Zertarako? Ahalduntzeari begirako etengabeko formazioa izateko, udalak alor honetan eskaintzen dituen zerbitzuen informazio argia izateko –arreta zerbitzuen ingurukoa, adibidez–, erasoen aurkako protokolo aktibo bat martxan jartzeko...

Udalarekin harremanetan egon gara hilabete hauetan, hainbat gairi elkarlanean heldu diogu, baina ez da nahikoa.

Berriz diogu, zergatik ez daukagu berdintasun sail eta teknikari bat gure herrian?

Ez al du Udalak beharrezkotzat ikusten?

Martxanterak gogotsu gabiltza, Bergara parekideago baten alde lanean, feminismotik herritarrak saretzen.

Gure kezkari helduko diozuelakoan.

Erantzunaren esperoan, lanean jarraituko dugu!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00



gamarra
ostalaritza eskola
Oinarrizko lanbide heziketa:
• Sukaldaritza eta jatetxe arloa
Erdi mailako zikloak:
• Sukaldaritza eta gastronomia
• Jatetxe arloko zerbitzuak
• Okingintza, gozogintza eta konfiteria
Goi mailako zikloak:
• Sukalde-zuzendaritza
Eskaintza partziala:
• Okingintza, gozogintza eta konfiteria zikloan
Aurrematrikula: ekainaren 6tik 17ra
Presagana kalea 1 behea, 01013 Gasteiz
Tel.: 945 25 80 25
gamarra@gamarraeskola.com | www.hosteleriagamarra.com

FAGOR

# Batzar Nagusia 2016







## Zazpi kooperatiba bat eginik Debagoienaren garapen ekonomikoaren eta sozialaren konpromisoari erantzuten



## DATU ADIERAZGARRIAK

| | Aurreko urtearekiko |
|---|---|
| ***Salmentak:*** 1.425 milioi € | ▲ %6,32 |
| ***Langileak*** | |
| Euskal Herrian: 5.261 | - 42 |
| Kanpoan: 3.907 | + 170 |
| ***Emaitzak:*** 51 milioi € | ▲ %64,70 |
| ***Inbertsioak:*** 66 milioi € | ▲ %15,16 |
| ***Bazkideak:*** 5.468 | + 358 |

Debagoienak duen enplegu beharrari erantzuteak jarraitzen du izaten Fagor Taldearen premia sozial nagusia.

Urteetako elkartasun eta elkarlanen filosofiari eutsiz, langabezia estrukturalean dauden ehunka bazkidek Taldeko kooperatibetan dihardute lanean. Aldi berean, gure kooperatibak bazkideak behin betiko kontsolidatzen ari dira; betiere, lanpostu estrukturalak betetzeko formazioa eta jarrera egokiak dituzten pertsonak bazkide eginez.

Azken urteotan Taldeko kooperatiben produkzio egitura aldatzen ari da, eta gaur egun kontsolidazio prozesu zabalago eta azkarragoak egiteko oztopo nagusia langabezian dauden bazkideek formazio egokia ez izatea da. Formazioak gero eta garrantzi handiagoa du eta eskulan hutsa eskatzen duten lanpostuak gutxitzen doaz.

Dagoeneko Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibako 160 bazkide ohi dira goi mailako zikloak lortzeko ikasketa desberdinak egiten ari direnak. Zalantzarik gabe, norabide egokian eginiko apustu inportantea.

### Fagor Taldean birkokapenak

| *behin betikoak:* | *behin behinekoak:* |
|---|---|
| **177** | **403** |

(2015.12.31ko datuak)

# HERRIAK

ARRASATE


Trena Arrasate igarotzen, Espainiako gerra aurretik. | AZE

# Vasco-Navarro trenaren historia, erakusketara

- 50 urteko historian Debagoienean jazotakoak batu ditu AZEk
- Argazkiak, bideoak, maketa-eta ikusi ahal izango dira Kulturaten

**MIREN ARREGI** | ARRASATE

1967ko abenduaren 31n egin zuen Vasco-Navarro trenak azken bidaia, Debagoienean 50 urtez gora eta behera ibili ondoren. Ordukoak gogora ekarriko ditu Arrasate Zientzia Elkarteak, datorren egubakoitzean zabaldu eta ekain osoan ikusgai egongo den erakusketaren bitartez. *Arrasate-Mondragon Vasco-Navarro Trena* izeneko erakusketa zabalduko da, Kulturateko klaustroan, ekainaren 10ean.

Ez du lan makala izan taldeak erakusketa osatzeko materiala bilatzen: "Oso argazki gutxi dago", dio AZEko kide Jabier Bengoak. Guztira, 110 argazki, egunkari -zatiak, bideoak eta geltokietako 20 maketa batu dituzte erakusketarako. Hori bakarrik ez, dokumentuak, 3 dimentsiotan egindako Arrasateko geltokia eta Mondragon lokomotora eta puntuz egindako lokomotora baten koadroa ere egongo baitira erakusgai.

**Bereziki, argazkiak**

Argazkiek hartuko dute erakusketaren zati handiena. Trenbidea eraikitzeko lanak, trena bera, geltokiak... Arrasateko argazkiak gutxi izanik, erakusketa trenak Debagoienean egiten zuen ibilbidean oinarrituko da. Alegia, Gatzagatik Mekolalderako tartean, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Mekolaldeko argazkiak ikusi ahalko dira bereziki. Horietako batzuk dira Arrasate Zientzia Elkarteko bildumakoak eta beste batzuk Gasteizko Udal


1919. Inaugurazioa Arrasaten. | ARRASATEKO UDAL ARTXIBOA


Arrasateko tren geltokia. | ARETXABALETA TALDEA


Tren geltokia eskolatik ikusita. | A.E.


Primo de Rivera Arrasaten, 1925. urtean. Atzean Mondragon lokomotora | AZE


1942ko ur handien ondorioak. | AZE


Trenbidea eta zerrajera eraikitzen, 1945ean. | AZE

## 'Arrasate 1945 Ametsaren etorkizuna'

1940ko hamarkadako Arrasate ekarri zuen iaz Arrasate Zientzia Elkarteak erakusketara eta ekainaren 10ean —trenaren gaineko erakusketa inauguratzearekin batera— aurkeztuko dute horrekin egindako liburua. 199 orriko liburua da, 1940ko hamarkadako 270 argazkiz osatua: 107 argazkitan herritarrak azaltzen dira, 76tan paisaiak eta 40 komertzioren gaineko erreferentziak ere badira. Garaiko komertzioen iragarkiek hartzen dute, bestetik, liburuaren zati handi bat.

Alberto Loiti arrasatearraren ikerketa batetik abiatu zen iaz gauzatu zen *Arrasate 1945 Ametsaren Etorkizuna* liburua. Orain, liburua kaleratuko da.

Artxibotik eta Sancho el Sabio fundaziotik hartuak. Pertsonak azaltzen diren argazkiak gutxi dira. Bospasei, Bengoaren esanetan. Tartean dago azken makinista azaltzen den argazki bat edo Arrasateko bikote ezkon berri batek ezkon bidaiara trenean egin zuen bidaiako argazki bi.

Lehen esan moduan, erakusketa osatuko dute dokumentuek ere. "Esaterako, badago 1968ko akta bat", dio Bengoak: " 1967an trena kendu zenean, bailarako udalek bat egin zuten ministroari trena kendu ez zezaten eskatzeko. Ez zuten ezer lortu, noski, baina horren gaineko akta bat badago eta erakusketan ipiniko dugu", gaineratu du. Dokumentu gehiago ere badira; tartean, trena egin aurretik egindako proiektuen gainekoak.

**Bideoak ere bai**

Irudiei dagokienez ere ez dira garai hartako eta trenarekin lotutako asko, baina horietako bat ikusgai egongo da. "Julian Elejoste bilbotarrak trenaren azken bidaiak grabatu zituen eta guk 12 minutuko zati bat berreskuratu dugu", dio Bengoak. 8 milimetrotan grabatutako bideoa da eta Marin eta Zarimutz tartean hartutako irudi ederrek osatzen dute bideoa, besteak beste.

Hori bakarrik ez, Goienak 2008an, trena itxi zenetik 40 urte pasatu zirela ekoitzitako bideo baten zatia ere egongo baita ikusgai.

**Geltokien maketak ere bai**

Esandako guztia gutxi ez, eta Kulturateko klaustroko erakusketa osatuko dute Maeztuko Julio Martinez de Hidalgak egindako 20 geltokitako maketek. Lizarran hasi eta Gasteizera arteko geltokien maketak dira ikusgai egongo direnak. Tartean daude, Lizarrakoa, "oso ikusgarria hori", edota Maeztukoa. "Hori ere polita oso", gaineratu du Bengoak.

**Ezbeharrak ere bai**

Bi istripu ekarri ditu gogora AZEk trenaren garaiaz galdetuta. Lehena, 1941ean izan zen. Maringo tunelean trenak harrapatu zituen Pedro eta Jesus Uribe Barrena anaiak. Arabatik estraperloan garia ekartzen ari zirela deskantsatzen gelditu ziren Maringo tunelean. Lo hartu eta trenak harrapatu zituen. 1961eko azaroaren 12an, bestetik, trena errailetik irten eta ondorioz hiru lagun hil eta sei zauritu ziren.

**Inaugurazioa**

Erakusketa ekainaren 10ean, egubakoitza, zabalduko da. 18:00retan Kulturateko Loramendi gelan emango dute azalpen bat. Besteak beste, Javier Suso eta Juanjo Olaizola izango dira aurkezpenean, biak ere historialariak eta Vasco-Navarro trenaren gainean adituak. Erakusketa ikusgai egongo da, hilabete osoan, astelehenetik zapatura, 17:30etik 20:30era.

### TRENA URTEZ URTE

**1882:** Urte hartan egin zituen lehen urratsak Herran anaien egitasmoak.

**1916:** Urriaren 4an trena Eskoriatzara iritsi zen.

**1918:** Otsailaren 15ean trena Arrasatera iritsi zen.

**1919:** Irailaren 3an egin zen inaugurazioa Bergaran. Ondoren Arrasaten egin zen bazkaria.

**1923:** Elorregitik Oñatirako adarra inauguratu zen Erregina Victoria Eugenia Battenbergekoaren presentziarekin.

**1919:** Irailaren 8an, Gasteiz - Lizarra zatia eraikitzeko lanak hasi ziren.

**1920:** Trenak 204.800 pertsona garraiatu zituen urte hartan. Merkantziari dagokionez, 90.800 tona garraiatu zituen.

**1927:** Irailaren 23an, Gobernuko presidente Migel Primo de Riverak inauguratu zuen Gasteiz - Lizarra zatia.

**1938:** Otsailaren 20an bukatu zuten Mekolaldeko geltokira arteko elektrifikazioa.

**1932:** Trenak 325.600 pertsona garraiatu zituen. Merkantziari dagokionez, 179.000 tona garraiatu zituen.

**1967:** Abenduaren 31n egin zuen azken bidaia Vasco - Navarro trenak.



Arrasateko Udalak eskuratu berri duen Aprendices eraikina. | XABI GOROSTIDI

# Aprendices eraikina Arrasateko Udalaren jabetzakoa izango da

## SPRI erakundeak Zalduspeko industrialdeko partzelaren %35 jasoko du trukean

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Arrasateko Udalak akordioa egin du SPRI erakundearekin Aprendices eraikinaren jabetza lortzeko. Legealdia hasi zenetik aritu dira akordioa itxi nahian, eta asteleheneko Hirigintza batzordean eman zieten akordioaren berri gainontzeko alderdi politikoei. Hitzarmena oraindik sinatu gabe dago, baina akordioa erabatekoa da bi aldeen artean.

**Trukea helburu**

SPRIrekin truke bat egitea izan da Udalaren asmoa; horrela, Aprendices erosten erabiltzen ez den dirua eraikina birgaitzera bideratzeko. Udalak aurreikusi du 4.500.000 eta 5.500.000 euro arteko aurrekontua izango dela atontze lanetarako.

Urtebete baino gehiago iraun dute akordioa lortzeko negoziaketek. Lehenik eta behin, SPRIk kanpo tasazio bat egin zuen eraikinak gaur egun daukan merkatu balioa zein den definitzeko, eta 1.208.115 euroko balioa zuela adostu zuten. Ondoren, SPRIrentzat interesgarriak ziren udal jabetzak baloratzen aritu ziren, eta hori izan da negoziaketaren faserik korapilatsuena. Hainbat proposamen egin ostean, erabaki zuten Zalduspeko industrialdea baliatzea trukerako; %88 Udalaren jabetzakoa zenez, haren %35en truke onartu du SPRIk Aprendices eraikina Udalari ematea. Baldintza batzuk ere jarri dituzte: Udalak bere gain hartu beharko ditu Zalduspeko partzelaren urbanizazio lanak, eta hauek zortzi urteko epean egiteko konpromisoa hartu du. Horretaz gain, Aprendices eraikina %100ean erabilera publikora bideratzea izan da beste baldintzetako bat.

**Kulturola proiektua**

Aprendices eraikina klabea da Udalaren Kulturola proiektuaren barruan; Zerrajerako *erlojuaren eraikina*-rekin batera kulturgune indartsu bat sortzea helburu duen proiektua da.

Aurreko legealdiaren amaieran, Zerrajerako *erlojuaren eraikina* Udalaren jabegokoa zela ezarri zen sententzia bitartez. Hala, Aprendicesen jabetza lortzea Udalaren lehentasunetako bat izan da, Kulturola proiektua gauzatu ahal izateko. Eraikina bere horretan mantentzeko asmoa du Udalak, eta bertan kokatuko ditu Arrasate Musikal eta ballet eta Goikobalu taldeen egoitza berriak. "Eraikina mantendu nahi izan dugu, balio sinboliko eta sentimentala daukalako", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

**Hamabi enpresa**

Jada hamabi enpresa aurkeztu dira eraikina birgaitzeko proiekturako. Akustikak berebiziko garrantzia izango duenez, musika aretoak egiten esperientzia duten enpresei mugatu diete parte hartzea.

Behin lanak esleituta, sei hilabete eta erdi izango ditu enpresak proiektu definitiboa aurkeztu ahal izateko.

txatxilipurdi

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2016ko ekainaren 16an.
**Tokia:** Kulturateko Areto Nagusian .
**Ordua:** 17:30ean, lehenengo deialdian eta 18:00etan, bigarren deialdian.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2015eko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
2. 2015eko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta, hala badagokio, onarpena.
3. 2016ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
4. 2016ko egitasmoak eta aurrekontua, eta hala badagokio, onarpena.
5. Zuzenbide Batzordearen berritzea.
6. Galdera eta erreguak.

*BBatzar Nagusirako dokumentazioa Txatxilipurdiko egoitzan egongo da bazkideen eskura. Nahi duenari, etxera bidali diezaiokegu dokumentazio hori.*

Nerea Zenigaonandia Muruamendiaraz
Txatxilipurdi Elkarteko Lehendakaria
Arrasate, 2016ko maiatzaren 30ean.

aed arrasate euskaldun dezagun

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2016ko ekainaren 16an.
**Tokia:** Kulturateko Areto Nagusian.
**Ordua:** 17:30ean, lehengo deialdian eta 18:00etan, bigarrenean.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2015eko Batzar Nagusiko aktaren onarpena, hala badagokio.
2. 2015eko jarduera eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
3. 2016ko bazkide ekarpenaren zenbatekoari buruzko proposamena.
4. 2016ko egitasmo eta aurrekontuaren azalpena eta onarpena, hala badagokio.
5. Zuzendaritza Batzordearen berriztapena.
6. Galdera eta erreguak.

*Batzarrean onartu behar diren dokumentu guztiak aldez aurretik elkartearen egoitzan eskuragarri izango dituzue.*

Eñaut Muxika Olasagasti
Lehendakaria
Arrasaten, 2016ko maiatzaren 30ean.

ekin euskara, emakumeak eta aniztasuna

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2016ko ekainaren 16an.
**Tokia:** Kulturateko Areto Nagusian.
**Ordua:** 17:30ean, lehenengo deialdia eta 18:00etan, bigarrena.

**GAI ZERRENDA**

1. 2015eko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
2. 2015eko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
3. 2016ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
4. 2016ko egitasmoa eta aurrekontuaren onarpena, hala badagokio.
5. Zuzendaritza Batzordearen berritzea.
6. Galdera eta erreguak.

*Batzarrean onartu behar diren dokumentu guztiak aldez aurretik elkartearen egoitzan eskuragarri izango dituzue.*

Lorea Ercilla Okina
Lehendakaria
Arrasaten, 2016ko maiatzaren 30ean.

NIRE USTEZ



ITSASO ERRETOLATZA

## Galdeketa historiarako

Mundu honetara biluzik, esku hutsik heltzen gara. Denok berdin. Eta hil ere halaxe egingo dugu, esku hutsik. Tartean, munduak utzi edo mailegatu digunarekin bizi gara, nahiz eta oihal dotore edo zarpailetan bildu. Nire koinatak dioen modura, denok ditugu zuloak leku berean. Hala, bizitzan gure aurrekoen arrastoa jaso dugun legez, hurrengoei utziko diegu geurea, odolean, ala geneetan… Ala historian.

Horregatik, suposatu gura dut historia eginez joan nahiko genukeela denok. Hurrengoei bizitza hobea eta luzarora iraungiko ez dena utziz, bederen.

Bizitzaren zozketan, esklabotasunean zein erlijioaren aterpean, zein matxismoarekin, zein gerran ala gosetean bizitzea tokatzen da. Gerra galtzen duenak, irabazlearen menpekotasuneko historia hasten du, eta garaileak, pertsona gehien hiltzearen garaikurra darama bizkarrean. Hau da, historia hiltzaile handienak idatzi ohi izan du.

Baina ez beti, sufragistek ala ekologistek… ere egin izan dutelako. Gerra egin gabe, galdeketa eta elkarrizketa bidez, ados jartzeko bidean, gure eskubideak erabili nahian galdera egingo da igandean. Zer gura dugun erantzuteko parada daukagu.

Zoriontsua izateko baldintza libre sentitzea baita, zugan eragiten duen horretan zuk erabakitzea. Eta emaitza baino handiagoa dena, eskubide baten aplikazioa da historia egingo duena. Bejondeigula!

**"Libre sentitzea da, zugan eragiten duen horretan zuk erabakitzea"**

# Ekainaren 20an irekiko dira kanpoko igerilekuak

### Udako kanpaina irailaren 16an amaituko da; ekainaren 15a baino lehen abonatuz gero saria eskura daiteke

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ekainaren 20tik irailaren 16ra egongo dira zabalik Musakolako kanpoko igerilekuak. Ekainaren 20tik 23ra eta irailaren 12tik 16ra barrukoak goizez egongo dira zabalik eta kanpokoak, berriz, arratsaldez –14:00etatik aurrera–. Udako denboraldian kanpoko igerilekuen ordutegia izango da 10:00etatik 20:30era.

Udaleko Kirol Zerbitzua buru-belarri ari da lanean hilaren 20rako dena prest egon dadin. Izan ere, iaz arazoak izan zituzten igerileku txikiko eta ertaineko zoruarekin; zenbait erabiltzailek zauri txikiak egin zituzten hanketan zoruan solte geratzen ziren piezen eraginez. Horregatik, bi igerileku horietako zoruak erabat aldatu zituzten iaz; igerileku handiko zorua ez dute aldatu, oraingoz, baina urtero atontze lanak egiten dituzte bertan.



Igerileku txikia eta ertaina jendez gainezka, artxiboko irudi baten. | J.B.

**Udako zein hileko abonuak**

Uda denboraldian ping-pong mahaiak, tobogangak eta jakiak zein edariak erosteko txosna egongo dira kanpoko igerilekuen eremuan eta ikastaroak ere eskainiko dituzte: besteak beste, patinajea, tenisa, spinninga, fitnessa, yoga, *zumba* eta *nordic walking* jarduerak antolatu dituzte, bereziki gazteei begira. Uda osorako abonua egin daiteke, baina baita hilabete baterako abonua ere –kasu horietan matrikula ordaindu beharko da–. Prezio zehatzak jakiteko edota argibide gehiagorako: 943 77 16 77.



Atontze lanak igerileku handian. | UDALA

**Sariek, abentura kutsua**

Aurtengo nobedadea da ekainaren 15a baino lehen abonatzen direnen artean zazpi sari zozketatuko dituztela: Arabako Inguru abentura, Otxandioko Hontza Extrem eta Antzuolako Gailur Zaldiketan eta Ur Urdaibai enpresekin adostu dituzte sariak. Hainbat ekintza interesgarri egiteko aukera izango dute doan: arroila jaitsiera, zubi saltoa, espeleologia, ibilaldia kanoan....

## Domekan botoa emateko gonbidapena



JOKIN BEREZIARTUA

EAJ, EH Bildu eta Baleike (Arrasateko Podemos) udal taldeetako zinegotziek talde argazkia atera dute asteon, herritarrak domekako herri galdeketan parte hartzera animatzeko: "Garrantzitsua da botoa ematea".

## Ideia lehiaketa Biteri eta Itxaropena plazei begira

J.B. | ARRASATE

Udalak Biteri plaza eta Itxaropena plaza biziberritu gura ditu, "herritarren beharretan eta nahietan" oinarrituta. Bada, bi parke horiek hobetzeko asmoz, ideia lehiaketa bat jarri dute martxan. Deialdia irekia da erabat, eta asmoa da arrasatearrek landu eta aurkeztutako "ideia berritzaile eta freskoak" jasotzea: "Modu honetara, herritarren benetako behar eta nahiak zeintzuk diren ezagutuko ditugu. Herritar guztiak animatzen ditugu parte hartzera, arrasatearrak eta bereziki parkeen erabiltzaileak dira hobekuntza proposamenak aurkezteko pertsona aproposenak", adierazi dute.

**Sei sari**

Epea eguaztenean ireki zen eta uztailaren 8ra arte aurkeztu ahal izango dira proposamenak, BAZen. Sei sari egongo dira, hiru sari 14 urtetik beherakoentzat –Inguru parkera bi sarrera, Ontza Extrem-era beste bi eta Gailur Zaldiketarako beste bi– eta beste hiru 14 urtetik gorakoentzat –250 euroko diru-saria, kiroldegiko urtebeteko plus abonua eta kultura-bonua–.

Lehiaketako irabazleak epaimahai batek aukeratuko ditu: teknikariek, zinegotziek, Arrasate Herri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako ordezkariek eta zozketa bidez aukeratutako zenbait herritarrek osatuko dute epaimahai hori.

## Udalak eta Ibai-Artek lankidetzarako akordioa berritu dute

Udaleko Merkataritza, Turismoa, Teknologia Berriak eta Sustapen Ekonomikorako batzordearen eskutik, Udalak eta Ibai-Artek lankidetzarako hitzarmena berritu dute. Herriko merkataritza sustatzeko ekintza plan bat diseinatu dute: "Arlo hori estrategikoa da", adierazi du Victoriano Fuentes zinegotzi sozialistak.

## Trikitixa Eskolaren ikasturte amaierako jaia ekainaren 11n

Ekainaren 11ko ikasturte amaierako jaian herriko 14 kultura taldek edo eragilek hartuko dute parte. Monterron parkean egingo dute jaialdia, 18:30ean hasita. Ondoren, afari herrikoia egingo dute Biteri plazan (21:00): "Etorri eta gozatu gurekin. Ez dago plan hoberik sanjuanak ospatzen hasteko".

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa
Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak
Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

**Mikel Arregi** | Kazetaria

# "Ahalik eta ikuspegi zabalena eman nahi izan diogu gatazkari"

- Ukrainan iaz jasotakorekin dokumentala egin du Arregik, Ibai Trebiñorekin
- Ekainaren 11n estreinatuko dute ikus-entzunezkoa, Amaian (19:30)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2015eko martxoan, apirilean eta uztailean Donbass-en (Ukraina) jasotako irudiekin eta testigantzekin *Donbass: gerra Europaren bihotzean* dokumentala egin dute Mikel Arregik (Arrasate, 1985) eta Ibai Trebiñok. *Crowdfunding* edo finantzaketa kolektiboari esker argia ikusiko du lanak. Jaioterrian estreinatuko dute ikus-entzunezkoa; ekainaren 11n, Amaian (19:30).

**Zer erakusten du dokumentalak?**
Donetsk edo Luhansk eskualdeetan bonbardaketetatik ihesi sototan bizi diren herritarrak ikusiko ditugu, meategietan lanean ari diren langileak, eskoletako irakasleak, azokan erosketak egiten ari diren herritarrak eta miliziano eta soldaduak, noski. Ahalik eta ikuspegi zabalena eman nahi izan diogu gatazkari.

**Nola dago egoera egun Ukrainan?**
Zoritxarrez gauzak gutxi aldatu dira urtebetean. 2015eko otsailean Minskeko bake akordioak sinatu zirenetik gatazka izozten joan da. Ukrainako gobernuko tropen eta milizien arteko borrokek aurrera


Arregi, Donets-eko Kievsky auzoan, eta Vostok brigadako miliziano bat. | M.A.

> **"Proiektu pertsonal garrantzitsua izan da; gertukoak pozik geratzea nahi dugu"**

jarraitzen dute. Tirabirak ia egunero daude, baina fronteak geldi segitzen du. Ukrainako guda, lehengo Sobietar Batasuneko beste gatazka batzuen antzera geratu da. Donbass-en bizi den egoera, Nagorno Karabaj, Hego-Osetia edo Abjasian bizi dutenaren oso antzekoa da. Kasu honetan, eragin handiagoa du, Ukrainaren garrantzi geo-estrategikoa dela eta. Denbora luzez izango dute gatazka han.

**Polita izango da halako proiektu bat jaioterrian bertan estreinatzea...**
Ederra da, nahiz eta dagoeneko zirrara berezi bat sentitzen dudan. Urduri nago. Gertuko lagun eta senideak etxera ikusi dutenarekin pozik joatea nahi dugu. Kanpainan dirua jarri zuten guztiei eskura emango diegu lana, DVD formatuan. Proiektu pertsonal garrantzitsua izan da, bai niretzat zein Ibairentzat, eta bukatzera goazen abentura hau ahalik eta modu positiboenean itxi nahi dugu.

**Pozik *crowdfunding* edo finantzaketa kolektiboaren kanpainarekin?**
Arrakasta handia izan zen. 200 pertsona eta erakundek babestu gintuzten; orain guri dagokigu jarritakoa bueltan ematea. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu guztiei, euren laguntzak egin duelako posible *Donbass: gerra Europaren bihotzean* zinema areto batera eramatea. Eskerrak ere Udalari, dokumentala babestu duelako eta Amaia antzokia utzi digulako. Horrez gain, beste hainbat ere gogoan izan nahiko genituzke: *Argia*, dokumentalari ahotsa jarri dion Iraitz Agirre, itzulpenak egiten lagundu diguten Asmik eta Larisa... Zerrenda oso luzea izan daiteke.

**Hurrengo emanaldiak non eta noiz?**
Oraindik itxi gabe ditugu baina udan emanaldi gehiago eskainiko ditugu, Euskal Herrian zein estatuko beste leku batzuetan.

## Gobernuz Kanpoko Erakundeen aldeko Elkartasun Eguna

Bihar egingo da, Seber Altube plazan, GKEn aldeko Elkartasun Eguna, 11:00etatik 20:30era. Puzgarriak –11:00etan eta 16:30ean–, trikitilariak (12:00), Arrasate Musikaleko ikasleen kontzertua (12:30), Ikusi Makusi-ren *Arrasatetik Mundura* ikuskizuna (17:30), txokolate-jana bidezko merkataritzaren produktuekin (18:45), Mery May & The Muppets taldearen kontzertua (19:30) eta Eroski Bidaiak-eko sariaren zozketa izango dituzte (20:30), besteak beste.

## Aniztasunaren trataera lantzeko lanpostu bat atera du Txatxilipurdik

Ludoteketan aniztasunaren trataera lantzeko hezitzaile lanpostu bat bete behar du Txatxilipurdik. 2016ko urritik 2017ko ekainaren 31ra arteko kontratua izango litzateke, ordukako lanaldian. Hautatuak irailaren 6an eta 7an egingo den mintegira joan beharko da, derrigorrez. Interesatuek ekainaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dute curriculuma Txatxilipurdin. Argibide gehiagorako deitu 943 79 54 46 telefono zenbakira (Maialen).

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN
ikasLAN Gipuzkoa
"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN
ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk.
20550 ARETXABALETA
✆ 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

BERGARAN
Miguel Altuna LHII Bergara
Ibargarai, 1
20570 BERGARA
✆ 943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@saremail.com
www.imaltuna.com

OÑATIN
IES RM Zuazola - Larraña BHI
San Lorentzo, z/g
20560 OÑATI
✆ 943 78 21 50
013015aa@hezkuntza.net
www.onati.net

AURREMATRIKULA: Ekainaren 6tik 17ra. MATRIKULA: Uztailaren 11tik 15era.

# Garagardo Azokak 18 urte bete ditu aurten, herrian errotuta dagoen seinale

Pintxo-pote giroan atzo ireki zuten karpa, herri kirolekin eta Udaleko ordezkarien afari ofizialarekin



Familia bat Herriko Plazako karpan afaltzen, artxiboko irudi baten. | GOIENA

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Aurten *adingabe* izateari utziko dio Arrasate Rugby Taldearen Garagardo Azokak, aurtengoa 18. edizioa izango da eta. Atzo 18:00etan ireki zuten Herriko Plazako karpa eta zapatu gauera arte hainbat izango dira, urtero moduan, bertatik pasatuko diren herritarrak. Azken urteetako ohiturari jarraiki, pintxo-pote giroan ireki zuten karpa.

Izan ere, erdiguneko beste hainbat tabernarekin bat eginez, Herriko Plazara gerturatu zirenek pintxo-potearekin gozatzeko aukera izan zuten afaltzeko ordura arte. Euro baten truke garagardo botila eta patata minak banatu zituzten ARTko ordezkariek. Hala ere, urtero legez, karparen irekiera ofiziala zinegotzien afariarekin batera egin zen. Urteko aurrekontuaren zati handiena egunotan ateratzen den diru kopuruan oinarritzen du ARTk, eta, horregatik, astelehenetik bertatik lanean aritu dira karpa behar den moduan atontzen.

### Zapatu eguerdian zabalik

Aurtengo azokarako 2.190 litro garagardo eskatu dituzte klub zuri-moreko arduradunek, bost marka ezberdinetakoak. Pitxarretatik edan nahi ez dutenentzat litro laurdeneko 750 botilatxo ere eskatu dituzte. Eta noski, edatekoa bakarrik ez, jatekoa ere egongo da. Jakiei dagokienez, aurten ere kopuru ikusgarriak eman dituzte antolatzaileek: 2.700 opil, 375 oilasko, 720 txerri ukondo eta 140 saltxitxa-lata. Alemaniako *Oktoberfest* ezagunen giroa bizitzeko aukera egongo da aurten ere, beraz. Edari eta jaki horiek guztiak prestatu eta zerbitzatzeko, ARTko kideak ibiliko dira jo eta su lanean.

Azpimarratzekoa da aurten zapatu eguerdian ere Garagardo Azoka zabalik egongo dela. Izan ere, bihar Nazioarteko Zazpiko Txapelketa jokatuko da (ikus 37. orria), baina goizean beteranoak ere animatuko dira euren bihotzeko kirolaz gozatzera. Izerdia gustura bota ostean, talde guztiek elkarrekin bazkalduko dute Herriko Plazako karpan. Horrenbestez, edozein herritarrek zapatuan karpan bazkaltzeko aukera ere izango du.

**DATUA**

**2.190**

LITRO GARAGARDO

Pitxarretatik edan nahi ez dutenentzat, 750 botila eskatu dituzte aurten ere.

# Ikasleen ekarpenekin, Arrasate hobe baten bila

**J.B.** | ARRASATE

Ikastetxe guztietako ikasleen ordezkaritza bat udaletxeko osoko bilkuren aretoan elkartu zen martitzenean, Agenda 21 ekimeneko Bizitzeko Herria proiektuaren barruan. 50 urte barru nolako Arrasate gura duten irudikatu zuten, eta baita hainbat eskaera egin ere: Biteri plaza jolaserako aitortzea, autoen sarrera mugatzea hainbat plazatara, bizikletendako aparkalekuak jartzea jolastokietan, eskola inguruak seguruagoak egitea, zinema emanaldi gehiago antolatzea gazteentzat, leku estali gehiago elkartzeko… Eskaerok aintzat hartuko dituztela adierazi zuen alkateak: "Helduok ez ditugu ikusten gauzak zuek ikusten dituzuen bezala, horregatik da horren garrantzitsua zuen ikuspuntua. Esango dizuegu zer bete dugun eta zer ez, eta bete ez dugun hori zergatik ez dugun bete". Bestalde, ekainaren 26ko hauteskundeetarako zozketa ere egin zuten; mahaian egotea tokatuko zaionari datozen egunotan jakinaraziko zaio.



Ikasle bat udalbatzaren aurrean proposamen bat egiten. | JOKIN BEREZIARTUA

### Abaroakoak Burgos aldera joango dira ekainaren 14an

Abaroa erretiratu elkartekoek Lerma (Burgos) ezagutuko dute hilaren 14an. Parte hartzeko izena eman beharko da ekainaren 6an, 10:30ean, eta txartelak ekainaren 10ean banatuko dituzte, 11:00etan. Prezioa da 32 eurokoa eta bi autobus antolatuko dituzte.

## Garazi Estevez txapeldun

**Joan den aste bukaera "borobila" izan zen Dorletako Ama Txirrindularitza Taldearentzat. Zapatuan, Ataun eta Aia arteko proban, Iñigo Aranburu ziklista izan zen azkarrena. Domekan, Garazi Estevezek Euskadiko infantil mailako txapelketa irabazi zuen –argazkian–, eta ordu berean, baina Zumaian, kadeteek Gipuzkoako taldeko erlojupeko proba irabazi zuten.**



DORLETAKO AMA TXIRRINDULARITZA TALDEA

arbolapeta arrasate beinke

### Arrasate Herri Eskolak ikasturtea borobiltzeko jaia egingo du gaur Biterin

**J.B.** | ARRASATE

Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta, 2015-2016 ikasturtea agurtzeko jaia egingo dute gaur, egubakoitza, Biteri plazan. 17:00etan emango diote hasiera ospakizunari, 5. eta 6. mailetako ikasleek abestuko dituzten bertsoekin. Jarraian, "argazki erraldoia" aterako dute bertaratzen diren guztiekin: "Denok eskolako kamisetarekin joango gara edo kamiseta morearekin". 17:30ean txotxongiloak eta tailerrak izango dituzte eta 19:00etan sariaren zozketa egingo dute.

Amaitzeko, Libertad Condicional talde gaztearen kontzertua izango dute. Ospakizunak irauten duen bitartean, taberna zerbitzua egongo da eta txorizo egosi pintxoak salduko dituzte.

### Kulturateko pintura ikasleen lanak egongo dira ikusgai gaur Seber Altube plazan

**J.B.** | ARRASATE

Urtero moduan, ikasturtean zehar Amaia Bengoa irakaslearen agindupetara Kulturaten pintura ikasten aritu diren herritarrek euren lanak herri osoaren aurrean jarriko dituzte ikusgai. Erakusketa gaur, egubakoitza, izango da Seber Altube plazan, 17:00etatik 21:00etara. Esperientzia duten ikasleak zein hasiberriak, bata bestearen ondoan izango dira gaurko erakusketan.

**Urte osoko lana erakustea**

Ekintzaren helburua da ikasturtean zehar egindako lana arrasatearrei erakustea. Artista bakoitza bakarra den moduan, margolanetan askotariko teknikak eta gaiak ikusi ahalko ditu Seber Altubera gerturatzen denak.



Hamalau bat herritar gerturatu ziren Ubietaren hitzaldia entzutera. | M.T.

# Ebolaren krisian mediku kubatarren lana hizpide

## Enrique Ubieta kazetaria Afrikan izan zen iaz, eta bertan ikusitakoak azaldu zituen Irizar jauregian

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Enrique Ubieta idazle eta kazetari kubatarra Irizar jauregian izan zen martitzen arratsaldean, Afrikako ebola gaixotasunaren krisian kubatar medikuek eginiko lanari buruz mintzatzen eta gai horri buruzko bere liburua aurkezten: *Zona Roja. La experiencia cubana del ébola*.

Ubieta bera Afrikan izan zen iaz, ebolaren aurkako lanetan zebiltzan medikuekin batera, hauen lana eta Liberia, Sierra Leona eta Gineako egoera kontatzeko asmoz, gune hori izan baitzen pandemia hasi zen tokia eta gaixotasunak eraginik latzenak izan zituen lekua. Datu zehatzik ez dagoen arren, izurriteak 17.000 hildako inguru eragin zituen hiru urtetan herrialde horietan.

Kubako gobernuak deialdia egin, eta mila mediku eta erizain inguru agertu ziren prest, Ubietak azaldu duenez. 256 izan ziren aukeratuak Afrikara joateko.

**Elkartasuna Kubatik**

Lehendabizi, dokumental bat eman zuten Irizarren, eta ondoren, Ubietak hartu zuen hitza.

Ubietak azaldu zuen Kubako gobernua izan zela laguntza bidaltzen lehena, gaineratuz "nazioarteko laguntza ekarri zuen lokomotora" izan zela. "Lehenik, hilabetez jendea hil egiten zen zer zeukaten jakiteke; ondoren, ebola zela jakin zen, eta Kubak bere laguntza bidali zuen; hala ere, beste zortzi hilabetez jarraitu zuten hiltzen, alarma egoera ez baitzen piztu gaixotasuna Europara eta AEBetara iritsi arte".

"Internazionalismoak gure burua birziklatzen laguntzen digu kubatarroi. Iraultzaile gisa berresten dugu gure burua", esan zuen Ubietak Bergaran.

NIRE USTEZ

**IOSU ELORTZA**



# Euskalduna

Oso arduratuta nago. Asuntua da euskaldun petoa sentitzen naizela, baina aspaldian konturatua nago euskal kulturako ikur gehienek ez didatela inungo pasiorik sortzen: bertsoekin dermatitisa ateratzen jat, kalimotxoa... puaj... pilotan jokatzerakoan, lehenengo minutuan erretiratzen naiz eskuko minarekin, trikitiak ez dost oilo-ipurdirik sortzen, bakailaoa bizkaitar erara... ni fu ni fa, txistuaren soinuarekin belarriko minez bukatzen dot, *euskal rock erradikala* ez dot sekula gustuko izan, herri kirol eta dantzak? Harri pisutsuak jaso, enborrak txikitxu, hanka zeruraino jaso? Zoratu egin gara, ala?

Denetik probau dot gaixotasun hau zuzentzeko: hipnosia, deskarga elektrikoak, akupuntura, abstinentzia sexuala, *puenting*-a, GOITB... baina ezer be ez. Psikologoek ere ez diote esplikazio logikorik topatzen, ez dute sekula horrelako kasurik ikusi. Argi dago edozein ezin dela euskaldun izan.

Dena den, euskalduna izateko 2 baldintza garrantzitsuenak betetzen ditudala uste dot: 8 euskal abizen dauzkat eta ez dot sekula ostiarik be ligau...

A... eta euskara? Gai hau beste baterako lagako dot...

# San Martin Agirre herri eskola, praktika onen eredu eta interes sortzaile

KOMUNITATEA GOIENA
SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLA

Diziplinarteko proiektuetan oinarritzen da San Martin Agirre herri eskolaren metodologia. Horrek EAEko ikastetxe eta hezkuntza agenteen arreta bereganatu du, eta hainbat jardunalditan parte hartu dugu.

Maiatzaren 25ean Bilboko *Ikaslea helburu, hezkuntzan pauso berriak* jardunaldietan parte hartu genuen. 19an, berriz, *Getxolinguae*-n, non Hizkuntza Trataera Bateratuari buruz aritu ginen. Azkenik, apirilaren 21ean, Donostian egindako Euskal Eskola Publikoaren IV. Jardunaldietan parte hartu genuen.

**Ikasleak lehendakariarekin**

Eguazten honetan, berriz, eskolako ordezkariak Lehendakaritzan egon ziren, guztira 57 ikasle eta bost irakasle. Gazte Irekia ekimenean lehen saria eskuratu zuen proiektua aurkeztu zuten bertan. Iñigo Urkullu lehendakariarekin izan ziren, eta hark adierazi zuen "proiektuetan aitzindaria" dela eskola. Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek, aldiz, zuzendaritzaren lidergoa goraipatu zuen.

Jantokiko janariaren kalitatea eta jasangarritasuna lantzeko proiektu batekin parte hartu zuten ikasleek Gazte Irekia ekimenean.



San Martingo neska-mutikoak lehendakariarekin. | SAN MARTIN HERRI ESKOLA



ELENA LAKA

# Estatu propioa mintzagai

Eguaztenean *Estatu propioa, zergatik eta zertarako?* izenburupean solasaldia izan zen Irizar jauregian, Bergara Aberasten eztabaida-guneak antolatuta. Oskar Arantzabal idazle eta ekonomialaria eta Eñaut Apaolaza Ekai Centerko ekonomialaria izan ziren gonbidatuak, eta Elena Laka aritu zen moderatzaile. Euskal Herriaren balizko independentzia ikuspuntu ekonomikotik aztertu zuten.

## Ludotekek ikasturte bukaerako jaia egingo dute gaur Oxirondon

Angiozar, Osintxu eta Bergarako ludoteketako umeek eta hezitzaileek elkarrekin ospatuko dute jaia gaur arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara, Oxirondon. Denetarik egingo dute: ezagutza jolasak, kantu jolasak, altxorraren bila, Jarduneko antzerki taldeko haurren antzerkia, merienda eta karaokea izango dira.

## Bihotz-biriken geldialdi baten aurrean zer egin jakiteko ikastaroa gaur

17:00etatik 20:00etara izango da, San Martin plazan, DYAren eskutik. Standak jarriko dituzte, eta nahi duen orok suspertzearen oinarrizko teknikak ikasi ahalko ditu, doan. Edonoren eskura dago, ez da formazio berezirik behar eta "10 minututan barneratzen da", antolatzaileen esanetan.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



BELAITZ
• Fitosanitarioak
• Landareak
• Erremintak
• Pentsuak
*Aparkatzeko leku zabala!*
NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA HORNIGAIAK
SORALUZE Mendiola Industrialdea www.belaitz.com 943 75 18 81

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

# Hondakinak eta Epele hizpide, besteak beste, maiatzeko osoko bilkuran

## GHKren mezu bat jaso du Mankomunitateak, zabortegiari kalifikazioa aldatzea aztertzeko eskatuz

JULEN IRIONDO | BERGARA

EH Bilduk gaia aterata, Bergarako EAJren zinegotzi eta Mankomunitatearen Ingurumen batzordeko buru ere baden Lander Arregik adierazi zuen Epeleko zabortegiaren kalifikazioa aldatzeko –hiri hondakinak jaso ahal izan ditzan– eskari ofizialik ez dutela jaso; baina esan zuen baietz, mezu elektroniko baten bidez aukera hori mahai gainean jarri diola Mankomunitateari GHK-k.


Asteleheneko osoko bilkura. | JULEN IRIONDO

EH Bilduk Gobernuari galdetu zion ze jarrera hartuko lukeen Gipuzkoako errefusa Epelera ekartzeko aukeraren aurrean. Lehenago esana duten bezala, jeltzaleek erantzun zuten Gipuzkoak dituen aukera denak aztertu behar direla, eta kontuan hartu beharko dela Debagoienak oso tasa ona duela gaikako bilketan. Epelera Gipuzkoako errefusa ekartzekotan, "baldintza batzuekin" izan beharko litzatekeela zioen Lander Arregik.

EH Bilduk kezkaz hartu zuen Arregiren erantzuna, aukera hori "aztertzeko asmoa" agerian geratu zelako, Gorka Artolaren esanetan. "Oso tasa handiak dituen eskualde bat berriro zigortzea litzatekeela" zioen, Arrasaten zabortegia egon zela gogoraraziz.

Bestalde, Irabazik eskatu zuen hondakinen mahaia sortzea, prebentzioan lan egiteko. Alkateak ez du mahai horren beharrik ikusten, nahiz eta helburua ontzat jo: "Ez du esan nahi sentsibilizazioaren bidez gehiago lortzerik ez daukagunik, noski daukagula; ez gara autokonplazienteak izan behar", zioen Elena Letek; Aiert Lizarraldek, berriz: "Herritarrek ez badituzte kontsumo ohiturak aldatzen, beti izango ditugu tona berak; onak izango gara gaikako bilketan, baina beti izango dugu arazo bera".

**Kreditu aldaketak**

Honez gain, Gobernuaren botoekin eta EH Bilduren eta Irabaziren abstentzioekin 400.000 euro inguruko kreditu aldaketak onartu zituen udalbatzak; asfaltatze lanetarako eta argiteria publikorako erabiliko da dirua, besteak beste.

Azkenik, udalbatzak aho batez onartu zuen iraunkortasuna helburu duen Udalsarea 21eko kide izateak dakartzan konpromisoak berrestea, eta baita errefuxiatuen gainean EH Bilduk aurkeztutako mozioa ere, asilo eskatzaileak ez kanporatzea eskatzen zuena, besteak beste.


Irabaziko kideak San Martzialen. | IRABAZI

## Sanmartzialetan hondakin gutxiago sortzeko neurriak proposatu ditu Irabazik

J.I. | BERGARA

Uztailaren 3an izango da aurten San Martzialgo erromeria, eta Irabazik hainbat neurri proposatu ditu, jaiaren ostean ingurune natural hartan geratu ohi diren hondakinak hobeto kudeatzeko eta hondakin horien sorrera prebenitzeko. Irabaziren esanetan, Udal Gobernuek nahiago izan dute, orain arte, "urtean egun bakarra" den argudioarekin, zikin utzitakoa garbitzea, "gaitz" horri aurre egitea baino; Udalak erantzukizun guztia herritarrengan utzi ohi duela ere salatu du Irabazik. Zentzu horretan, Aiert Lizarralde zinegotziak dio Udalak azpiegitura hobeak jarri beharko lituzkeela, eta kontzientziazio planak bultzatu. Gaiaren gainean beste alderdiekin jarduteko asmoa ere agertu du.

## Jaien balorazio baikorra, astean egindako bileran

J.I. | BERGARA

Gobernuko eta herriko zenbait eragiletako ordezkariak batu ziren Pazkoak baloratzeko egin ohi duten bileran. Positibo baloratu zuten jolas parkea egunero egotea; San Joxepekoek, jende nagusiaren gustuko izan zitezkeen ekitaldietan aulkiak jarri izana ere bai. Hobetzeko, txaranga herrian egunero ibiltzea eskatu zuten bileran.

## Izena emandako denak onartuta, udaleku irekietan

J.I. | BERGARA

Udaletik adierazi dute izen-emateak "aurreikuspen guztiak apurtu" dituela: 483 umek eman dute izena, 455ek Bergaran, 17k Angiozarren eta 11k Osintxun.

Udalekuak aurkezteko saioak izango dira: ekainaren 8an, Zabalotegin; 9an, Angiozarko Arbiaska aretoan; eta 15ean, Osintxuko eskolan –denak 18:00etan–.

### EAJk inauguratu du Ibargaraiko lokala, hauteskundeei begira

Batzokian sutea gertatuta eta bi hauteskunde bertan egonda, EAJk lokala atondu du Ibargaraiko 15. zenbakian. Martitzenean egin zuten inaugurazioa, eta Bergarako jeltzaleek bailarako EAJko beste hautetsien eta GBBko buru Joseba Egibarren babesa izan zuten. Posta bidezko botorako da, besteak beste, lokala.

### Martxan da leiho eta balkoiak apaintzeko Udalaren lehiaketa

Hirugarren aldia du Balkoi eta Leihoak Lorez eta Landarez Apaintzeko Lehiaketak. Parte hartzeko izen-ematea ekainaren 1etik 17ra bitartean egin daiteke Udal liburutegian (08:30-20:30 edo 943-77 91 58). Lehenengo saria 400 euro izango dira bonutan; bigarrena, berriz, 200 euro.

### Valleko kondeari buruzko liburu digitala, sarean

Liburuaren izenburua da *El fotógrafo, frente a la cámara y de cerca. Notas sobre el Conde del Valle (Bergara, 1863 - San Sebastián, 1953)*, eta Alfonso Otazuk egin du. Udal artxiboak bultzatzen dituen ikerketen emaitza berria da. Honez gero, bosgarren liburu digitala da hau.

### Seminarioko aretoko obrak ikusteko beste bi bisita, hilaren 9an

Aurreko astean kultura aretoko obretara egindako bisitek izandako arrakasta ikusita, Udalak hurrengo eguenerako ere aukera ematea erabaki du: 18:00etan eta 18:30ean izango dira. Izena emateko: 943-77 91 59 edo *kultura@bergara.eus*. Oinetako itxiak eraman behar dira derrigorrez.

## OHARRAK

**EGUAZTENEKO AZOKA**
Baserriko produktuez gain, hondarrezko irudien tailerra.

**KAFEKONPON**
Eguaztenean da hitzordua, 16:00etan San Joxepen.

**ODOL EMATEA**
Eguaztenean tokatzen da, baina oraingoan Aranzadi ikastolan, 18:00etatik 20:00etara.

**SAN JOXEPE: EGUN-PASA**
Ekainaren 15ean egun-pasa egingo dute erretiratuen elkartekoek: Castejonen bazkalduko dute. Irteera, 08:00etan autobus geltokitik. Izena emateko, hilaren 1etik 10era.

**IPINTZAKO HARMAILAK**
Harmailak nolakoak izan behar diren adosteko bilera irekia, eguaztenean 18:30ean Ipintzako institutuko areto nagusian.

**ERORIKOEN TAILERRA**
Martitzenean eta eguenean, 16:00etan. Informazioa, Agorrosinen eta San Joxepen.

ESPOLON School of English BERGARA
SUMMER ENGLISH
• Haur eta gazteentzako
• Azterketak prestatzeko
PET, FIRST eta ADVANCED
Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
Antzuolan eta Bergaran
Informa zaitez:
Ibargarai, 31 behea BERGARA
Tel.: 943 76 03 53 • espolon@euskalnet.net

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

# Marrazketa zientifikoa ezagutzeko aukera ospedun adituen eskutik

- Laboratoriumek jardunaldia antolatu du biharko, udaberriko egitarauaren baitan
- Vega Asensio eta Carles Puche ilustratzaileek tailerrak eta ekintzak eskainiko dituzte


Antolatzaileak eta Vega Asensio aditua, aurkezpenean. | BERGARAKO UDALA

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Laboratorium museoan *Loreak asmatzen: Naturzale Europarrak Euskal Herrian* izeneko erakusketa dago ikusgai uztailaren 10era bitartean. Horri lotuta, natur zientziei lotutako programa zabala proposatu du museoak, adin askotarikoei zuzenduta dagoena. Ekainaren 4an, hau da, bihar, marrazketa botanikoaren inguruko topaketa egingo dute. Ekimen hau Beart elkartearekin batera antolatu dute, eta jardunaldiaren helburua artea eta zientzia uztartzea da.

**Irakasleak**

Egunean zehar hainbat tailer eta ekintza egingo dira ospe handiko bi zientzia ilustratzaile profesionalen eskutik: Vega Asensio eta Carles Puche.

Asensio euskalduna da eta Puche, berriz, kataluniarra. Bigarren honek "autodidakta" moduan deskribatzen du bere burua. National Geographic bezalako publikazioetarako marraztu izan du. Asensio, berriz, Biologian doktorea da eta gaztetatik aritu izan da marrazketa eta ilustrazioan.

**Izen ematea**

Tailerretan parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute; Laboratorium museoan harreran bertan, telefonoz edota e-mailez: 943 76 90 03 / *laboratorium@bergara.eus*. Tailerretan parte hartzeko prezioa 10 euro da. Gainontzeko ekintzak doan dira.

## EGITARAUA

**10:00** Ongietorria Laboratoriumen.

**10:05** Sarrerako hitzaldia: ilustrazio botanikoa. Vega Asensio eta Carles Puche marrazkilariak.

**11:00-14:00** Kaleko marrazketa librea. Irakasleak hala nahi duten parte hartzaileekin arituko dira.

**12:00-14:00** Lehen tailerra: marrazketa zientifikoari sarrera (zuri-beltza)

**16:30-18:00** Bateratze saioa. Egunean zehar egindako lanak erakutsi eta komentatuko dira. Vega Asensiok eta Carles Puchek euren lanaren aurkezpen bat egingo dute eta ilustrazio zientifikoaren arloan Estatu mailan dagoen egoera ere komentatuko dute.

**18:00-20:00** Bigarren tailerra: marrazketa zientifikoari sarrera (koloretan)

## Adituen profilak

Vega Asensio ilustratzaile zientifikoa durangarra da. Aipatzen du tesia bukatu ostean ilustrazio zientifikoari "aukera bat ematea" erabaki zuela. Hain zuzen ere, zapatuan berarekin batera irakasle lanetan arituko den Carles Pucheren eskutik ikasi zuen, besteak beste.

Carles Puchek 1980. urtetik dihardu ilustrazio zientifikoaren munduan. Egun, Historia Naturaleko Instituzio Kataluniarreko, Mexikoko Zientzia Ilustratzaileen Akademiako eta Guil Of Natural Science Illustrators elkarteko kide da. Berak dioenez, bere kabuz ikasi du, komikiak marrazten hasita.

JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

GAINZURI Ikastetxea

ERIZAIN LAGUNTZAILEA
Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANERAKO AUKERAK:
- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentroetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:
Ekainaren 6tik 17ra

MATRIKULA EGITEKO EPEA:
Uztailaren 11tik 15era.



J.M. IPARRAGIRRE B.H.I
Nekolalde 16 – 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxa: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.jmiparragirre.eus - 012286aa@hezkuntza.net


Antolatzaile eta laguntzaileak aurkezpen prentsaurrekoan. | M.T.

# Mahonero guztien bilgune izango da seminarioa

Bergara Kirol Elkarteak antolatutako jaian denetarik izango da: parrilada, musika, kirola...

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Gaur, egubakoitza, 19:30etan irekiko dute Seminarioko karpa, eta segidan buruhandi eta trikitilarien kalejirak emango dio hasiera mahonero asteburuari. Seminarioan, taberna, parrila -gunea eta mahaiak izango dira, nahi duenak bertan afaldu dezan.

Afalostean, berriz, zuzeneko musikaz gozatu ahal izango da.

**Zapatuko egitaraua**

Bihar, futbol eskolakoen futbol txapelketarekin hasiko da eguna. Gero, herri bazkaria izango da.

Bazkalostean, denboraldiko hainbat sari banatuko dituzte. Batetik, jokalari onenaren saria izango da; emakumezkorik onenak eta gizonezkorik onenak sari bana jasoko dute. Gauza bera entrenatzaile onenaren sariarekin. Bestalde, klubari emandako laguntza eskertuko diote beste pertsona bati saria emanez. Bazkide berezi bat ere saritua izango da, eta bukatzeko, bergararra ez den baina klubarekin lotura duen azken pertsona bat.

Horren ostean, zozketak, jokoak, mahai-futbol txapelketa eta buruhandiak izango dira arratsaldea girotzeko. Gauean, parrilada, eta jarraian DJ festa.

**Jarraitzeko asmoa**

Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzako kide Iosu Elortzak dio aurten sortutako ekimen berri hau "harrera ona" izaten ari dela herrian. Aurtengoa futbol sailak antolatu duen arren, datozen urteetan beste sail batzuek ere parte hartzeko nahia adierazi du. Nabarmendu du Kirol Elkarteko sail guztietako jokalari, lagun eta zaleak daudela deituta asteburuko jaian parte hartzera, eta BKEko arropa soinean eramatera animatu ditu guztiak.

### EGITARAUA

**EKAINAK 3, EGUBAKOITZA**

**19:30** Karparen irekiera.

**20:00** Kalejira trikitilari eta buruhandiekin.

**21:00** Parrilada

**22:30** Kontzertuak: Biken eta Naroa bikotea eta Desados.

**EKAINAK 4, ZAPATUA**

**10:00** Futbol eskolako neska-mutikoen futbol txapelketa.

**13:30** Sari banaketa eta triki-poteoa.

**14:30** Herri bazkaria. Ondoren: denboraldiko sarien banaketa, zozketak, jokoak, mahai-futbola, buruhandiak...

**21:00** Parrilada

**22:30** DJ Festa Julen Narbaizarekin

## Telebistako komedianteak Zabalotegin

M.T. | BERGARA

Umorezko bakarrizketa saioa izango da datorren eguaztenean, hilak 8, Juanjo Albiñana eta Kaco Forns komedianteen eskutik. Hitzordua 20:00etan izango da Zabalotegi aretoan, eta sarrerak zortzi eurotan egongo dira salgai leihatilan.

Telebistan aritzen diren ospedun komedianteak dira Albiñana eta Forns; esaterako, *El Club de la Comedia* saio ospetsuan aritu ohi dira bakarrizketak egiten. Gainera, biak aktore lanetan ere aritzen dira, eta umorezko hainbat telesailetan kolaboratu dute.

Albiñana Albacetekoa da, eta sarritan erabiltzen ditu bere jatorriari buruzko erreferentziak umore errekustso gisa. Forns, berriz, madrildarra da eta egunerokotasuneko gauzak umorez kontatzea da bere ezaugarri bereizgarria.

# Markel Gartzia txapeldun Zaramagan

M.T. | BERGARA

Markel Gartzia Bergara Kirol Elkarteko pilotari gaztea txapelarekin itzuli zen etxera pasa den domekan Gasteiztik. Hain zuzen ere, Zaramagako torneoko 42. edizioa jokatu zuten Arabako hiriburuan, eta han, Gartziak Iriarte azpeitiarra izan zuen bikotekide.

Partidu ona eginda, 15-22 irabazi zioten Lazkaotik joandako Ruiz de Larramendi anaiek osatutako bikoteari.


Gartzia eta Iriarte garaikurrarekin. | REYES AZKOITIA

**Kartelera**

Gaur, egubakoitza, ekainak 3, bi pilota partidu ikusteko aukera izango da Bergarako Udal Pilotalekuan.

19:30ean hasita, lehenik eta behin, bigarren urteko alebinen partidua izango da, non Bergarako bikotea Ordiziako Txapagain klubeko ordezkarien aurka arituko den.

Horren ostean, berriz, kadeteen lehen mailan, Gallastegi bergararrak Odriozola zestoarra izango du aurrean.

Hilaren 12an Debarroko finala jokatuko dute Aretxabaletan. Kadete, gazte eta nagusi mailetako ordezkariak izango ditu Bergarak.

### LABEGARAIETA

**PARTIDUAK**

Ekainak 5, Domeka

| | |
|---|---|
| **15:00** | SVC-America / **Errefuxa** |
| **16:00** | SVC-Errefuxa / **America** |
| **17:00** | River City-HIS / **Estrella Coja** |
| **18:00** | Estrella Coja-Vodka J. / **Birgerias** |
| **19:00** | K. Piperrak-Birgerias / **Vodka J.** |
| **20:00** | Poteo Iz.-Arrano Z. / **K. Piperrak** |

## Puntako bertsolariak batuko dira gaztetxean egubakoitzean

*Ez da kasualitatea* saioa antolatu du Kopla Barik bertso eskolak. Miren Amuriza, Oihana Bartra, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeita izango dira bertsolariak, eta Amaia Agirre gai jartzaile. Hilaren 10ean, 22:30ean. Sarrera: 3 euro.

## Martitzenean hasiko da Udako Futbol Txapelketa

M.T. | BERGARA

Datorren martitzenean, hilak 7, hasiko da aurtengo Udako Futbol Txapelketa. Betiko legez, gizonezkoen, emakumezkoen eta beteranoen kategoriak izango dira. Asteon egin dute bilera taldeekin, baina oraindik apuntatzeko aukera dago, astelehenera arte, txapelketaren hasieraren bezpera arte. Aurtengo edizioa Bergara Kirol Elkarteko lehen taldeko jokalariek eta zuzendaritzak antolatu dute. Uztail amaierarako bukatzea aurreikusten dute. Partiduak Ipintzan izango dira.


POL POL M.T.

## Pol Poleko gazteen irteera

Primeran ibili ziren Pol-Poleko gazte taldeko mendizaleak domekako irteeran. Larraitz-Txindoki-Ganbo-Lizarrusti ibilbidea burutu zuten, giro paregabean. Dagoeneko hasi dira hurrengo irteera prestatzen. Ekainaren 25ean eta 26an Donostiara zeharkaldia egingo dute.

**Jon Beistegi** | Soraluce BKEko entrenatzailea

# "Taldeak jarraitu egingo du, eta hori gauza oso positiboa da"

J.I./M.T. | BERGARA

Soraluce BKE saskibaloi taldeak maila galdu du, eta datorren denboraldian bigarren mailan arituko da. Mahoneroek ezin izan diote eutsi iaz lortutako mailari. Jon Beistegi entrenatzaileak taldea utziko du, eta orain kluba beste pertsona baten bila dabil.

**Denboraldia zaila izan da?**

Zaila, maila galdu dugulako, baina gauza positiboak ere atera ditugu. Talde berria zen eta azken asteetan oso ondo ikusi dut.

**Bigarren itzulia hobea izan da.**

Bai, lehenengo itzulian partidu guztiak galdu genituen, eta halakoetan gogo falta izaten da. Baina liderraren kontrako lehen garaipenarekin pilak kargatu genituen. Azkenean, hiru partidu irabazi ditugu, baina beste lauzpabostetan ere ondo lehiatu gara.


Beistegik taldea utziko du. | GOIENA

**Datorren urtera begira, jokalariek jarraituko dute?**

Gehienek bai. Kanpo hegaleko jokalari batek laga egingo du, baina beste bi gazte igo egingo dira. Taldeak jarraituko du, eta hori gauza oso positiboa da.

**Berriro ere maila berreskuratzea izango da helburua?**

Bai. Taldea igoz gero, bigarren urtea izango litzateke lehen mailan; kategoria ezaguna izanik, onena litzateke denbora batean goian mantentzea, egonkortasun hori lortzea, azken urteetan gora eta behera ibili gara eta.


Mariaren Lagundia Ikastola • Bergara
MARIAREN LAGUNDIA
Gizarteratze Teknikaria
Haur Hezkuntzako Teknikaria
2016
Aurrematrikulazioa:
Ekainaren 6tik 17ra
Espaloia 1
943 76 25 40/41
ikastola@mlagundia.net
mlagundia.net

# Atzeko Kalean ere oinezkoek izango dute lehentasuna

Obrek ekarriko duten aparkatze sistemaren aldaketaren oinarriak ari da prestatzen udala

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Atzeko Kalea oinezkoendako egokitzeko lanak hasi dituzte aste honetan. Ramon Irizar kaleko kantoitik hasi eta Foruen plazarainoko zatia eta alondegia egokituko dituzte; baita Kirrineneko eta Ibarrondo etxeko kantoiak ere. "Herrigunean lehentasuna oinezkoari ematea da helburua. Obra hauekin, Atzeko Kale guztiak itxura bera izango du gero, espaloiak eta kalea bera plataforma berean egongo dira", azaldu du Irati Etxeberriak, hirigintza zinegotziak. Ramon Irizarko kantoitik alondegirainoko zatiak kalearen goiko aldearen itxura bera izango du, eta udaletxe ondoko eta atzeko zatietan adokinak jarriko dituzte, Kale Barriko eredua jarraituz. Ur hoditeria berrizteko ere aprobetxatuko dituzte lanak.

Obrek hiru hilabete iraungo dute, eta, bitartean, zamalanak egitera Kale Barrira doazen ibilgailuak Portu kaletik pasako dira. Baina obra hauek aparkatze sistema berria ere ekarriko dute herriaren erdigunerako. Sistema hori lantzen hasita dago udala.



Oinezkoak eta ibilgailuak Atzeko Kalean martitzen goizean. | O.E.

# Barruan egosten dena erakutsiko du bihar Eltziak

Irteera, erakusketa, kontzertuak, murala eta bingo berezia dituzte antolatuta, besteak beste

O.E. | OÑATI

Herriko hainbat eragilek Eltzian duten euren lokala eta Eltzia Eguna antolatu dute biharko, zapatua, han zer egiten duten herritarrei erakusteko.

**Egun osoa**

Egun osoko egitaraua prestatu dute biharko ospakizun egunerako, eta, indartsu hasteko, gosari osasuntsua egongo da Lagun Lekun 09:00etatik aurrera. 10:00etan, Oñatiko Naturazaliak elkarteko kideak eta Ortuzabala ekimenekoek gidatuta, irteera egingo dute; Eltzia inguruan izango da ibilbidea, urruti joan barik.

Haur, gazte eta gurasoendako ekintzak ere prestatu dituzte bihar goizerako; Oinaztu eta Txantxiki taldeak arduratu dira horretaz. Ilunpetan taldeak *photocall*-a eta murala egingo du eta Lizargarate Trikitizale Elkartea, bertso eskola eta Oñatz eguerdiko poteoa girotzen saiatuko dira. Goizean zehar, gainera, zizelkariek, margolariek, 7 Udaberri taldekoek eta Gurutze Gorrikoek erakusketa praktikoa eskainiko dute, azalpenekin. Herri bazkaria 14:30ean izango da eta ondoren, bingo berezia egingo dute Irazaneko lagunekin. 18:00etan hasiko den kontzertuan, herriko talde hauek joko dute: Ixilik, Hydra, Lokuria, Gusb, Ezcore eta Poli-ticks.



Zapaturako kartelak prestatzen aritu dira astean eltzekideak | ELTZIA



O.E.

## Proposamenak udal ordezkariei

Herriko 1.500 ikasle inguruk hartu dute parte eskolako Agenda 21 proiektuan eta mugikortasuna eta osasuna da landu duten gaia. Horri lotuta herrian dauden beharrak identifikatu eta proposamenak egin dizkiete udal ordezkariei, besteak beste: bizikletaren erabilera egokia sustatu, garraio publikoa sendotu eta kutsadura atmosferikoa kontrolatu.

## Urgaintxo txantxikuarekin batera ospatuko dute zapatuan Urgain Eguna

O.E. | OÑATI

Urgaintxo da Urgaineko maskota berria eta berarekin batera egun osoko egitaraua prestatu dute zapaturako, Urgain Eguna ospatzeko. 11:00etan, ibilaldia egingo dute Txiki Txoko, Larraña, Errekalde eta Zuazola eraikinak lotuz; 14:00etan bazkaria dute institutu aurrean eta 16:30etik aurrera, umeendako jolasak, puzgarriak, tailerrak eta DJ festa egongo dira.

Urgain eskolaren eta bertako guraso elkarteen artean antolatu dute eguna, Urgaintxorekin batera, eta herritar guztiei egin gura diete gonbidapena biharko ekitaldietan parte hartzeko.



Urgaintxo umeekin | URGAIN

## Mendian dauden karduak auzolanean kentzeko dei egin dute

Mendietan karduarekin dagoen arazoari aurre egiteko auzolan deialdia egin du udalak biharko, zapatua. Buetraitz eta Artzanburu inguruetako karduak aitzurrekin kentzeko irteera antolatu dute. 08:00etan elkartuko dira Duruko aparkalekuan. Komeni da aurretik izena ematea eta horretarako bideak dira udaletxeko harrera eta *idazkaritza@onati.eus*.

## Oñati abesbatzak urrezko kontzertua egingo du bihar

Oñati abesbatzak urrezko ezteiak bete ditu aurten eta 50. urteurrena ospatzeko kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Santa Anan antzokian, 19:30ean. Imanol Muruak, Loli Ordokik, Miren Gurutze Plazaolak, Aitor Biainek eta Esteban Urtzelaik zuzenduko dute eta urte hauetan esanguratsuak izan diren abestiak eta berriak kantatuko dituzte.

## Ikastetxeak Kantarik domekan bukatuko du aurtengo ikasturtea

Ikastetxeak Kantari egitasmoak domekan egingo duten kontzertuarekin bukatuko du aurtengo ikasturtea. *Sudurgorri kantari* izeneko ikuskizuna egingo dute herriko hiru ikastetxeetako abesbatzek. Emanaldia domekan, ekainak 5, izango da, Santa Anan, 19:00etan. Sarrerak aurrez eros daitezke, hiru eurotan, Txokolateixian.

## 1964an jaiotako oñatiarrek bazkaria egingo dute uztailean

1964an jaio ziren oñatiarrek bazkaria egingo dute datorren hilean. Uztailaren 9rako antolatu dute eta Zumeltzegi dorrean egingo dute. Joan gura duenak 35 euro sartu behar ditu, aurretik, horretarako propio zabaldutako kontu korronte batean. Hauxe da Laboral Kutxan dagoen kontuaren zenbakia: ES8530350170571700030160.

## Jubilatuen bazkarira joateko txartelak astean hartu behar dira

Ekainaren 13tik 19ra Erretiratuaren Astea ospatuko dute Pake Lekun. Antolatu dituzten ekintzen artean, txokolate-jana eta bazkaria daude, eta bai batera zein bestera joateko txartelak datorren astean erosi behar dira. Ekainaren 8an, 9an eta 10ean egongo dira salgai, 18:30etik 20:00etara. Txokolaterakoak euro bat balio du eta bazkarikoak, hamabi.

**Ander Zabaleta** | Dantzaria

# "Dantzari izateari utzi diot, bai, baina dantza ez dut utziko"

Bost urte zituela hasi zen 'Xaba' dantzan ikasten eta 39 urterekin utzi dio dantzari izateari; Corpus jaietan erantzi du gona gorria

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Dantzari izateari utzi dio Ander Zabaleta *Xaba*-k; ez, ordea, dantza. "Irakasle moduan jarraituko dut eta lagundu behar denean ere horretarako prest egongo naiz. Dantza ez dut utziko, ez. Oñatz ere ez".

**Corpusetan utzi duzu, egun inportantean.**

Bai. Corpusek pisua dute, eta askok esan didate egun esanguratsuenean utzi dudala, baina beste edozein ekitalditara ere motibazio eta gogo berarekin joan naiz beti.

**Zenbatgarrenean utzi duzun badakizu?**

Ez, egia esan, ez naiz zenbakizalea eta ez dakit zenbat Corpus jaietan egin dudan dantza. Baina lau kapitainekin egin dudala badakit: Mikel Irizar, Julen Kortabarria, Arkaitz Bengoa eta Iñigo Murgiondo.

**Berezitasunik izan du aurtengoak, azkena izateaz gain?**

Bi eskakizun egin nien Corpusetako dantzak antolatzen dituzten Oñatzeko kideei: domekako ekitaldi guztietan parte hartzea eta egubakoitz arratsaldean ikastetxeetarako bisitan ere dantza egitea. Sekulakoa izan zen hori. Dantzan, eskaladan, bizikletan... arlo askotan ibili naiz umeekin eta asko hunkitu nintzen. Baita domekan ere. Etxekoak ere han ziren, gainera... *Agur jaunak* pieza begiak itxita entzun nuen.

**Nola laburtuko zenuke dantzari egin duzun ibilbide hau?**

Sakrifikatua izan da, batetik. Ordu asko sartu ditut. Baina horren kontrara, momentu on asko eta lagun mordo bat eman dizkit dantzak, eta horrek asko balio du.

**Momentu txarrik pasa duzu?**

Bakarra, Mikel Elortza *Txirli* hil zenekoa. Bestela, dena izan da ona. Oso gustura ibili naiz, oso.

**Anekdotak ere izango dituzu, bada, kontatzeko.**

Bai, baina bereziki hauxe: prozesio egunean kriskitin hotsekin eramaten ditugu santuak parrokiara. Nik askotan hartu ditut San Martinetik eta Bidaurretatik ekartzen dituzten bi, Euskadiko etorbidea zeharkatuz, parrokiaraino eramateko. Anton taberna egon zeneko kantoian *Stop* dioen seinale bat dago eta santuak eramaten dituzten anderoak gelditu egiten dira hor, harik eta dantzariek Arku dantzako *Salto eta buelta* pausoa egin arte. Eta kriskitinak jotzen gelditu gabe. Entseguetan 10 minutura arteko saioak egiten ditugu, baina hor denbora luzeagoan aritzen gara jotzen. Lehen urtean ikasi nuen eta ez zait ahaztuko. Datorren urteko prozesioan kantoian egongo naiz, hori ikusten.



Ander Zabaleta dantzan aurtengo prozesioan, Santa Anatik atera berri. | A.T.

**Buelta gabeko erabakia da?**

Bai. Udako oporretan hartu nuen erabakia. Nire ikasle izandakoek jarraituko dute, eta asko pozten nau horrek.

**Nola bukatu zen Oñatz-parranda?**

Parranda polita izaten da eta hunkituta bukatu nuen. Bide batez, eskerrak eman gura dizkiet urte hauetan aguantatu nautenei.

## Eguraldiaren errespetuarekin

Barrakak, plater tiroketa eta DJ festa bai, baina prozesioa eta arratsaldeko dantzak dira Corpus jaietako ikurrak. Kriskitin hotsekin santuak parrokiara eraman eta ira gainean prozesioa egin meza nagusia bukatzean. Prozesioa plazara heltzearekin bat jausi ziren lehen euri tantak. Baina ez zuen askorik egin, dantzariek kriskitinak bustitzeko adina, eta isilik sartu ziren. Barrakak ere mutu, tradizioa jarraituz. Arratsaldeko dantzetarako atertu zuen.



Santuaren aterpean. | SANTI MENDIOLA



Prozesioak herriguneko kaleak zeharkatu zituen. | AMAIA TXINTXURRETA

NIRE USTEZ



ALAZNE GURIDI

## Zertarako isildu?

Arantzazuko Basilika eta Gandiaga Topagunearen artean, isiltasunerako gune txiki bat daukagu, Misterioa deitzen dena. Gune honek, besteak beste, isiltasuna beharrezkoa dugula adierazten digu eta hartarako deia egiten. Zertarako isiltasuna, ordea?

Inguratzen gaituenari soinua eta irudia kentzen dizkiogunean, kanpotik datozkigun mezuak une batez itxarongelan uzten ditugunean, isiltasuna presente egiten zaigu. Eta kanpokoa isilduta, gure begiek eta belarriek barrurako bidea hartzen dute. Pauso garrantzitsua hau, norberaren burua gehiago ezagutzeko.

Eta behin barrura sartuta, kanpokoa bezain nahasia eta zaratatsua den errealitatearekin topo egiten dugu sarri. Ideiak eta kontzeptuak sortzeko makina beti martxan dagoela dirudi, eta ardura eta minek ere konponbidea ozen aldarrikatzen dute. Barruko atseden eta isiltasunaren giltza baina, geure barruarekin eta bizi dugunarekin adiskidеturik bizitzea izan daiteke. Benetan jakintsua ez baita asko dakiena, bizitzen dakiena baizik.

Honen harira, *Jesus ben Sirak-en jakinduria* liburutik hauxe azpimarratuko nuke: "Jakinduria maitatzea bizia maitatzea da, haren bila lehiatzen direnak pozez beteko dira. Landu ezazu laborariak lurra lantzen eta ereiten duen bezala, eta egon gero fruitu gozoen zain...". Isiltasunaren laborari.

## Uraren ibilbidea eta Aizkorriko gailurreria, Aloña Mendirekin

Aloña Mendiko mendi sailak bi irteera egingo ditu ekainean. Uraren ibilbidea ekainaren 11n gidatuko du, Mankomunitateak antolatutako Bidezidorren Jaialdiaren barruan. 09:00etan abiatuko dira Araotzeko elizatik. Bigarren irteera Aizkorriko gailurreria izango da, ekainaren 12an. Arantzazuko Turismo Bulegoaren aurrean elkartuko dira, 07:30ean.

## Vice Presidentes, Lokuria eta Mice gaztetxean izango dira

Antixena gaztetxean bi kontzertu antolatu dituzte ekainerako. Hilaren 9an, adibidez, Occhi di Farfalla laukote akustikoak eta Miren Narbaizak, Mice-k, joko dute, 21:00etan; sarrera, lau euro. Ekainaren 25ean, berriz, Gasteiztik etorriko den Vice Presidentes hirukoteak eta Lokuria talde oñatiarrak joko dute, 22:00etan; sarrerak hiru euro balioko du.




**Deskontu bereziak:**
- Astearteetan, gizonezkoentzat
- Asteazkenetan, %20 deskontua emakumeentzat.
- Egunero, 20 urtetik beherakoentzat

WALESKA MAGER
Ile apaindegia

**Larunbat arratsaldeetan zabalik**

Errementari plaza 1. Oñati
Tel.: 943 03 91 70 – 605 72 64 43


TXANTXIKU IKASTOLA

**TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**GAI ZERRENDA**

**EGUNA:** EKAINAREN 21a, MARTITZENA.
**ORDUA:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.
**LEKUA:** Santa Ana antzokia

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2015/2016 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea eta, badagokio, onartzea.
3. 2015 ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2015 urteko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2016 urteko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. Kilometroetako Gure Zozketa txartelen gaineko hausnarketa egitea eta, badagokio, onartzea.
7. 2016/2017 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea eta, badagokio, onartzea.
8. Gurasoen Kontseiluaren eta Eskola Kirola batzordearen berri ematea.
9. Kontseilu Errektoreko eta Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
10. Galde-eskeak.

OHARRA:
Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

Oñatin, 2016ko ekainaren 3an


Eguaztenean jokatu ziren lehenengo partiduak. | ENEKO AZURMENDI

# Abian da dagoeneko Herriko Pilota Txapelketa, parte hartze handiarekin

Mutiletan 43 arituko dira eta nesketan sei; iaz 29 bikote aritu ziren guztira

**ENEKO AZURMENDI** | OÑATI

Eguaztenean eman zitzaion hasiera Herriko Pilota Txapelketari, plazako frontoian.

Txosna batzordeak eta Aloña Mendiko pilota sailak antolatuta, iaz jokatu zen lehenengo edizioa, formatu berriarekin.

Iaz, 29 bikotek hartu zuten parte, eta antolatzaileek ez zuten espero aurten hainbeste bikote egongo zirenik. Izan ere, gizonezkoetan 43 bikote arituko dira eta emakumezkoetan, berriz, sei. "Iazko kopurua gainditzea espero genuen, baina hainbeste ez. Iaz abuztuan atsedenaldia egin genuen eta aurten ez dakit egin ahalko dugun, partidu asko daude jokatzeko", dio Jon Romaratezabalak, antolakuntzako kideak.

Txapelketaren lehen fasea ligaxka moduan izango da. Mutiletan bost bikotez osatutako hainbat ligaxka egingo dituzte eta nesketan, berriz, izena eman duten sei bikoteek ligaxka bakarra osatuko dute. Izan ere, helburua da bikoteek partidu bat baino gehiago jokatzea.

Oraingoz, astean lau egunetan jokatuko dira partiduak, 18:00etan: astelehenetan, martitzenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan. "Denboraz larri bagabiltza, zapatuetan ere jokatu beharko dira partidu batzuk, eta, datorren urtera begira, maiatzean hastea ez dugu baztertzen, parte-hartzaile kopurua handitu egingo da eta", nabarmendu du Romaratezabalak.

Finala irailean izango da, San Migel jaietan, aurretik herri bazkaria egin ostean.

**Irabazleak, sari ederra**

Txapelketako irabazleek lau t'erdiko finalerako sarrera batzuk irabaziko dituzte, txapelarekin batera.

Gotzon Urtzelai | Aloña Mendiko entrenatzaile berria

# "Ezustean harrapatu ninduen eskaintzak, baina oso pozik nago"

Bergararrak gogoz hartu du Aloña Mendiko futbol taldeko entrenatzaile izateko erronka

**ENEKO AZURMENDI** | OÑATI

Urte eta erdi entrenatzaile moduan hezten ibili ostean, Aloña Mendi entrenatzeko aukera suertatu zaio. Julen Barrena eta Endika Ruiz koordinatzaile berriek bergarararraren aldeko apustua egin dute aulkirako.

**Nola sentitzen zara?**

Ezustean harrapatu ninduen eskaintzak, baina oso pozik nago. Oso itxura oneko proiektua jarri zidaten mahai gainean eta ez nuen askorik pentsatu baiezkoa emateko. Ruiz eta Barrena ere hasiberriak dira lan honetan, baina gauzak ondo egin nahi dituzte eta horrek lanerako gogo handia ematen dit.

**Nola ikusten duzu taldea? Jokalariak ezagutzen dituzu?**

Bistaz guztiak ezagutzen ditut eta bakoitzaren jokatzeko modua ere bai, gutxi gorabehera. Hala ere, pertsona moduan ezagutzea eta haiek ni ere ondo ezagutzea garrantzitsua da. Baina hori denbora aurrera joan ahala etortzen den zerbait da.

**Entrenatzaile moduan esperientzia ere badaukazu, ezta?**

Bai. Arrasaten eta Aretxabaletan egon nintzen eta harrobia ere landu nuen azken horretan. Hala ere, kategoria honetan entrenatuko dudan lehen aldia izango da.


Gotzon Urtzelai. | GOIENA

**Orain, gainera, Mondra eta UDA zuen maila berean egongo dira.**

Hala da, eta oso albiste pozgarria da hori bailararentzat. Derbiak egotea beti da positiboa, jokalarientzat zein zaleentzat.

**Zer eskaini diezaiokezu taldeari?**

Barneko balioak, entrenamenduetarako nortasuna, motibazioa eta konstantzia. Izan ere, oso zaila da izaten da urte osoan intentsitatea mantentzea, batez ere, emaitzak txarrak direnean. Beraz, nire ekarpena hori izan daiteke.

**Zein izango da helburua?**

Ez dut uste bosgarren, seigarren edo hamargarren egiteaz hitz egin behar denik. Nire ustez, helburua izango da eguneroko lana eta ilusioa mantentzea eta konstanteak izatea.


ARATZ LOSADA

## LEK Arrasate txapeldun

Areto futboleko infantil mailako I. Oñati Saria jokatu zen pasa den asteburuan Zubikoa kiroldegian. Bailarako hiru talde aritu ziren nor baino nor gehiago, hiruko txapelketan: LEK Arrasate, Arizmendi eta Aloña Mendi. Arizmendik bi partiduak galdu ostean, LEKen eta Aloñaren arteko partiduan erabaki zen garailea. 1-3 irabazi zuten arrasatearrek.

# Eskubaloiari lotutako ekintzaz betetako astea izango da datorrena

Juan Carlos Elorza zenaren gaineko solasaldi batez gain, trebakuntza jardunaldiak ere izango dira kultura etxean, hainbat hitzaldiz osatuta

**ENEKO AZURMENDI** | OÑATI

Euskal Eskubaloi Federazioak antolatuta, datorren astean hainbat solasaldi eta hitzaldi izango dira kultura etxean.

Hasteko, ekainaren 7an, Juan Carlos Elorza zena oroitzeko, *Gara* eta *Egin* egunkarietan bere lankide izandako kazetariek solasaldi moduko bat eskainiko dute bertara gerturatzen direnekin batera. *Juan Carlos Elorzaren ekarria Gara eta Egin egunkarietan* izena du solasaldiak. Kultur etxean izango da, 19:00etan.

Trebakuntza jardunaldiei dagokienez, aurkezpena ekainaren 10ean, egubakoitza, izango da, kultura etxean, 16:45ean. Juan Luis Amedillok eta Jose Manuel Ruiz de Cenzanok emango diete hasiera jardunaldiei. Segidan, 17:00etan, Unai Arrietak hitzaldia eskainiko du, *Entrenatzailea eta lesioen alde psikologikoak* izenekoa.

Ekainaren 11 ere bi hauen aurkezpenarekin hasiko da, 09:15ean. Ostean, 09:30ean, *Aisialdia eta haurtzaroko okupazio espaziala* hitzaldia emango du Juan Antonio Morenok. Ondoren, Reyes Carrerek beste hitzaldi bat eskainiko du, *Haurtzaroko sakontasun defentsiboaren garrantzia*. Azkenik, 13:00etan, *Haurtzarorako lan proposamena* hitzaldia emango dute Miguel Angel Izquierdok, Garikoitz Garagarzak eta Hugo Sanchezek. Jardunaldi hauetan izena emateko, Federazioko webgunean dagoen inprimaki bat bete beharko da. Osi Kirolak dendan ere eskuratu ahal izango da informazioa.


Juan Carlos Elorza. | ARGAZKI PRESS

**Aitor Billar, selekzioarekin**

Euskadiko eta Egiptoko 21 urtez azpiko selekzioek ekainaren 10ean, egubakoitza, jokatuko duten partidurako deitu dute Aitor Billar jokalari oñatiarra.

# 7x7 ekimena dator, kultura kalera atera guran

## Dantzak, antzerkiak eta musikak bat egingo dute sei gunetan; besteak beste, komentuko lorategian

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hirugarrenez dator 7x7 ekimena. Kultura Sailak antolatuta, oraingoan ere zazpi kultura ekitaldi izango dira ekainean zehar, herriko hainbat gunetan. "Iritsi ohi ez garen tokietara kultura ekitaldiak eramatea da helburua, eta, orain arte harrera bikaina izan duenez, errepikatu egingo dugu", jakinarazi du Inma Miguelek, Kultura teknikariak, eta gaineratu: "Familia giroko ekitaldiak izango dira gehienak, pailazoak umeendako eta musika helduendako, esaterako".

**Banda komentuko lorategian**

Gaur, ekainak 3, Jaikik jarriko du abian ekimena. Elkarteko ikasleek, batetik, eta Izaskun Lapaza eta Marina Scotto dantzariek, bestetik, eskainiko dute, Durana kalean, 19:00etan, *Hau izaki bitxia*.

Eguaztenean, ostera, Kiki eta Koko pailazoen txanda izango da Iralabarri plazan; eta eguenean, ipuin kontaketa egingo du Gorka Olazabalek, hainbat txotxongilok lagun eginda, Gipuzkoa plazan. Herriko musikariek ere izango dute lekua. Bandak, esaterako, komentuko lorategian joko du ekainaren 10ean, egubakoitza, eta musika eskolako gitarra taldeek hilaren 15ean, Herriko Plazan.

**Uztailean antzezlanak**

Uztailean ere izango du kulturak lekua Aretxabaletako kaleetan. "Eguaztenetan antzezlanak izango ditugu, beste urte batzuetan legez, eta ipuin kontaketak ere bai. Auto telegidatuen erakustaldia ere egongo da; hortaz, kulturaz gainezka dator uda", adierazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

### EGITARAUA

**EKAINAK 3**
**Zer:** Dantza: *Hau izaki bitxia*.
**Zein:** Jaiki elkarteko ikasleak. Izaskun Lapaza eta Marina Scotto.
**Non:** Durana kalea.

**EKAINAK 8**
**Zer:** Antzerkia: *Kiki eta Koko pailazoak*.
**Zein:** Azkona taldea.
**Non:** Iralabarri plaza.

**EKAINAK 9**
**Zer:** Ipuin kontaketa.
**Zein:** Gorka Olazabal, *Apaxi*.
**Non:** Gipuzkoa plaza.

**EKAINAK 10**
**Zer:** Musika.
**Zein:** Musika eskolako banda.
**Non:** Komentuko lorategia.

**EKAINAK 15**
**Zer:** Musika.
**Zein:** Gitarra eta konbo taldeak.
**Non:** Herriko Plaza.

**EKAINAK 17**
**Zer:** Antzerkia.
**Zein:** Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
**Non:** Herriko Plaza.

**EKAINAK 22**
**Zer:** Antzerkia: *Bolaluma*
**Zein:** Kixka antzerki taldea.
**Non:** Santa Kurtzeko plaza.

Ekitaldi guztiak dira 19:00etan.



*Apaxi* ipuin kontalaria txotxongiloak inguruan dituela. | GORKA OLAZABAL



Agustindarren etxeko telefonoguneko aparailuak. | ARETXABALETAKO UDALA

# Komentu barrura sartu dira hainbat lagun

## Salaketa jarri du Udalak eta Ertzaintzaren ardurapean dago horren gaineko ikerketa

M.A. | ARETXABALETA

Joan den astean agustindarren komentu barrura sartu ziren hainbat lagun bi leiho apurtuta. Udalak ertzainei eman zien horren berri eta salaketa jarri du: "Barruan gauza gutxi dago, komentua hutsik utzi zutelako mojek, baina sarreran dagoen telefonogunean aparailuak apurtu zituzten; baita barruan dauden lau gauza alde batetik bestera mugitu ere. Lehenengo solairuko besaulki bat, adibidez, sotoan agertu da", jakinarazi du Unai Elkorok, alkateak. Ertzaintzaren ardurapean dago orain ikerketa.

**Errespetu eskaera**

Udal arduradunek adierazi nahi dute "aretxabaletar guztiendako" dela komentua, eta helburu horrekin erabaki dutela lorategia herritarrei zabaltzea: "Herritar guztiak dira ongietorriak inguru bikain horretara, baina eraikinaren erabilera bideratzen den bitartean errespetuz jokatzea eskatzen dugu. Guztiona dena zaindu beharra daukagu", dio alkateak.

## Javi Lazkanok hiru ordu ditu Aretxartek emandako 500 euroko bonua erabiltzeko

M.A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak 500 euroko bonua zozketatu du astean, eta horren irabazlea izan da Javi Lazkano aretxabaletarra. Zapatu goizean, 10:00etatik 13:00etara bitartean, erabili beharko du bonu hori merkatarien elkarteko edozein komertziotan. Gura duen erosketa egiteko aukera izango du Lazkanok, Aretxartek dituen 60 denden artean.



Javi Lazkano sariarekin. | ARETXARTE

## Sei bikotek jardungo dute nor baino nor gehiago bihar, 24 orduko binakako frontenis txapelketan

UDAk antolatuta, 24 orduko binakako txapelketa jokatuko dute bihar, ekainak 4, Iturrigorri pilotalekuan. 09:00etan hasita, sei bikote izango dira kantxan. Lehenengo finalaurrekoa 13:30ean jokatuko dute eta bigarrena, 14:15ean. Finala, ostera, 15:30ean izango da. Martxoaz geroztik ospatzen dabilen 70. urteurrena aitzakia hartuta antolatu du UDAk txapelketa.

## Burgosera doaz erretiratuak ekainaren 28an, besteak beste, Atapuercako aztarnategia ezagutzera

Atapuercako aztarnategia eta Burgos hiria bisitatuko dituzte erretiratuek datorren ekainaren 28an. Azofra hotelean bazkalduko dute, eta menua honako hau izango da: gaztela-zopa, entsalada, bildotsa, tarta eta kafea. Izen-emate epea zabalik dago hilaren 17a arte; horretarako, Basotxotik pasatu behar da (11:00-12:00). Prezioa da 45 euro bazkideendako eta 55 euro gainerakoendako.

# Emanaldi dotoreak ikasleen eskutik

Emanaldi dotoreak eskaintzen jarraitzen dute Leizarra musika eskolako ikasleek. Astean, gitarra eta perkusio doinuak izan dira Arkupen, eta hurrengo martitzenean, hilaren 7an, piano-joleen txanda izango da.

Ekainaren 14an, ostera, ikasturte bukaerako jaia eskainiko dute, 19:30ean, Herriko Plazan.



MIRARI ALTUBE

**Iñaki San Migel** | Murrukixo mendizale elkarteko presidentea

# "Parajeekin gozatzeko, lasai joatea da kontua"

- Mendi martxa egingo du Murrukixok domekan, bederatzigarrenez
- Ia 27 kilometro dituen ibilbidean erabiliko dituzte ezagunak ez diren bideak

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Bederatzigarrenez antolatu du Murrukixo mendizale elkarteak mendi martxa. Domekan egingo dute, ekainak 5; 07:00etan da irteera, Herriko Plazan, eta izena bertan eman ahal izango da 10 euro ordainduta (aurrez emateko helbidea: *murrukixo@outlook.com*).

**Zelakoa da aurten zehaztu duzuen ibilbidea?**

Plazatik irtenda Urkulura joko dugu eta handik Ugastegira, baina pista hartu beharrean bide zaharra hartuta. Ugastegiko ermitan hamarretakoa egongo da (8. kilometroa) eta indarrak hartuta Degurixarantz egingo dugu pago artetik, Zaraia mendizerrari itzuliko bideari jarraituta. Degurixa gurutzatu eta Leixargaratera joango gara Alabitako txabola artetik pasatuta. Leixargaraten bigarren hamarretakoa egongo da (16. kilometroa), eta handik Kurtzebarrira eginez, Aretxabaletara jaitsi. Guztira dira ia 27 kilometro.

**Zein zailtasun dauka?**

Mendian ibiltzen denak ez du inolako zailtasunik izango. Orain dela bi urtekoak aldapa handi bat zeukan hasieran; aurtengoa ez da hain gogorra. Eta behin gora igota, gainerakoak ez dauka zailtasunik, joan egin behar.

**Zatirik gogorrena zein dela esango zenuke?**

Eguraldiak baldintzatuko du hori. Ugastegira doan bide zaharrean errekatxo bat pasatu behar da, euria eginez gero labainkor egon daiteke inguru hori... Eta Basobaltz izeneko pagadian bidea topatzea ez da samurra; hortaz, ondo seinaleztatu beharko dugu, inor ez dadin galdu; izan ere, despistaturen bat beti egoten da... Eguraldi oso txarra eginez gero, seguru asko ibilbidearen tarteren bat edo beste aldatu egingo dugu.

**Zalantzarik gabe, ibilbide polita izango da, ezta?**

Bai, horixe. Degurixa berez da paraje polita, eta ibilbidearen zati handi bat, gainera, pagadi artean egingo dugunez, ederra izango da. Hori bai, kontua da lasai joatea inguru dotore horrekin guztiarekin gozatu ahal izateko... Eta ez korrikan, nondik pasatu diren ere ez dute jakiten gero lasterkari horiek.

**Zenbat lagun espero dituzue domekan irteera-gunean?**

Ez dakit, 200 lagunen bueltan ibili izan gara, 100 inguruan ere bai... Eguraldiak zeresan handia du horretan ere. Eguraldi onarekin, zalantza barik, gehiago gerturatuko dira.

**Etorri izan direnek beti gustura egin izan dute, ezta?**

Bai, bai; sekula ibili gabeko leku batetik pasatu izan direlako, ordura arte zapaldu gabeko tontor bat edo bide bat ezagutu dutelako... Gure helburua hain zuzen hori ere bada, bide zaharrak berreskuratzea eta herritarrei ezagutzera ematea galdu aurretik.

**Mendirako zaletasuna gero eta handiagoa da, ezta?**

Bai, hala da; mendi martxak, mendi lasterketak... Baina 30 kilometrotik beherako probak askok ez dituzte gura izaten. Gu, ostera, proba herrikoien aldekoak gara.

**Bi urtean behin antolatzen duzue martxa; hurrengoa hamargarrena...**

Bai, hala da; eta handik aurrerakoak ikusi egin behar... Ardura handia da, antolaketa lan asko, burukomin ugari... Egia da laguntzaile asko izaten ditudala inguruan, baina ardura gehientsuena neuk daroat, eta benetan nekagarria da.



Iñaki San Migel. | GOIENA

**"Eguraldiak zeresana izango du; oso txarra eginez gero, tarte bat aldatu egingo dugu"**

**"30 kilometrotik beherako mendi martxarik ez dute egin gura askok"**



Basotxoko eta Erguingo dantzariak plazan, martitzenean. | MIRARI ALTUBE

# Dantza Asteak zapore gozoa utzi du herrian

**M.A.** | ARETXABALETA

Dantzan egiteko aukera eskaini die herritarrei Dantza Asteak. Hain zuzen horixe izan da antolatzaileen helburua: "Dantza kalera atera gura izan dugu. Gehienok dugu gustuko dantzan egitea; batzuei gehiago kostatzen zaigu eta beste batzuei gutxiago, baina kalera atera eta gozatzeko egunak antolatu gura izan ditugu", jakinarazi du Jaiki elkarteko kide Maier Etxebarriak. Udalaren eta beste hainbat elkarteren laguntzarekin antolatu dute.

**Antolatzaileak pozik**

Zapatua izan zen egun nagusia, eta herritarrei bereziki eman zien atentzioa dantza integratu ikuskizunak; muga fisiko zein psikikorik ez dagoela erakutsi zuten dantzariek.

Egunotan, ostera, herritarrak izan dira dantzariak: Basotxoko erretiratuak, Arrasateko Erguindik etorritakoak eta tango taldekoak, besteak beste. Herriko Plaza bete egin zuten.

Antolatzaileak pozik agertu dira asteak eman duenarekin. "Antolatze kontuek lana ematen dute eta ardura ere bada, baina merezi izan du", adierazi du Etxebarriak, eta gaineratu: "Zapatuan izugarri gozatu genuen guztiok; egun borobila izan zen. Aste barrukoa lasaiagoa izan da, baina izugarrizko partaidetza egon da, eta pozik bukatu dugu guztiok".



M.A.

## Haurrak protagonista eskolan

Haurrei eskaini gura izan diete astea Kurtzebarri eskolako kideek, 2 eta 5 urte artekoei hain zuzen ere. Dantzan egin dute batzuek, *Mugi mugi*, *Fama* eta *Mamma Mia* besteak beste; eta abestu besteek, *Aldapeko*, *Simamaka*... Haurren Asteari atzo eman zioten bukaera 5 urtekoen zirku emanaldiarekin. Orekariak, magoak, pailazoak eta gehiago elkartu ziren Zirku Mundiala eskaintzeko.



M.A.

## Kadeteek agurtu dute denboraldia

Azken urteotan legez, gurasoekin partidua jokatuta eta elkarrekin bazkalduta esan diote agur denboraldiari Arizmendi kirol elkarteko kadeteek. Ibarra futbol zelaian elkartu ziren, domekan, eta, emaitzari inolako garrantzirik eman gabe, lagunartean eta giro ezin hobean jardun zuten futbolean. Era berean, emakumeen kirolarekin —oraingoan, futbolarekin— bat egin gura izan zuten gurasoek, eta taldeari "babes osoa" ematen jarraituko dutela hemendik aurrerako ibilbidean ere.

## Nerea Elustondorekin eta Aitor Sarriegirekin bukatu du ikasturtea Lekaixoka bertso eskolak

Lekaixoka bertso eskolako kideek gaur, ekainak 3, bukatuko dute ikasturtea. Aparteko bi gonbidatu izango dituzte lagun agurrean Nerea Elustondo (Legazpi, 1981) eta Aitor Sarriegi (Beasain, 1976) bertsolariak. Pagaldaixenean elkartuko dira guztiak, 19:30ean, eta herritarrak ere gonbidatu dituzte ekitaldira.

Lekaixoka bertso eskolako kideek, gainera, bat egin dute Gure Esku Dago dinamikarekin, eta horien laguntza izango dute gaur egingo duten ekitaldian.

# Eskoriatzako Ferixiek 20 urteak ospatuko ditu

## Almenen 50. urteurrenarekin bat egingo du feriak, eta, hala, herrian eta ikastolan izango da festa

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Arizmendik antolatuta, Eskoriatzako Udalaren, herriko komertzioen, elkarteen, eta abarren laguntzarekin, XX. Ferixie izango da zapatuan, eta, aurten, Almeneko 50. urteurrenarekin batera ospatuko da. Goizean, herrian izango da feria, eta herriko zein Euskal Herri osoko baserritar eta artisauak batuko ditu Eskoriatzak. Hainbat ekintza egongo dira goiz osoan zehar eta eguerditik aurrera Almen ikastolako gunean jarraituko du festak.

Etxafuego jaurtiketarekin emango zaio hasiera feriari, eta, ondoren, kalejira egingo da txistulariekin. Postuak berriz 10:00etan irekiko dira, eta, urtero moduan, baserriko produktuak eta elikagaiak, artisautza-lanak, tresneria... izango dira ikusgai eta salgai. Postuak zabaldu eta gutxira txorimalo lehiaketa egingo da, hemeretzigarren aldiz. 11:00etan, haur eta gaztetxoendako tailerrak egongo dira Santa Marina plazan; gero, txistulariekin kalejira egingo da. 12:00etan, Jose Arana herri eskolakoek ikuskizuna eskainiko dute plazan eta Almengo LHkoek, berriz, dantza ikuskizuna. Hauek amaitzean, Eskoriatzako dantza taldearen saioa egingo da herriko plazan, eta 13:15ean, txorimalo lehiaketaren sari banaketa egingo da Jose Arana ikastetxearen aurrean. Sari banaketaren ondoren, errifa zozketa egingo da, 14:00etan, eta herriko feria orduan amaituko da.

### Autobus zerbitzu berezia

Eguerdian, feria amaituta, festak Almengo gunean jarraituko du, herri bazkariarekin, eta, jendea gerturatzeko, autobus zerbitzu berezia da. Hala, festa handirako, feriatik Almenera joateko autobusak egongo dira, Intxaurtxueta auzotik irtenda, 11:30etatik 14:30etara, ordu erdian behin.

Bestalde, gaurko 14:00etatik biharko 16:00ak arte, bidea itxita egongo da Gaztañadui kaleko 15. zenbakitik Aranburuzabala kaleko 12.era.

### Almengo festa handia

Almen ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko, Almen gunean hainbat ekintza izango dira egun osoan zehar: *zumba* herrikoia, bertso saioa Jon Sarasuaren, Jon Maiaren, Amets Arzallusen eta Jokin Labaienen eskutik, kirol ekintzak musikaz girotuta, txosnak egunean zehar gazte eta helduentzat jateko eta edatekoarekin, Torrebasoko igoera haur gazte eta helduentzat taldeka...

Eguerdian, aldiz, bazkaria egingo da, 14:30ean, eta aukera ezberdinak egongo dira horretarako: txosnetan ogitartekoak janda, etxetik eramanda bazkaltzeko gunean, edo kiroldegian egingo den bazkarian. 16:00etan, haurrentzat jolas bereziak egingo dira, eta, hauekin batera, kontzertuez gozatzeko aukera izango da: ikasleenak, Screamers & Sinners taldearena eta Akerbeltz erromeria taldeak eskainitakoak.

### Meza zapatuan

Almengo hildako partaide (guraso, ikasle, irakasle, langile eta kolaboratzaile) guztien oroimenez meza izango da Gatzagako Dorletako santutegian.

Zapatuan 10:30etan izango da, eta meza Iñaki Sarasuak emango du. Bertan izango da Aretxabaletako abesbatza ere. Hala, bertaratzeko gonbidapena egin dute Almendik.



Iaz, Eskoriatzako ferian herritarrak postu artean. | IMANOL SORIANO

# Zapatista Astea ekintza ugarirekin dator aurten ere

## Ekainaren 6tik 11ra bitartean ospatuko da

I.B | ESKORIATZA

Kontzientziak pizteko eta beste mundu bat posible dela adierazteko, aurten ere Zapatista Astea prestatu du Chiapasen aldeko EskoZap taldeak.

Jai honek hamasei urte beteko ditu aurten, eta, urtero moduan, ekintza ezberdin ugari izango dira herrian; besteak beste, hitzaldiak, musika, erakusketak eta tailerrak. Oihana Irazu Aste Zapatistako antolatzaileetako baten esanetan: "Adin tarte guztietarako ekintzak egongo dira aste osoan zehar: haurrentzat, nagusientzat... hala, gonbidapena luzatzen dugu jendea bertaratu dadin". Aste Zapatistaren bitartez, herrialde hartako kulturaren zatitxo bat herrira iristea dute helburu antolatzaileek, eta, horretarako, urtero legez, zapatuan etxeko janari mexikarra dastatzeko aukera paregabea egongo da plazan.

### Zapatua, egun handia

Bazkari mexikarraz gain, Rosa Sanchez kantautorearekin, Abraham Arzate mexikarraren *clown* ikuskizunarekin eta Aldo Mila Trio hirukotearen musika brasildarrarekin gozatzeko aukera izango da.

### ASTE ZAPATISTAKO EGITARAUA

**ASTELEHENA, 6 (KULTURA ETXEAN)**

**16:30** Sukaldaritza begetariano tailerra eta dastaketa Haritz Bediaren eskutik.

**19:00** Rakel Perez de Arenaza baserritarrarekin *Gaixotasun kronikoak eta gure bizimodua* mahai ingurua.

**MARTITZENA, 7 (PLAZAN)**

**18:00** *Ilargi berdea oreka eta akrobazia* tailerra Ibai Egiaren eskutik.

**20:00** Gazta porra.

**EGUAZTENA, 8 (KULTURA ETXEAN)**

**19:00** *Brigadas Internacionales en Chiapas. El EZLN y la participación social civil* hitzaldia eta mahai ingurua Txiapasekiko Elkartasun Plataforma eta Lumaltik–ek.

**EGUENA, 9 (PLAZAN)**

**17:30** Jose Arana Egoitzakoekin Udaberri paseoa egingo da, eta ondoren, Alaitzen taldearen eskutik kanta mexikarrak.

**EGUBAKOITZA, 10 (PLAZAN)**

**11:30** Hitzaldia: *Beste mundu bat posible delako.* (Luis Ezeizan).

**17:00** Piñata mexikarrak.

**19:00** Puxikekin Irri Barre.

**ZAPATUA, 11 (PLAZAN)**

**10:00** Txupinazoa.

**12:30** Txalapartariak eta; Eskuernagako Kaxkabar dantza taldea.

**14:30** Herri bazkari mexikarra. Rosa Sanchez kantautorea eta Abraham Arzate *clown*–a.

**18:00** Musika brasildarra. Aldo Mila Trio.

**ASTEAN ZEHAR**

- Etxeko tako mexikarrak.
- Victor errementariaren *Forjando sueños*.
- Erakusketa: *Emakumeen lege iraultzailea* eta Mikel Blasko argazkilariaren *Los Americanos*. (18:30–20:30)
- Lehiaketa; *Lur Planetaren etorkizuna zuretzat da*. LH–5 eta 6ko ikasleentzat.

## Jose Arana ikastolakoak, modulu aurrefabrikatuetara

Arizmendi Ikastolako Jose Aranakoak modulu aurrefabrikatuetara joango dira, beraien egoitzan obrak egingo dituztelako. Lan hauek egitearen helburua da eraldaketa pedagogikoa egitea; arkitektura aldaketa bat eginez, espazio zabalagoa jarrita, umeen beharrak hobeto errespetatzeko. Uztailaren 4an hasiko dira lanak eta hilaren amaiera aldera joango dira Huhezi Unibertsitateko Dorleta eraikinaren ondoko zelaira, obrak bukatu bitartean. Gela aurrefabrikatuak hasi dira dagoeneko deskargatzen, eta, guztira, 130 bat ume eta 13 irakasle joango dira bertara.



Hasi dira modulu aurrefabrikatuak jartzen. | I.B

## 'La caja tonta' antzezlana taularatuko du Ausartak taldeak

Eskoriatzako Ausartak antzerki taldeak *La caja tonta* antzezlana eskainiko du zapatuan. Emanaldia gazteleraz izango da, Zaldibar antzokian, eta bi saio eskainiko dituzte: 20:00etan lehena –sarrera guztiak agortuak daude– eta 22:00etan bigarrena. Sarrerak hiru eurotan lortu daitezke, leihatilan bertan edo aldez aurretik Manuel Muñoz kiroldegian erosita.

KING
ILE APAINDEGIA
Gizonezkoen ile-apaindegia **saltzen da**, erretiroagatik.
Tel.: 943 71 31 72
Eskoriatza

# Miren Oianguren: "Baserriaren egoera zein den aztertuko dugu"

Antzuolan, oraingoz, bederatzi dira lehen sektoretik bizi diren baserritarrak

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Antzuolako Udalak abian jarri du Landa Garapeneko proiektua. "Antzuolako baserritarren eta basoen gaur egungo eta etorkizuneko erronken hausnarketa egingo dugu", azaldu du proiektuaren dinamizatzaile Miren Oiangurenek.

Baina zein da Antzuolako lehen sektorearen egoera? "%1ek baino gutxiagok jarduten du lehen sektorean; bigarren eta hirugarren sektoreekin alderatuz, desoreka dago. Dedikazio osoz lan egiten duten bederatzi baserritar daude, oraingoz. Hala ere, 90 baserri inguru daude baserritar mistoz osatuta; hau da, soldatapeko lana dute bestelako sektore batean; gero, baserriko lanei heltzen diete, baina. Horrez gain, basoen hausnarketa ere egingo dugu. Izan ere, lur asko etxeak egiteko edo industriarendako izan direnez, lehen sektorean eragin negatiboa izan du". Belaunaldi aldaketa ere aztertuko dute. "Egun, baserriak duen arazo larriena belaunaldi aldaketa da".


Miren Oianguren, Lapatza baserrian. | MAIDER ARREGI

### Helburua

Lehen sektorea berpiztea, bultzatzea eta indartzea dela helburu nagusia dio Oiangurenek.

### Sektoreen arteko sinergia

Sinergia positiboa beharrezkoa dela azpimarratu du oñatiarrak. "Eragile bakarra ez da lehen sektorea, denen artean bultzatu behar dugu baserria". Hau da, herritarren eta bigarren eta hirugarren sektoreen arteko elkarlana eta sinergia ona bultzatzea ezinbestekoa dela azpimarratu du.

"Lehen fasean, Antzuolaren diagnosia egingo dugu, eta bertako baserrien egoera aztertu (aktibo dauden, zein den ekoizpena, bizi duten egoera); gero, industria arloaz elkarrizketak izango ditugu. Modu horretan, bertako jangeletan tokiko elikadura sistema bultzatu gurako genuke. Lurjabeen egoera eta arazoak ere aztertuko genituzke elkarlana bultzatzeko".

Antzuolako gazteriaren egungo egoerari ere erreparatuko diote lehen fase honetan. "Gazteen asmoak, zein formazio duten eta zeintzuk diren euren nahiak aztertuko ditugu. Baserriaren munduan sartu nahi dutenei laguntza eta aholkularitza emanez". Hirugarren sektoreari dagokionez, fruta dendekin edo harategiekin elkarrizketak egin gura dituzte bertako produktua, herriko baserritarrenak bultzatzeko.

Bigarren fasean, proiektuak bideratzea eta errealitate egitea da asmoa. Eta hirugarrenean, egonkortutako proiektu horiek eskualde osora zabaltzea.

### Sei baserritar berri

Momentuz, Debagoienean sei baserritar gaztek egin dute lehen sektorearen aldeko apustua. Eta lau, aldiz, eskaera egiteko bidean daudela dio Oiangurenek.

**DATUA**

**6**

BASERRITAR GAZTE

**Oraingoz, sei baserritar gaztek egin dio Gaztenek programari eskaera Debagoienean. Lau, aldiz, eskaera egiteko bidean.**

# Bertso Dinner ospatuko dute bihar, Irlandan

Euskal Herri osotik joan diren 60 bat lagunek euskal kultura eta historia zabalduko dute

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Dublin eta Belfast artean dagoen eskualdean izango da aurtengo Bertso Dinner. South Armagh eskualdeko Mullaghbawn herrian egingo dute festa, hain justu ere, bihar, ekainak 4.

"60 lagun inguru goaz Euskal Herri osotik; tartean, antzuolarrak. Baina bailarako zenbait herritako ordezkariak ere izango dira Bertso Dinner-en: bergararrak, arrasatearrak eta aretxabaletarrak", kontatu du antolatzaile lanetan dabilen Mikel Aristi antzuolarrak.

### Bertsoak eta musika

Miren Amuriza eta Julio Soto bertsolariek girotuko dute afaria. Eta Petti bakarlariak jarriko dio musika festari. "Helburua da irlandarrei euskal kultura erakustea eta euskaldunok Irlandako kultura eta historia pixka bat gertutik ikustea".



Derryn egin zuteneko Bertso Dinner ospakizuna. | MIKEL ARISTI

### Aldarrikapena

"Aurten, *Free Otegi, free them all* mundu mailako kanpaina eroango dugu". Gaurtik domekara bitartean, makina bat ekintzaz gozatuko dute: Irlandako dantza eta folkloreaz, tradizioaz edo egoera politikoaren gaineko hitzaldiaz. Sinn Fein taldeko ordezkariek ere eskainiko dute solasaldia.

# Auzoko eguna ospatu dute

**Zapatuan, Oñatin izan ziren Antzuolako Auzoko programako kideak hirugarren Auzoko eguna ospatzeko. Mundu osoko hizkuntzen hiztunak batu ziren bertan, euskara zubi-hizkuntza zutela Auzoko ekimenari esker. Jaki-dastatzeak, abesti saioak, taldeko dantzaldia eta gehiago izan ziren bertan.**



PILAR ETXANIZ

## OHARRAK

**DONOSTIARA TXANGOA**

Landatxopek Donostiara txangoa antolatu du ekainaren 15erako. Cristina Enea parkera bisita gidatua egingo dute. Eta nahi duenak Tabakalera bisitatzeko aukera izango du gero. Irteeraren prezioa 32 euro da. Izena emateko azken eguna ekainaren 7a da.

**BISITA GIDATUA**

Antiguako ermitak eta Antzuolako erdiguneak duten historia ezagutzeko aukera izango da bihar, ekainak 4. Antiguako ermitan 12:00etan hasiko da bisita gidatua.

**KRONOIGOERA**

Bihar, ekainak 4, Iralako kronoigoera egingo da, 12:00etan hasita eta Peña Aiastuik antolatuta.

**EKAINAK 5, EGITARAUA**

Domekan, 09:00etan, bozkalekuak irekiko dira; 12:00etan txistularien kalejira eta 14:30ean bazkaria Zurrategin.

## Katuei jaten ez emateko eskatu die Udalak herritarrei

Kalegoi eta Buztinzuriko atarietan Udalak katuei jaten ez emateko oharrak jarri ditu. Izan ere, zenbait bizilagun kexatu egin dira azkenaldian katuak ugaritu egin direlako eta kalteak eragin dituztelako. "Lorategiak eta ortuak kaltetzen dituzte; osasun publikoko arazo bihur daitezke, gaixotasunen eramaile dira-eta", azaldu dute Udaletik.

## Otegiri galderak egiteko aukera izango dute herritarrek

Gaur, ekainak 3, Otegi Arrasateko Uarkape pilotalekuan izango da, 19:00etan. Ekitaldi irekia izango da eta herritarren galderei erantzungo die Otegik. Antzuolako EH Bilduk herritarrei dei egin die parte hartzeko. Hala, antolakuntza lanak errazteko, joan gura dutenek mezu bat idatzi beharko dute *antzuola@ehbildu.eus* helbidera aurrez.

## Aiherra-Antzuola dokumentala ikusgai Goiena telebistan

Ekainaren 8an, eguaztena, *Aiherra-Antzuola Mugak Zubi* dokumentala ikusgai izango da Goiena telebistan, 22:00etan. Bertan, bi herritarren ikuspegitik, 32 urtean indarrean dagoen senidetzea kontatuko da. Grabaketak 2014 bukaeran abiatu zituzten senidetzearen 30. urteurreneko festa abiapuntu hartuta.



Aramaioko udalbatzarra joan den eguenean. | GOIENA

# Legebiltzarreko legeak errespeta ditzala eskatu diote Gobernuari

Aho batez onartu zuen Udalbatzak frackingaren inguruko mozioa

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Frackingaren inguruan herri borondatea errespetatzea eta legebiltzarrak onartutako legeak errespetatzea eskatzen duen mozioa onartu zuten joan den eguenean egindako osoko bilkuran. EH Bilduk eta EAJk bat egin zuten mozioan aurkeztutako puntuetan: Aramaioko Udalbatzak Espainiako Gobernuari exijitzen dio Eusko Legebiltzarrak frackingaren aurka onartutako legearen kontrako helegitea kendu dezala eta euskal instituzioek demokratikoki hartutako erabaki oro errespeta ditzala; Aramaioko udaleko osoko bilkurak salatzen du: behin eta berriro modu sistematikoan Epaitegi konstituzionalean helegiteak aurkeztuz euskaldunon arau ahalmenari egiten dioten urratzea eta horren ondorioz erakunde legegileek emandako Legeen geldiera dakarrena; Aramaioko Udaleko osoko bilkurak zera eskatzen dio Espainiako gobernuari; Gernikako Estatutuak ematen dion arau ahalmenaren haritik, Euskadiko erakunde desberdinek onartutako arauei begirunea izatea; eta, Espainiako gobernuari eta Aramaioko herritarrei mozio honetan onartutakoa jakinaraztea.

**Diru laguntzak eta jai eguna**

Diru laguntzen arloan, azken urteetan egin den moduan, eskola garraio gastuetarako 2016ko diru laguntzak aho batez onartu zituzten osoko bilkuran; eta, euskara ikastea sustatzeko diru laguntzak ere onartu zituzten. Azkenik, 2017ko jai egun ofiziala uztailaren 3a, astelehena, izatea ere onartu zuten egueneko osoko bilkuran.

## Hauteskundeetarako mahaikideak

Astelehenean ezohiko osoko bilkura egin zuten ekainaren 26ko hauteskundeetarako mahaikideak aukeratzeko. Aramaion bi mahai egoten dira: bada, mahai bakoitzeko mahaiburua eta bi kide aukeratu zituzten; baita hiru pertsona horiendako bina ordezko ere. Guztira, 18 lagun aukeratu zituzten zozketa bidez hauteskundeetako mahaikide edo ordezko izateko.

# Odol emaileen eguna Aramaion ospatuko dute, bazkari eta guzti

Txartelak Gasteizko Olagibel anbulatorioan jaso beharko dira hilaren 10era arte, 30 euroren truke

A.E. | ARAMAIO

2016ko Arabako odol emaileen eguna Aramaion ospatuko dute. Ekainaren 19an izango da, domeka. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte; tartean, bazkaria herriko pilotalekuan. Bazkarirako txartelak jaso nahi dituenak elkartearen bulegotik pasa beharko du –Olagibel anbulatorioa, 4. solairua, Gasteiz– hilaren 10a baino lehen.

Egun osoko egitaraua antolatu dute. Gasteiztik irtengo da Aramaiorako autobusa 9:00etan, Jesus Guridi kaletik. Aramaiora heltzen direnean ogitartekoa eta ardoa eskainiko zaie odol-emaileei eta laguntzaileei. Autobus bidaia doan izango da, eta ogitartekoa eta ardoa bazkarirako txartela dutenendako izango da. 11:00etan ohiko batzarra hasiko dute kultura etxean. Gai zerrenda izango da: aurreko batzarraren agiria irakurri eta onartzea; elkarte-buruaren agurra; 2015. urteko txosten ekonomikoa; zuzendaritza batzarreko kideen aurkezpena; galdera-eskeak; batzarraren itxiera, Asparrenako alkatearen eskutik; ezagutza-emanaldia.

**Meza eta bazkaria**

12:00etan meza esango dute San Martin elizan, eta 14:30ean bazkaria izango dute herriko pilotalekuan. Menua izango da: itsaskiz betetako piperrak, otarrainxkak baratxuriarekin, barrengorriak urdaiazpikoarekin; bakailaoa piperradarekin; oilaskoa baratxuriarekin; eta, sorbetea eta goxua, ardoa kafea eta likoreak. Bazkaria 30 euroren truke izango da, eta txartelak hilaren 10era arte har daitezke elkartearen bulegoan.

# "Euskaraz idazteko grina bultzatuta", Txirritola pozik dago

A.E. | ARAMAIO

92 lagunek hartu dute parte Txirritolak antolatu duen literatura lehiaketan. Euskara elkartea "pozik" azaldu da aurtengo lehiaketak izan duen erantzunarekin: 1. eta 6. maila arteko ume eta gaztetxoak zeuden deituta eta, horiez gain, baita helduak ere. "Helburua euskaraz idazteko grina bultzatzea da", eta, hori bete denez, balorazio positiboa egin dute.

**Sari banaketa egin zuten**

Egubakoitz arratsaldean egin zuten sari banaketa kultura etxean; adin guztietako ume eta gurasoak elkartu ziren. Sari banaketaren aurretik *Txarlestrup* lana eskaini zuen Zirika Zirkus taldeak.

## SARITUAK

| | |
|---|---|
| **1. MAILA** | **5. MAILA** |
| 1. *Argiaren indarra* | 1. Sabin Abarrategi |
| **2. MAILA** | 2. Oier Elortondo |
| 1. *Baziren behin Getaria* | **6. MAILA** |
| **3. MAILA** | 1. Lur Ezpeleta |
| 1. Gailur Zubia | 2. Danel Herrarte |
| 2. Eider Vazquez | **NAGUSIAK** |
| **4. MAILA** | 1. Itziar Blazquez |
| 1. Txomin Abarrategi | 2. Maitane Gomez de Segura |
| 2. Ibon Kortabarria | 1. Maddi Abila |



Egubakoitzean egin zuten sari banaketa. | LEIRE KORTABARRIA

## Papargorri abesbatzak zozkatu duen maiatzeko azken otarrearen zenbaki saritua 120 da

Egubakoitzeko zozketako zenbaki saritua 120 izan da. Zenbaki hori duenak herriko produktuekin osatutako otarrea jasoko du. Maiatzean egindako zozketako gainerako sarituak izan dira: Beñat Burgi, Amaia Fernandez eta Miren Errasti. Papargorrik "eskerrak" eman nahi dizkie herritarrei, euren laguntzagatik. "Herriko produktuak gustura" hartu dituztela gaineratu dute.

## Lagun Artean dantza taldeak ekainaren 15ean batzarra egingo du ospakizunak antolatzeko

Lagun Artean dantza taldeak 60. urteurrena ospatuko du aurten: ekitaldi nagusia urriaren 15ean egingo dute. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako: dantza erakustaldia, bazkari herrikoia, erromeria... Dantza taldean ibilitako guztiak daude gonbidatuta ospakizunetan parte hartzera. Ekainaren 15ean, 18:30ean, eskolako gimnasioan batzarra egingo dute entsegu egunak zehaztu eta zer dantzatu erabakitzeko, besteak beste.

## Zuiako Kuadrillak lanik ez duten ekintzaileei diruz laguntzeko programa jarri du abian, beste behin

Lanbidek lanik ez duten eta euren negozioa jartzeari ekin nahi dioten pertsonei zuzendutako laguntzak onartu ditu. Eskualdean, Zuiako kuadrilla da Lanbideren erakunde laguntzailea. Bi laguntza mota daude: batetik, enpresa ideia garatzen laguntzeko, eta bestetik, bideragarritasun plana eginda eta negozio-ideia definitua dutenei zuzenduta daude laguntzak. Ekainaren 15a baino lehen eman behar da izena Zuiako kuadrillan, Murgian.

# Udalbatzak aho batez onartu du iazko gerakina zertara bideratu

Argiteria publikoa berritzeko eta Espaloia garbitzeko erabiliko dute zati bat

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

160.000 euro zertan erabili onartu zuen martitzenean Elgetako udalbatzak. Altxortegiko 120.000 euroko gerakinarekin itxi zuen Udalak 2015a, eta kopuru horri 45.000 euro gehitu dizkiote: aparejadorearen bigarren auzia dela-eta aurreikusita zegoen diru-lerroa, hain zuzen ere. Prozesuaren martxa ikusita Iraitz Lazkano alkateak adierazi du ez dela aurten egin beharreko ordainketa izango.

78.000 euro 2009ko istripuaren kalte-ordaina ordaintzeko izango dira; 66.000 euro argiteria publikoa berritzeko; 10.000 euro Espaloia kafe antzokian garbiketa eta egokitzapen lanak egiteko; 5.000 euro herrian hainbat irisgarritasun lan egiteko; eta 1.000 euro liztor beltza kentzeko kanpainarako. Aurretik datozen bi fakturа ordaintzera ere bideratu dute diru kopuru bat: 2.100 euro skate parkearen konponketa lanetara; eta 1.700 euro euskara ikastaroak egitera. Udalbatzak aho batez hartu du erabakia.

### Argiteria publikoa

Udalak 66.056,37 euro bideratuko ditu argiteria publikoa berritzera. Oposizioak galdetu zuen zergatik ez dagoen Elgetako proiektua Debagoieneko Mankomunitateak bailarako bost udalekin sinatu duen diru laguntza hitzarmenean. Alkateak erantzun zuen ez dela diru laguntza bat baizik eta finantzaketa lerro bat, eta aparejadorearen bigarren auziarekin batera iritsi zela proposamena. Ez sartzea erabaki zutela. "Gutxienez izan behar ziren 300.000 euroko proiektuak eta gurea da gutxi gorabehera 100.000-150.000 eurokoa. Eta itzuli egin behar da hamar urtera %0ko interesarekin. Erabaki behar zenean bai edo ez aparejadorearen bigarren auzia etorri zen eta erabaki genuen ez sartzea, ikustea udaletxearen egoera ekonomikoa zein den eta urtero daukagun diruaren arabera egitasmoa gauzatzen joatea", esan zuen Lazkanok.

### Egokitze lanak Espaloian

Espaloia kafe antzokiarekin lotuta oposizioak egoera zein den jakin nahi izan zuen. Lazkanok azaldu zuen aurreikusi gabeko zeregin berriak agertzen ari direla eta garbiketa lanak egiten soilik onartutako 10.000 euroko diru-lerroaren erdia joango dela. Balio erantsiaren zerga (BEZa) kanpo, 4.400 euroko aurrekontu bat onartu berri dute garbiketa lanetarako. "Gaur beste gauza baten berri izan dugu. Ur beroaren galdarak lauzpabost urte darama azterketa teknikoa egin barik. Ez dabil ondo, garbitu eta konpondu egin behar da eta mantenua egin behar zaio", esan zuen Lazkanok. Alarma sistema ere eguneratu beharra dagoela gaineratu zuen. "Erraz gaindituko dugu 10.000 euroko kopurua".

## Interesgune berria dute Elgetako udal liburutegian: 'Euskal Herriko txokoak'

**KOMUNITATEA GOIENA**
ELGETAKO LIBURUTEGIA | ELGETA

Txoko berria dute Elgetako udal liburutegian. *Euskal Herriko txokoak* du izena eta eskura dute erabiltzaileek. "*Euskal Herriko txokoak* bezala izendatu dugun interesgune berria daukagu Elgetako liburutegian. Gure liburutegiko txoko honetan Euskal Herriko txokoak ezagutzeko aukera eskaintzen diguten hainbat dokumentu batu ditugu", azaltzen dute liburutegitik.

**Aukera zabala**

"Interesguneak, turismo-gidak, mendi liburuak, ibilbide desberdinez ostatutako liburuak... Aukera anitza dago bertan. Liburuak lagun gozatu Euskal Herriko txokoak ezagutuz!".

## FRONTENIS TXAPELKETA

Domeka goizean frontenis txapelketako lau finalerdi jokatuko dituzte udal pilotalekuan: bi emakumezkoen txapelketakoak eta beste bi gizonezkoen txapelketakoak.

| AZKEN EMAITZA | |
|---|---|
| Eneko Maguregi-Andoni Elorza / Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza | 25-11 |

| FINALERDIAK DOMEKAN, EKAINAK 5, 10:00ETAN |
|---|
| Idoia Elkoro-Iratxe Bravo / Miren Argi Zeziaga-Lierni Mendizabal |
| Mireia Rubio-Idoia Serna / Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa |
| Eneko Maguregi-Andoni Elorza / Imanol Albizu-Julen Barrutia |
| Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza / Mikel Arkarazo-Josu Aranzabal |



L.Z.

## Erabakitzeko eskubidea hizpide

Domekan herri galdeketa egingo dute Elgetan ere, eta, Erain Debagoiena Elgetako lantaldeak gonbidatuta, eguaztenean erabakitzeko eskubidearen inguruan egin zuten berba Eider Mendozak, Onintza Enbeitak eta Laura Mintegik. Hogeita hamar bat herritar izan ziren hitzaldian. Elgetako Gure Esku Dago–k jakinarazi du, bestalde, egindako zozketaren zenbaki saritua 522 dela eta ordezkoa 630. Irabazleak ekainaren 11ra arteko epea du saria jasotzeko. Ez bada agertzen, ordezkoari emango zaio.

## OHARRAK

**BOLO TXAPELKETA**
Zapatuan Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia egingo dute Bergarako San Joxepen, 17:00etan. Elgetako bolariak bertan izango dira.

**BISITA LUBAKIETARA**
Domekan Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik abiatuta 10:00etan. Aurrez eman behar da izena: 943 79 64 63 edo 943 71 89 11.

**GARBIGUNE IBILTARIA**
Salbador kaleko plazan izango da, hilaren 8an, 10:00etatik 21:00etara.

**POSTA BIDEZKO BOTOA**
Elgetako EAJk zabalik du ekainaren 26ko hauteskunde orokorretan posta bidezko botoa emateko aukera. Interesatuek hilaren 12ra arteko epea dute. Arduradunak dira Maria Jesus Lete eta Begoña Ardantza.

### Izendatuta ekainaren 26ko hauteskunde egunean mahaian egotera deituak diren herritarrak

Programa informatiko bidez egin zuen Udalak zozketa martitzenean. Mahai burua da Julen Barragues, eta bere ordezkoak Ilune Zenitagoia eta Aitor Arantzeta. Lehenengo bokala da Maialen Arantzeta, eta bere ordezkoak Goizane Ubera eta Emilio Baglietto. Bigarren bokala da Oskar Sarasua, eta bere ordezkoak Maria Dolores Fernandez eta Nerea Alzuaran.

### Gaur, barikua, Asier Kidam mago gazteiztarrak emango dio hasiera Euskarazko Magia Mostrari

Familia osoarendako *1.805* ikuskizunarekin zabalduko du Asier Kidamek Euskarazko Magia Mostra, 20:30ean. Sarrera da sei euro. Bihar, 22:00etan, Tor, Txoborro eta Imano Ituiño magoek egingo dute magia ikuskizuna. Sarrera da hamar euro. Azkenik, domekan, umeendako magia tailerrak egingo ditu Marina Suarezek udaletxeko areto nagusian, 12:00etan. —Ikus 39. orria—

### Xalbadorpe erretiratuen elkarteak ekainaren 12an kobratuko ditu bazkideen urteko kuotak

Kuota da hamar euro, eta zuzendaritza batzordetik jakinarazi dute ekainaren 12an Ozkarbi elkartean izango direla kuotak kobratzen, 11:00etatik 13:00etara. Udalak jakinarazi du, bestalde, zabalik dela ekainaren 16ra arte lehen aldiz Imsersoko bidaietan parte hartu nahi dutenendako izen-emate epea. Argibideetarako, jo Udaleko gizarte zerbitzuetara edo *www.imserso.es* atarira.

LEINTZ GATZAGA

# Aste honetan amaituko da udalekuetan izena emateko epea

**ENEKO AZURMENDI** | LEINTZ GATZAGA

Oraindik izena eman ez dutenek aste hau amaitu baino lehen egin beharko dute. Izan ere, taldea osatzeko, haur kopurua zehazten joatea komeni da. Izena emateko, Gurelekin kontaktuan jarri beharko da, *gatzakogurel@gmail.com* helbidera mezu bat idatzita edo Aitziber Gorosabel Gureleko kideari 665 73 95 49 telefonora deituta.

Aurten, gainera, asteka eman ahal izango da izena, eta, hasiera baten, uztaileko lau astetan egongo dira udalekuak. Hala ere, izena ematen duen haur kopuruaren araberakoa izango da laugarren aste horretan udalekuak egon edo ez.

### Haur ekintzaileak

10-11 urte bitarteko haurrekin bilera bat izan zuen Gurelek eta haien proposamenak kontuan hartuko dituzte udako ekintzak antolatzeko orduan. Proposamen originalak eta bideragarriak direla nabarmendu du Gorosabelek. Mendi irteerak, sukaldaritza tailerrak eta ginkanak izan dira proposamenetako batzuk.

LEINTZ GATZAGA

# Herri bazkaria eta bolo txapelketa egingo da domekan, galdeketaz gain

**ENEKO AZURMENDI** | LEINTZ GATZAGA

Ekainaren 5ean, domeka, Erain Debagoienak antolatutako herri -galdeketa egingo da; euskal estatu independente izatearen gaineko galdeketa, hain zuzen. Egun hori baliatuta, herritarrei parte hartzeko dei egin die Erain Gatzagak, eta, horrez gain, herri bazkaria antolatu du. Irekia izango da hori, ateak edozeinendako egongo dira zabalik.

Bazkaria herriko elkartean izango da eta txartelak Labidea dendan egongo dira salgai.

### Bolo Txapelketa

Bazkariaz gain, arratsaldean bolo txapelketa egongo da, herriko bolatokian.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**ALBERDI MIREIA**
Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

**LAURA ALUTIZ**
Arrasate / Otalora,18 solairuartea 687 97 69 76

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**MIRARI KORTA**
Aramaio / Azkoaga Auzoa 3 / 647 27 31 40

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

**SADHANA YOGA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KIROLA

MENDI BIZIKLETA

# Hiru Haundiak, mendiko bizikletan

▸ Aritz Gordok eta Markel Uriartek joan den zapatuan egin zuten mendi zeharkaldia

▸ 150 kilometro egin zituzten —ia 18 ordu—, Aizkorritik etxera bizikletan itzuli ziren eta



Aritz Gordo eta Markel Uriarte, Gorbeiako tontorrean egindako erretratuan (06:20), eguzkia irtetear zela; Lainoak gainditzen Anboto eta Aizkorri. | ARITZ GORDO



Gorbeiako gurutzearen aurrean. | ARITZ GORDO



Anbotoko tontorra eginda (11:00). | ARITZ GORDO



Aizkorrin *selfie*–a; helburua lortuta. | ARITZ GORDO

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Zapatua. 02:30. Aritz Gordoren eta Markel Uriarteren iratzargailuak ia batera lanean. Begi bat zabalik egin dute lo; aurretik erronka polita daukate: *Gure Hiru Haundiak* izena jarri diote.

Enduro lasterketetako egutegian tartetxo bat hartuta, Gaes Orbea Crew taldeko Markel Uriarte riderra gertu dago. Haritz Gordo argazkilaria, berriz, azken hilabeteetan gogor ibili da entrenatzen, azken urteotan baztertuta izan du-eta mendiko bizikleta: "Markelekin Anbotoko erreportajea egin nuenean, erdizka geratu nintzen; argazki politak egin ahal izan nituen, baina esperientziak ez ninduen erabat bete. Eta hurrengo proiektuan beste modu batean parte hartu gura nuen. Hala, Hiru Haundiak mendiko bizikleta gainean egitea bururatu zitzaigun".

Aurrean zeukaten erronka ez zen makala: jaitsieretarako pentsatuta dauden mendiko bizikletekin 150 kilometroko ibilbidea, eta tartean Gorbeiara, Anbotora eta Aizkorrira igota. Uriarte ohituta dago bizikleta gainean lehiatzera, baina Gordok prestaketa lanak egin behar izan ditu: "Erabat harritu nau Aritzek. Ni ez nago ohituta halako saio luzeetara, enduro lasterketak 4-5 ordukoak izaten dira, eta zalantzak nituen zelan eutsiko ote nion erronkari. Baina Aritz duela hilabete gutxi hasi da entrenatzen, eta bizikletan dabilen edonork badaki zer den halako distantzia bat betetzea, eta, gainera, tontorretara bizikleta bizkar gainean eramanda igotzea".

**Lehenengoa, Gorbeia**

04:00etarako bizikleta gainean zeuden Gordo eta Uriarte: "Pare bat ordu hartu genituen Gorbeiara igotzeko, 06:00etan goian egon gura genuen egunsentia harrapatzeko, baina lasai ibili gura genuen, hor zegoen-eta gakoa, eguna lasai hartzea. Egun osoan, sarritan geratu ginen atseden hartzeko, apur bat jateko... Ordu asko geneuzkan aurretik, eta ezin ginen erritmo azkarretan ibili", dio Gordok. Eta Uriartek gaineratu du: "Gorbeia erraz igo genuen, fresko geunden, eta gogotsu. Tontorrera igo eta zerua garbi zegoen, eta behean lainoa. Hala, Gorbeiako gurutzetik Anboto eta Aizkorri ikusten genituen, eta inpresioa ematen zuen aurretik zer geratzen zitzaigun ikusteak". Eta Gorbeiatik Anbotora. "Han koinatua geneukan zain", dio Gordok. "Eta nire bizikleta gorde zuen behean, Anboton Markeli erretratuak egin ahal izateko". Hala, bazkalordurako Landan zeuden, eta, indarrak berreskuratu orduko, Aizkorri aldera hartu zuten: "Berez, bidearen erdia baino gehiago eginda geneukan, baina erdia baino ez genuela egin geneukan buruan; izan ere, eguraldiak txarrera egin behar zuen eta nekea igartzen hasi behar genuen".

Baita igarri ere. Aizkorrin larri ibili ziren: "Ur barik, Urbiako fondaraino joan behar izan genuen, eta Aizkorrin ekaitzak harrapatu gintuen. Euria, haize zakarra eta hotza. Bizikletak bizkarrean hartuta gogorra egin zitzaigun igoera. Nik Markeli ez nion ezer esan gura, baina zorabiatuta iritsi nintzen gora. Eta tontorrean aitortu zidan bera ere berdintsu zegoela. Baina, badaezpada, biok isilik [Barre]". Aizkorrin, baina, atertu egin zuen, eta jaitsiera ondo egin ahal izan zuten: "Gorputzari buelta modu harrigarrian eman genion ostera ere. Senitartekoekin hitzordua eginda geneukan Araia aldera gure bila etortzeko, baina, ondo geundela ikusita, Arantzazura jaitsi eta etxera bizikletan etortzea erabaki genuen". Hala, 150 kilometro, ia 18 ordu –pedalei eragiten 12 ordu eta erdi– eta 4.000 metro inguruko desnibel positiboarekin amaitu zuten abentura.

**Materiala ondo aukeratu behar**

Abentura erretratuetan jaso gura zuten, eta Gordok hor izan zuen buruhauste handia, materiala aukeratzeko orduan zer baztertu: "Kirol argazki saioak egiteko motxila handia eramaten dut aldean, hainbat argazki kamera, objektiboak... Material asko behar da. Baina, oraingoan, ez zen posible, ondo aukeratu behar nuen dena eta hori erronka izan da niretako".

Hala, kamera bakarra eta pare bat objektibo hartuta, izugarri murriztu zuen soinean eraman beharreko pisua. Eta, hala ere, motxila handiak zeramatzaten: "Bestalde, argazkiak egiteari ezin genion denbora luzerik eskaini. Erretratuak non egin pentsatuta geneukan, eta egunsenti eta ilunabarrak ere harrapatuko gintuen ere bagenekien. Hala, oraingoan, esperientzia bizitzeak izan du lehentasuna, eta ez erretratuek". Lagunartean egindako bizikleta buelta bat, azken batean. Luze samarra, hori bai.

ESANAK

**"Harritu egin nau Aritzek, hilabete gutxitan prestatu da"**

MARKEL URIARTE | RIDERRA

**"Materiala zorrotz aukeratzea kosta egin zitzaidan"**

ARITZ GORDO | ARGAZKILARIA

PILOTA


Txapelketan parte hartzen dabiltzan pilotari oñatiarrak. | OK-MAGAZINEA

# Aloña Mendik Astigarragaren kontra jokatuko ditu Herriarteko finalerdiak

Bi kanporaketa gainditu dituzte oñatiarrek, Zumarragaren eta Tolosaren kontra

XABIER URZELAI | OÑATI

Aloña Mendiko pilota sailean ondo dabiltza lanean, eta azken urteotako lan hori hasi da emaitzak ematen. Eta Herriarteko Txapelketan egiten dabiltzan bidea izan daiteke erakusle, inork aurreikusten ez bazuen ere txantxikuak dagoeneko finalerdietan daude eta. Bidean Zumarraga eta Tolosa utzi dituzte eta gaur (19:30) Astigarragaren kontra hasiko dute hirugarren kanporaketa, kanpoan. Josu Osak eta konpainiak ondo dakite hirugarren kanporaketako kontrarioa ez dela nolanahikoa, baina, orain arte egindako ibilbideaz pozik, Aloña Mendikoek ez dute presiorik, eta, txapelketaz gozatzen jarraitzeaz batera, oraingoan ere lehiakorrak izan gura dute: "Zaila, oso zaila izango da. Astigarragak maila handiko bikoteak ditu. Pauso bat aurrerago dagoen taldea da. Kanporaketa honetan gutxi dugu galtzeko eta asko irabazteko".

ESANAK

**"Zaila izango da, beste maila bateko bikoteak direlako"**

JOSU OSA | PILOTA SAILA

### Bikoteetan aldaketak

Zailtasun horren jakitun izanda, hainbat moldaketa egin dituzte bikoteetan. Kadete eta gazte mailetako bikoteak ezberdinak izango dira. Aitor Tatiegik debuta egingo du kadete mailako aurrelari moduan. Harekin bikote egingo du Iñigo Perezek, atzelari moduan –aurreko bi kanporaketatan aurreko koadroetan jokatu du–. Bestalde, gazte mailako atzelaria Markel Gartzia izango da –orain arte kadete mailan jokatu du– eta aurrelaria, Ander Biain. Senior mailako bikotean ez dago aldaketarik. "Beste maila bateko aurkariak ditugu, eta aurre egin ahal izateko gure bikoteak parekatu egin ditugu", dio Osak.

SKATEA

## Ekuadorren alde patinatzeko ekimena jarri dute abian

Lazkaoko Goroskt skate klubetik deialdia egin gura diete Debagoieneko patinatzaileei ekainaren 25ean Getxon antolatuko duten jaialdian parte hartzeko. Ekimen solidarioa izango da, *Ekuadorren alde patinatzera* izenekoa, eta apirilaren 16an lurralde hartan izandako lurrikarak sortutako kaltetu gazteei laguntzeko ahalik eta herritar gehien elkartu gura dituzte. Batzen duten diruarekin asmoa da skate ekipamenduak erosi eta hara bidaltzea.

MENDI LASTERKETA

## Maite Zabaleta oñatiarra bigarren sailkatu da UZ Trail-en

Goierri Garaia Mendi Lasterketak antolatzen du UZ Trail, eta Urretxu eta Zumarraga inguruetan egiten duten proba da. Hala, Oñatiko mendi lasterkariak 22 kilometroko proban hartu zuen esku, eta 2.46.09an geratu zuen erlojua. Lasterketa irabazi zuen Laida Elizegi oñatiarra baino 14 minutu lehenago iritsi zen helmugara, eta Zabaletak Monica Grajerarekin izan zuen lehia polita; hiru minutuko aldearekin nabarmendu zen oñatiarra.



TXIRRINDULARITZA

# Arantzazuko Igoeraren azken urtea izango da

## 47 urte beteko ditu lasterketak eta datorren urtera begira formatua aldatu nahi dute antolatzaileek

**IMANOL BELOKI** | OÑATI

Zapatu honetan, 47. Arantzazuko Igoera egingo dute gazte kategoriako lehen eta bigarren urteko txirrindulariek, eta formatu honetan egingo den azkena izango da. Lasterketa 16:30ean hasiko da, Portalekuan, eta, 9,5 kilometroko bidea egin ondoren, Sindikan amaituko da, ordu erdiren bueltan.

Iazko lasterketan, 59 txirrindulari izan ziren irteera puntuan, eta denak iritsi ziren helmugara, baina bero handiak eragina izan zuen askorengan, eta lehertuta heldu ziren Sindikara. Julen Umerez Oñatiko txirrindulariak esprintean ezin izan zuen garaitu Koldo Velasco, eta garaipenetik gertuen izan den oñatiarra izan da urte hauetan guztietan.

Ruper Arkauz Aloña Mendiko txirrindularitza saileko kidearen esanetan: "Aurten, Oñatin hiru txirrindulari on ditugu: Xabi Murgiondo, Ekaitz Txintxurreta eta Mikel Arregi. Hirurak rankingean lehen hamabosten artean daude; beraz, aukera ugari dituzte lasterketa irabazteko".



Iazko proban esprintean amaitu zen lasterketa. | GOIENA

### Sari bereziak

Igoera honen marka nagusia 22 minutu eta 27 segundo da, 1993. urtean Unai Osak ezarri zuena, eta marka gainditzen duenak 300 euroko saria eramango du. Bestalde, probaren irabazleak 150 euro jasoko ditu.

### Formatu honetan, azkena

Arantzazuko Igoera oso gogorra eta esplosiboa da, eta lehertuta heltzen dira txirrindulariak helmugara. Horregatik, ibilbidea luzatu gura dute antolatzaileek datozen urteetarako. "Formatua aldatuko dugu. Agian, Eskoriatzatik edo Arrasatetik bira ematea aukera bat litzatekeela uste dugu", adierazi du Arkauzek.

ESKUBALOIA

# Euskadiko eskubaloi txapelketa zapatuan

## Aloña Mendi taldeko Yune Bermejo oñatiarra izango da txapelketako debagoiendar bakarra

**I.B** | OÑATI

Zapatuan, Euskadiko selekzioen 38. eskubaloi txapelketa jokatuko da. Zumarraga, Urretxu eta Oñatin izango dira partiduak, eta irabazlea Euskal Herriko txapelduna izango da.

Oñatiko Zubikoa kiroldegian kanporaketako hainbat partidu jokatuko dituzte emakumezko eta gizonezko kadeteek, 10:15ean hasita, eta bi kantxetan banatuta jokatuko dituzte partiduak. Emakumezkoek pista baten eta gizonezkoek beste pistan jokatuko dute, nahiz eta kantxa aldaketa batzuk egongo diren hirugarren eta laugarren postuak eta finala jokatzean. Guztira, zortzi partidu jokatuko dira: lehen eta bigarren finalerdiak, hirugarren eta laugarren postuak eta finalak.

Jose Luis Osinaga Aloña Mendi eskubaloi saileko presidentearen esanetan: "Urtarrilean jokatuko den Espainiako txapelketarako prestaketa moduan ondo etorriko zaie jokalariei. Gainera, lehen urteko kadete kategoriakoek bigarren urteko infantilekin nahastuta jokatuko dute".

### Yune Bermejo oñatiarra

Euskal Herriko txapelketako emakumezko kadeteetan, Aloña Mendi taldeko Yune Bermejo jokalaria izango da Gipuzkoako taldean, eta txapelketa jokatuko duen debagoiendar bakarra izango da.

Duela bi urte, infantil mailako autonomien arteko txapelketan ere izan zen Bermejo, Aloñako atezain moduan, eta bertan izandako esperientzia aberasgarria errepikatzeko aukera izango du oraingo honetan ere.

### Atsedenak aprobetxatuz

Partiduak ikusten familiarrak eta zaleak izango dira harmailetan, eta, batez ere, txikienak girotzeko, atsedenaldietan jokoak izango dira. Ateak (porteriak) bost zulorekin estaliko dituzte, eta zabor jokoa egingo da. "Zubikoako ikusleak lerro batean jarriko dira ate aurrean, eta *speaker*-ak, esaterako, baloia laranja azala dela esanda, dagokion zulora (edukiontzira) bota beharko du baloia". Baloia zulotik sartzen duenak gozokiak jasoko ditu.

LIDERRAREN BERTSIORIK ONENA

CITROËN




CITROËN BERLINGO
20 URTEURRENA
SERIE BEREZIA
1996-2016

ESEKIDURA ALTUA
NABIGATZAILEA OPARI
AURREKO RADARRA
UKIMEN PANTAILA
ATZEKO KAMERA

13.950€-TIK AURRERA

Profesionalek ondo dakite. Mitoa erreala da. Citroën Berlingo du izena eta 20 urtean herrialde honetako kaleetan ibili da uneoro, edozein eguraldirekin. Ondo, minutuz minutu, gogor lan eginez landu den lidergoa. Salmenta errekor guztiak hautsi dituen "Made in Spain" liderra. "Made in Spain" profesional guztien oroimenean irudi ikonikoa utzi duena, lehenaren irudia.

**Hilabete honetan gala-jantziarekin, eta gama osoa ere bai: baldintza onenak Citroën merkataritza-ibilgailuetan, maiatzaren 10etik 31ra arte.**

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

citroen.es

**CITROËN nahiago du TOTAL** *Salneurri gomendatua (13.950 € "Berlingo Multispace PureTech 110 S&S 20. Urteurrena" autoarendako (zergak, garraioa, eskaintza eta Pive-8 plana barne), euren izenean dagoen ibilgailu bat entregatzen duten bezeroendako CITROËN PREMIUM produktuaren eta PSA Finance Services Spain EFC SAren bidez gutxienez 6.000 euro finantzatzen badituzte 36 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoarekin. Eskaintza baliagarria 2016ko maiatzaren 31ra arte parte hartzen duten saltokietan, penintsulan eta Balear uharteetan. Eskaintza ez bateragarria. Baldintzak kontsultatu zure kontzesionarioan. Salneurri gomendatua finantzatzen ez duten bezeroendako: 15.750 euro.

KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 ISURPENA (g/km): BERLINGO 20. URTEURRENA: 4,3-5,1/113-119

Debagoieneko Citroën zerbitzu ofizialak:
**TALLERES CHAPIME S.C.L.** - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE



Antolatzaile eta laguntzaileak lasterketaren aurkezpenean. | M. TXINTXURRETA

MENDI LASTERKETA

# Gabez Takarraran lasterketa ekainaren 18an izango da

## Antolatzaileek nabarmendu dute karrera hau "urtetik urtera errotu" egin den hitzordua dela

M.T. | ESKORIATZA

Asteon aurkeztu dute ekainaren 18an, zapatua, egingo den Gabez Takarraran lasterketa. Udalak eta kirol elkarteak antolatzen dute elkarlanean, eta aurtengoa seigarren edizioa izango da. "Urtetik urtera errotu egin den karrera bat dela uste dugu", azaldu du antolaketa taldeko Iñaki Uribetxeberriak. Era berean, azpimarratu du Euskal Herrian egiten den lehenengo gaueko lasterketa izan dela, eta gerora beste herri batzuetara zabaldu dela.

Uribetxeberriak azaldu du ekimenak hiru helburu nagusi dituela: "Banakako kirolaren baloreak zabaltzea, herrian giroa sortzea eta kanpotarrei gure herria ezagutaraztea". Nabarmendu du urteotan pixkanaka joan direla helburuok betetzen.

**Datu teknikoak**

Gabez Takarraran lasterketaren ibilbideak Eskoriatza "bere osotasunean" zeharkatuko duela azaldu zuten antolatzaileek. Herriko plazan hasi eta bukatuko da, eta Asensio, Atxorrotx, Makatzgain eta Lexargaratetik igaroko da. 23:00etan aterako dira korrikalariak. Ibilbidean zehar sei anoa-puntu izango dira.

Ibilbidearen luzerari dagokionez, 23,2 kilometro izango ditu, 12.000 metroko goranzko igoera metatuarekin.

Gazteen kategoriari dagokionez, horiek Asensio inguruan egingo dute ibilbidea, bederatzi kilometro ingurukoa. Bereziki animatu dituzte gazteak parte hartzera.

**Zerbitzuak**

"Kanpotik datozenei lasterketa erakargarriago egiteko" hainbat zerbitzu eskainiko ditu antolakuntzak. Hala, lasterketaren aurretik, parte hartzaileentzat afaria izango da Herriko Plazan, eta amaieran, berriz, luntxa. Aparkalekua ere ahalbidetuko dute parte hartzaileentzat. Gainera, kiroldegian dutxatzeko aukera izango da.

Bestalde, parte hartzaile guztiek opariak jasoko dituzte babesleen eskutik: Ibarraundirako sarrerak, herriko produktuz osatutako otarrea eta Arc'teryx etxeko opariak.

**Izen ematea**

Korrikalariek ekainaren 15era arte izango dute Gabez Takarraranen izena emateko aukera. Internet bidez egin daiteke, *www.eskoriatzagabeztakarraran.com* helbidean.

ERRUGBIA

# Nazioarteko Zazpiko Errugbi Txapelketa bihar, zapatua

## Partiduak 16:00etan hasiko dira eta 12 taldek eman ahalko dute izena

I.B | ARRASATE

Atzo hasi zen Arrasate Rugby Taldeak (ART) antolatutako hemezortzigarren garagardo feria, eta herriko plazan Alemaniako jakiez eta mota ezberdineko garagardoez gozatzeko aukera izango da zapatura arte. Horrez gain, zapatuan Zazpiko Errugbi Txapelketa jokatu da Mojategin, 16:00etan hasita, eta azken momentura arte zenbat taldek jokatuko duten ez jakin arren, hamabi taldek eman ahalko dute izena, asko jota.

**Talde batzuk izena emanda**

Dagoeneko hainbat taldek eman dute izena txapelketan: La Unica, Elorrio, Arrasate eta Bera Berak, baina oraindik hainbat taldek izena emango dutela adierazi dute antolatzaileek. Bestalde, emakumezko sei taldek eman dute txapelketan izena, Euskadikoak talde guztiak: Eibar, Hernani, Getxo, Durango, Gaztedi eta La Unica.

Partidu bakoitzak zazpi minutuko bi zati izango ditu; garaipenak lau puntu eta berdinketak bi puntu balioko du. Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuak finalaurrekoetarako txartela jasoko dute, eta partidu hauetan zati bakoitzak hamar minutu iraungo du. ARTko Isei Barbero ordezkariaren esanetan: "Duela urte batzuk zabaleran jokatzen genuen, zelai erdia hartuz, baina hiruzpalau urte dela zelai osoa hartuta jokatzen ditugu partiduak".



Zazpinakako txapelketan Arrasateko jokalaria plakatzen. | IMANOL SORIANO

**Sariak garagardo karpan**

Txapelketa amaitzean, talde guztiak Arrasateko plazara hurbilduko dira, 21:00etatik aurrera, eta han sari banaketa egingo da. Sari nagusia, jokalari onenarena... banatu ostean, batera afalduko dute karpan.

**Goizean beteranoak**

Aurten, gainera, beteranoek ere jokatuko dute Zazpiko Errugbi Txapelketa. Hauek ere Mojategin jokatuko dituzte partiduak, eta, amaitzean, talde guztiek elkarrekin bazkalduko dute Herriko Plazako karpan.

DATUA

**6**

TALDE

Mojategin jokatuko den Zazpiko Errugbi Txapelketan emakumezko sei taldek baieztatu dute bertan izango direla.

ESANAK

**"Azken momentura arte ez dugu jakingo zenbat talde etorriko diren txapelketara"**

ISEI BARBERO | ART ORDEZKARIA

HOCKEYA

# Hanka Labanka Euskadikoan lehian

Aurreko zapatuan, Euskadiko hockey liga jokatu zen Bergaran. Metropolitano eta Dragons taldeen aurka jokatu behar izan zuen Hanka Labankak, eta, garaipenik ez lortu arren, gustura aritu ziren taldekideak.



IDOIA RUBIO

EROSKI
ARRASATE
Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30
Eskaintza baliagarria 2016ko ekainaren 15era arte.

TECNOGOOL!
Futbolik onena zure etxean jokatzen da



Bazkideendako bakarrik.
Bete zure txartela
300€
-rekin gehienez.

FINANTZATU DOAN *
TB + Irudia eta Soinua + Telefonia + Teknologia
Santander Finance SAk eskaintzen du finantzaketa eta hark onartu behar du. Eroskik diruz laguntzen ditu interesak. Ekainaren 1etik 30era arte.
%0 ITN UTB
3 hilabetetan 90 €-tik hasita
10 hilabetetan 199 €-tik hasita
12 hilabetetan 300 €-tik hasita

# KULTURA

## Euskal arteak Londres hartuko du gaurtik hasita

Itsaso Pol eta Usoa Mendikute eskualdeko artistek BaskFest jaialdian parte hartuko dute

**MAITE TXINTXURRETA** | DEBAGOIENA

Donostia 2016 hiriburu kulturalaren baitako ekimenak Londreseraino iritsi dira oraingoan. Asteburu honetan BaskFest izeneko jaia ospatuko dute bertako Dalston auzuneko The Hive gunean, Ingalaterrako hiriburuan bizi diren hainbat artista eta sortzaile euskaldun batuko dituena. Horien artean, bi debagoiendarren lana ikusteko aukera izango da, Usoa Mendikute bergararrarena eta Itsaso Pol oñatiarrarena.

Hainbat diziplina batuko ditu aipatutako jaiak, gastronomiatik hasi eta bideo instalazioetaraino. London Basque Diasporaren eskutik dator ekimena. Elkarte honek Londresen bizi diren orotariko artistak batzen ditu, guztiak euskaldunak edo euskal kulturarekin loturaren bat dutenak. Arantxa Etxarte eta Isa Suarez dira jaialdiaren antolatzaileetako bi, eta aldi berean, parte hartuko duten artistak. Haien esanetan, egitasmoaren helburua "Euskal Herritik kanpo bizi diren baina euren jatorriarekiko atxikimendua mantentzen duten artista euskaldunei ikusgarritasuna ematea" da.

Horretaz gain, "Londresko artisten eta Euskal Herriko elkarteen arteko harremanak sortzea" bilatzen du egitasmo honek. Hala, helburua "euskal kultura eta artearen ondarea nazioartekotzea" dela gaineratu dute.

**Aurreikuspenak gaindituta**

Antolatzaileek Londresen bizi diren euskaldun sortzaileei deia zabaldu zieten euren lanak bidal zitzaten, eta horien artean hainbat izan ziren aukeratuak. Eskaera ugari jaso zituzten, eta ekimena oihartzun handia izaten ari da Erresuma Batuan zein Euskal Herrian. Hori dela eta, antolatzaileentzat dagoeneko "sekulako arrakasta" izan da proiektua.

Prozesu horretan hautatutakoez gain, bestelako izen handiek ere hartuko dute parte BaskFest en. Esaterako, Juan Mari Arzak sukaldari famatuak BaskFest pintxo berezia diseinatu du espresuki hitzordu honetarako.



Usoa Mendikute bergararraren *Mosquito tigre* margolana. | USOA MENDIKUTE



Doors & Windows lana. | U. M.




*13* film laburragatik saritua izan zen.




Itsaso Pol oñatiarraren *Complete* film laburreko fotograma bat. | ITSASO POL

**USOA MENDIKUTE** | ARTISTA

### "Nire ustez, oso garrantzitsua da sorterriarekiko lotura ez galtzea"



USOA MENDIKUTE

Usoa Mendikute Bergarakoa da, baina urte asko daramatza herritik kanpo. Hala ere, azaldu du sekula ez duela galdu jatorriarekiko lotura. Hala, urteotan hainbat erakusketa jarri ditu Euskal Herrian. Oraingoan, BaskFesten parte hartzeko aukeratua izan da, eta bere lana ezagutarazteko aukera paregabea deritzo horri. Horretaz gain, Londresko Palmers Green auzuneko kafetegi batean ere behin-behineko erakusketa bat jarri du.

**Zenbat denbora daroazu Londresen?**

Hamabost urte daramatzat Bergaratik kanpo, Londres eta Bartzelona artean. Nire ustez, oso garrantzitsua da sorterriarekiko lotura ez galtzea.

**Bi lan aurkeztuko dituzu BaskFesten. Zein lan dira horiek?**

Mosquito Tigre eta Doors & Windows izeneko bi margolan aurkeztuko ditut. Horiek proposatu nizkien antolatzaileei, eta parte hartzeko aukera paregabea eskaini zidaten. Biak dira akrilikoaz eta collageaz eginda, mihisean.

**Nola animatu zinen ekimen honetan parte hartzera?**

Kanpoan bizi garen jende askok egin bezala, asko jarduten dut sare sozialetan. Oso tresna erabilgarria iruditzen zait; Euskal Herrian, Bartzelonan, Londresen edota Sardinian (nire beste jopuntu bat) ditudan adiskideekin harremana ez galtzeko, nire artelanak eta jarduerak jendeari ezagutarazteko, edota, nola ez, artearen inguruan sortzen diren ekitaldien berri izateko. Eta hala gertatu zen, sare sozialen bitartez, batetik, nire Oreretako lehengusina batek, eta, bestetik, Norwich-en bizi den Bergarako neska batek pasa zizkidaten London Basque Diasporak antolatutako BaskFest jaialdirako deialdiaren oinarriak.

Euskal kulturaren ospakizun bat izango da festa, arlo desberdinetako artelanen bitartez.

**ITSASO POL** | ARTISTA

### "Londresera etortzea sektoreko jende desberdina ezagutzeko aukera izan da"



ITSASO POL

Arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen graduak ikasi ditu Itsaso Pol oñatiar gazteak Madrilen. Ikasketak zirela-eta joan zen Londresera eta bertako sortzaileen munduak erakarri zuen, bereziki. Bi film labur aurkeztuko ditu BaskFesten. Bere lana hobeto ezagutu nahi duenak Youtubeko *ItsasoPol* kanalera jo dezake.

**Zenbat denbora daroazu Londresen?**

2015eko irailean iritsi nintzen nire unibertsitateko azken urtea egiteko erasmus bekarekin. Kurtso baterako matrikulatzea lortu nuen, eta, azken urtea zenez, Londresera etortzea eta sektoreko jende desberdina ezagutzea eta beraiekin lan egitea ideia ona zela iruditu zitzaidan, hurrengo urterako unibertsitateko konpromisorik, hasiera baten, ez nuelako.

**Zer aurkeztuko duzu BaskFesten?**

BaskFestera bi film labur aurkeztu ditut, "13" eta "Complete". Lehena orain dela urte batzuk grabatu nuen Oñatin nire ahizparekin; kanon sozialek nerabeei nola eragiten dieten dauka gai bezala, forma metaforiko baten kritikatzen nola hauek beraien pertsonalitatea galdu egiten duten plastikozko zerbait bihurtzeko.

Bigarrena Londresen grabatu nuen, bertako ikasle batzuekin eta erasmuseko ikasle gehiagorekin; honek gai bezala Nadiaren bizitzako momentu garrantzitsu bat dauka, non neska zurtz hau bere gurasoekin berriz konektatzeko bide bat topatzen duen.

**Zergatik animatu zinen ekimen honetan parte hartzera?**

Lagun batek Interneteko lotura bidali zidan ikusteko eta erabakitzeko parte hartu edo ez. Irakurri nuenean, oso interesagarria iruditu zitzaidan Londresen euskal artisten lanak erakustea, eta, noski, nire lana jendeari erakusteko aukera handi bat ikusi nuen; beraz, ea zorterik nuen probatzea erabaki nuen.

# Afrikako zinema, argazkiak eta musika izango dira protagonistak Arantzazun

## 'Arantzazu Afrikarekiko topaleku' izeneko jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, 10:30etik 18:00etara

**LEIRE KORTABARRIA** | OÑATI

Arantzazu Afrikaren inguruko hausnarketa-gune bihurtuko da, beste urte batez. Hain zuzen, bihar, zapatua, izango da *Arantzazu Afrikarekiko topaleku* izeneko ekintza, TAU fundazioak eta Arantzazuko Adiskideen Elkarteak Nafarroako Afrika Behar Beharrezkoa erakundearen laguntzarekin antolatuta. Helburua da "ahalik eta modu zabalenean Afrika gizarteari ikusarazi eta gerturaraztea", antolatzaileen esanetan.


Enekora taldea, kontzertuan. | ENEKO LARRAÑAGA

Aurtengo antolatutako ekintzen abiapuntuak entzutea, ikustea, ezagutzea eta partekatzea dira. Modu honetan, antolatzaileen hitzetan, "hain gertu eta, aldi berean, hain urruti dagoen kontinente hau ezagutu ahalko da, eta Europa eta Afrika artean dagoen desberdintasun-egoera aldatzeko borondatea duen kontzientzia soziala areagotu". Hain zuzen, bi film emanaldi, tertulia bat, argazki erakusketa eta kontzertua izango dira aurten.

### Bi film emango dituzte

Zine afrikarrak hartuko du jardunaldiaren lehen zatia. Lehenengo, 12 minutuko *Taharuki* filma emango dute, AEBek eta Keniak ekoiztua. Keniako etnia desberdineko gizon eta emakume baten fikziozko kontakizuna da. Jatorri desberdina izan arren, biek askapen mugimendu klandestino batean parte hartzen dute inguruko haurren trafikoa azaleratzeko asmoarekin.

Segidan, *Cold harbour* emango dute, Hego Afrikako 2014ko ekoizpena. Sizwe auzo-polizia, Lurmutur Hiriko trafikanteen banden arteko biolentzia ikertzen ari den bitartean, beste polizia batzuen arteko korrupzio kasu batean murgilduko da. Horren ondoren, *Cold harbour* filmaren zuzendariak, Carey McKenziek, eta Beatriz Leal adituak berriketaldia gidatuko dute.

### Kora izeneko harpa

Bazkariaren ondoren (izen-ematе epea maiatzaren 31n bukatu zen), Alfons Rodriguez kazetariak 40 argazkiz osatutako erakusketaren bisita gidatua egingo du. Bukatzeko, Eneko Larrañaga musikari zestoarraren Enekora taldeak Afrikako kora izeneko harpan oinarritutako kontzertua eskainiko du, erritmo deigarriek eta zuzenean nahasturiko proiekzio bisual originalek osatuta.

### EGUN OSOKO EGITARAUA

**'AFRIKAK: JENDEAK, LURRAK ETA ERREALITATEAK'**

**10:30** Film laburra: *Taharuki*.

**10:45** Film luzea: *Cold harbour*.

**12:00** Elkarrizketa: Carey McKenzie (*Cold harbour* filmaren zuzendaria), Beatriz Leal (Afrikako zineman espezializatua).

**13:30** Bazkaria.

**16:00** Argazki erakusketa: *Afrikak: jendeak, lurrak eta errealitateak.* Alfons Rodriguezek zuzenduta.

**16:45** Kontzertua: Enekora.

**Asier Kidam** | Magoa

# "Mago profesional askorik ez dago Euskal Herrian, baina maila handia dago"

## Asier Kidam, Tor, Txoborro eta Imanol Ituñoren ikuskizunak, eta haurrentzako tailerrak Mostran

**A. ARANBURUZABALA** | ELGETA

Asier Kidam (Gasteiz, 1984) magoak zabalduko du gaur, egubakoitza, asteburuan egingo duten Euskarazko Magia Mostra (20:30). Biharko gala Tor eta Txoborro bikoteak eta Imanol Ituñok egingo dute, 22:00etan. Sarrerak leihatilan eta *Pikupe.com* atarian eskura daitezke; gaurko emanaldirako sei eurotan eta biharkoak hamar eurotan. Egitaraua borobiltzeko, zazpi eta hamabi urte arteko bitarteko haurrentzako tailerrak egingo dituzte domekan, 12:00etan, Elgetako udaletxean.


Asier Kidam magoa. | ROBERTO MORAZA.

**Ze asmorekin zatoz Espaloira?**

Magiaren historia kontatzen dudan *1805* ikuskizuna egingo dut. Klasikoak diren trukuak modu ezberdinean egingo ditut eta ahaztuak dauden beste batzuk berreskuratuko ere bai. Oso joko bisualak dira. Orain arte egin ditudan ikuskizunak xumeagoak izan dira; honako honi beste itxura bat eman gura izan diot, berritzaileagoa.

**Bakarrik zaude agertokian, baina publikoarekin jolasten zara.**

Bai; hala da. Tresna ezohikoak erabiltzen ditut: kateak, sua, kristalak... Publikoak errespetuz tratatzen duzula ikusten badu, normalean, prest izaten da laguntzeko. Norbaitek lotsa ematen diola esaten badit, ez dut inor behartzen, noski.

**Bihar izango diren magoak lagunak dituzu. Nolakoak dira?**

Hiruren artean egiteko saio berezia prestatu dute; tartekatzen joango dira. Torrek eta Txoborrok *ilusio handiak* deritzen trikimailuak egingo dituzte: pertsona bat desagertu, lebitatu... Bien artean sortzen dituzten egoera barregarriekin komedia puntua ere ematen diote. Imanolek egiten duen magia mota, berriz, berak bakarrik egiten du, oso originala da. Egingo dituenen artean, orain dela pare bat urte Espainiako Magia Kongresuan saritutako bat dago. Gaileta-kutxa batetik josteko tresnak aterako ditu, hortik aurrera inork asmatuko ez duena egingo du.

**Ze osasun du euskal magiak?**

Ez dago mago profesional askorik, baina, orokorrean, maila oso handia dagoela esango nuke.

**Ze garrantzi ematen diozu magia euskaraz egiteari?**

Egiten ditugun saio gehienak euskarazkoak dira; hala ere, Elgetakoa berezia izango da magoentzako eta baita ikusleentzako ere. Luxuzko aukera!


Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko maiatzeko zozketetako irabazleak



KINDLE-A
Ainhoa Urkia Arregi (Oñati)

LIBURU SORTA - 3 LIBURUKO PACK-A
Miren Uribesalgo Muxika (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA
Amaia Irizar Aranburu (Bergara)
Aiora Beristain Madariaga (Bergara)
Beatriz Zarketa Alberdi (Oñati)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Eva Navarro Cid (Arrasate)

` PINOCCHIO' ANTZEZLANERAKO BINA SARRERA
Arantza Fdez. de Ganboa Landa (Arrasate)
Jabier Urzelai Sagardui (Oñati)

` NOETIC ´ IKUSKIZUNERAKO BINA SARRERA
Oihana Agirre Inza (Bergara)
Xabier Zabala Urriategi (Bergara)
Santi Enciso Miramon (Oñati)
Edurne Elkoroiribe Izurrategi (Oñati)
Gotzon Agirre Arregi (Arrasate)
Izaro Agirre Bengoa (Arrasate)

LASA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Garazi Larrea Zumelaga (Antzuola)

SORKUN-EN KONTZERTURAKO BINA SARRERA
Saioa Llodio Uribeetxeberria (Aretxabaleta)

` AUREO ´ IKUSKIZUNERAKO BINA SARRERA
Xabier Mugartza Aiastui (Oñati)
Floren Arana Barandiaran (Arrasate)
Jesus Mari Elkoro Iturriaga (Arrasate)

SORAN ETXEA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Maider Aldabe Llodio (Aretxabaleta)

BERTSO JAIALDIRAKO BINA SARRERA
Juan Ramon Balenziaga Errasti (Arrasate)

` LABIO DE LIEBRE ´ IKUSKIZUNERAKO BINA SARRERA
Miren Idoia Murgiondo Zipitria (Bergara)
J.Mari Lasaga Heriz (Arrasate)

ETXE AUNDI JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Jose Antonio Auzmendi Aierbe (Arrasate)

MAULANDA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Jasone Uribesalgo Zugasti (Aretxabaleta)

SARIAK JASOTZEKO:
**Arrikrutzeko sarrerak**. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrea** Otarrea jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak**. Zatoz, GOIENAren egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otalora Lizentziaduna, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 – 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 – 14:00.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

**Unai Urretxo** | Euskadiko eta Bilboko orkestra sinfonikoetako zuzendari berria

# "Aukera berezia da niretzat, eta oso pozik nago"

Betidanik bi orkestrekin oso harreman ona izan duela dio; orain arte, musikari ibili izan da bietan, eta orain, zuzentzeko aukera suertatu zaio


Unai Urretxo, orkestra zuzentzen. | UNAI URRETXO

**ENEKO AZURMENDI** | ARRASATE

Unai Urretxo arrasatearrak tronboiko goi-mailako titulua dauka, Donostiako Kontserbatorioan lortuta. Bostongo Unibertsitatean diplomatura ere lortu zuen, instrumentu horrekin. Horrez gain, Zuzendaritzan masterra eta doktoretza dauka, Chopin unibertsitatean. Musikari moduan, 20 urteko ibilbide luzea egin du mundu osoko zenbait orkestratan. Zuzendari moduan ere badu esperientzia, Errusiako, Poloniako eta Koreako hainbat orkestratan.

**Nola suertatu zitzaizun Euskadiko Orkestra Sinfonikoa zuzentzeko aukera?**

Aurpegi berriei aukera eman nahi zietela esan zidaten. Gainera, ni kanpoan izanda, niretako aukera berezia izango zela pentsatu zuten, eta horrelaxe izan da. Oso pozik nago.

**Horrez gain, Bilboko Orkestra ere zuzenduko duzu. Zer dela eta?**

Arrazoi bera da. San Petersburgon birritan egon naiz zuzentzen eta Korean ere askotan. Beraz, Euskal Herrira zuzentzeko garaia zetorrela ikusten zen.

**Zer moduz sentitzen zara? Erronka bikoitza da...**

Esan bezala, oso eskertuta nago bi orkestrekin. Aukera oso politak dira biak ere. Euskadiko zein Bilboko orkestretan askotan parte hartu izan dut musikari gisa, eta orain, zuzentzeko aukera izatea oso berezia da.

**Zer moduz sentitu zara hemendik kanpo zuzendari lanetan ibili zarenean?**

Lan handia eskatzen du zuzendari lanak. Asko ikasi behar da, egun osoa ikasi eta ikasi pasatzen dut.

**Hego Korean bizi zara. Zer egiten duzu han?**

11 urte daramatzat han, unibertsitateko irakasle moduan lan egiten. Arrasatera joateko aukera gutxi izaten dut, baina ahal dudanetan joaten naiz.

**Han bizita, nola burutuko dituzu hemengo zuzendari lanak handik?**

Kontzertua baino astebete lehenago Euskal Herrira joaten naiz, taldearekin lan egitera.

**Ze dohain behar dira zuzendari ona izateko?**

Pazientzia eta dedikazio handia behar dira. Esan bezala, asko ikasi behar da. Obra bat prestatzeko orduan, historia, konpositorearen bizitza eta estiloa aztertu behar dira, eta obraren zati bakoitza ondo jakin behar da. Bestalde, orkestra osatzen duten instrumentu guztiak jotzen jakin behar da. Nik, adibidez, pianoa ikasi behar izan dut eta hari eta haize instrumentu batzuk jotzen ere ikasi behar izan dut, zuzendari izateko.

**"Pazientzia eta dedikazio handia behar dira zuzendari lanak egiteko"**

**Horrez gain, taldea zuzentzeko gaitasuna ere izan beharko da.**

Hala da; kontzeptu oso zuzena izan behar duzu jakiteko nola nahi duzun musika entzutea. Horretarako, entzumen ona izan behar da, musikariek jotzen duten musika eta zure kontzepzioa bat datozen jakin ahal izateko. Azkenik, taldearen sentimenduak eta gogoak ulertzea oso garrantzitsua da lana egoki egiteko.

**Aurreko zapatuan Euskadiko Orkestra Sinfonikoa zuzendu zenuen Musikasten. Zer moduz joan zen?**

Oso ondo joan zen. Kontzertu oso berezia izan zen eta denok oso pozik bukatu genuen.

**Hurrengo kontzertua noiz eta non izango da?**

Datorren astean, Korean, Seognam Philharmonik zuzenduko dut.

**Etorkizunari begira, ze erronka edo helburu dituzu?**

Ikasten segitzea. Nire helburua zuzendaritzaren gainean ikastea da. Honek asko laguntzen dit nire burua garatzeko. Gainera, beste musikari batzuekin eta lagunekin ikasitako guztia elkarbanatzea gustatzen zait, eta, modu horretan, besteei nire onena eskaintzea.


Arkupe kultura etxean egindako aurkezpena. | ANABEL DOMINGUEZ

# Karmele Igartua sorkuntza bekaren deialdia irekita dago

Haurrentzako eskola–antzerki testuak aurkeztu beharko dira, poeta zenaren izena daraman bekan

**ENEKO AZURMENDI** | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak elkarlanean antolatuta, Karmele Igartua sorkuntza beka irabazteko deialdia ireki dute dagoeneko. Irailaren 30era bitartean, haurrentzako eskola-antzerki testuak aurkeztu beharko dira.

16 urtetik gorako edozeini zuzenduta dago eta parte hartzen duenak 30 minutu inguruko antzezlana aurkeztu beharko du udaletxean, ikasleek antzeztu ahal izateko modukoa.

Idazle Eskola 2003-2004 ikasturtean jarri zen martxan eta hurrengo ikasturteari begira sorkuntza beka batzuk ematea erabaki zuten orduan. Horrela egin dute azken urteetan, eta aretxabaletar poeta zen Karmele Igartuak berak 2005-2006 ikasturtean jaso zuen beka hori, *Gaur arte* izeneko nobela labur batekin. Igartua Idazle Eskolako ikasle izan zen, ikasleekin lanak koordinatzen ere ibiltzen zen, eta hil zenean, bekari haren izena jartzea erabaki zuten. Orduz geroztik, bost alditan eman dute haren izena daraman beka eta aurtengoa seigarrena izango da.

**Irabazleak, sari potoloa**

Aurten, lehen aldiz, Aretxabaletako Udalak eta Idazle Eskolak hitzarmena sinatu dute, eta ondorengo lau urteetarako 4.000 euroko laguntza jasoko dute eskolakoek, bekari bultzada emateko. Horren ondorioz, beka hau irabazten duenak 2.500 euroko saria eramango du. Horrez gain, berak nahi izanez gero, *idazten.com* webgunean argitaratzeko aukera ere izango du.

**Iazko irabazleak**

Arkupe kultura etxean egin zuten aurtengo sorkuntza bekaren aurkezpen ekitaldia, zapatuan. Ekitaldian, bekaren bosgarren edizioko irabazleak nortzuk diren ere esan zuten: Fernando Garatearena saritu zuten, egin zuen dibulgazio lanagatik. Bestalde, Jaime Balberderena ere saritu zuten, idatzi zuen ipuin luzearengatik.

**Seme-alabak hunkituta**

Aurkezpenean, poeta zenaren seme-alabak eta familiartekoak ere izan ziren, eta ekitaldi "hunkigarria" izan zela azaldu zuten, Igartua bera ere ikusi ahal izan zutelako bideoen bitartez bere poemak irakurtzen. Gainera, Idazle Eskolako hainbat lagunek ere irakurri zituzten hark idatzitako poemak.

# Jaialdi berezia, Arrasateko Trikitixa Eskolaren 25. urteurrenean

**ENEKO AZURMENDI** | ARRASATE

Aurten 25 urte betetzen ditu Arrasateko Trikitixa Eskolak, eta, hori ospatzeko, jaialdia berezia egingo dute datorren zapatuan, ekainaren 11n.

Kurtso bukaerako kontzertu bat bezala izango dela nabarmendu du Maixa Lizarribar trikiti irakasleak. "Formatu berezia izango du eta herriko hainbat kultura eragilerekin osatuko dugu kontzertua", dio.

Izan ere, 14 kantu desberdin joko dituzte eta kantu bakoitza kultur eragile banarekin –erraldoi taldea, txistulari taldea, txalaparta taldea, dantza taldea, eta abar– osatuko dute.

Egitaraua guztiz itxita ez badute ere, aste honetan amaitzea espero dutela adierazi du Lizarribarrek.

Kontzertuaren ostean, afaria egingo dute, Biteri plazan, 100 bat lagunek.

**Abestia, logoa eta kamiseta**

Urteurrena aldarrikatzen duen abesti bat prestatuta dutela onartu du trikiti irakasleak, eta datozen egunetan publiko egingo dutela.

Bestalde, urteurrenerako logotipo berria egin dutela adierazi du Lizarribarrek, eta kamiseta berriak ere atera dituztela azaldu du.


Trikitixa Eskolakoak 2001eko irudi baten. | TRIKITIXA ESKOLA

**Andoni Martin** | Karateka eta triatloilaria

# "Nire ametsa triatloiko munduko txapelduna izatera heltzea da; asko entrenatzen jarraituko dut"

**IRATI ELORTONDO** | ARETXABALETA

Andoni Martin (Aretxabaleta, 1999) bost urterekin hasi zen karatean eta duela bi urte triatloian. *Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzen gidaritza* izeneko erdi mailako gradua ikasten ari da Oñatiko Larraña institutuan. Oso gustura dabilela dio, etorkizunean SHEE (IVEF) ikasteko gogoz baitabil.

**Noiz hasi zinen karatean?**
5 urte nituenean animatu nintzen hastera. Jendea apuntatzen hasi zela ikusi eta gero.

**Nolakoa izaten da entrenamendua?**
Fisikoa asko lantzen da eta teknika lantzea ere badago. Kumite eta katak lantzen ditugu, erakusketa modukoak dira. Kumitea borroka antzerako bat da, eta katak koreografia modura deskribatu daiteke.

**Lehiaketa bat duzunean nola sentitzen zara?**
Oso urduri, hasi aurretik beti oso urduri jartzen naiz. Txistua entzuten dudan bakoitzean lasaitu egiten naiz eta hobeto bukatzen dut egin beharrekoa.

**Ba al duzu lehiaketa gogokorik?**
Iazko Colindresko txapelketako oroitzapen oso politak ditut. Itxaropenik gabe joan nintzen eta bosgarren postua lortu nuen Espainia mailan.

**Triatloian ere badiharduzu.**
Bai. Oso ezberdinak dira biak. Askotan, karatea lantzen dut atseden hartzeko, esfortzu handiko kirola baita. Orain dela bi urte hasi nintzen, nire lagun bati esker. Txirrindularitza edo triatloia aukeratzekotan egon nintzen, baina, azkenean, triatloia aukeratu nuen. Zuzenean triatloi bat ikusteko aukera izan nuen, eta, asko gustatu zitzaidanez, nik ere parte hartu nahi nuela konturatu nintzen.

**Nolakoa izaten da triatloi entrenamendua?**
Aste osoan zehar egoten naiz entrenatzen; kirolarekin lotura duten ikasketak egiten ari naizenez, klasetik ere entrenatuta etortzen naiz. Etengabe ari naiz entrenamenduan. Bizikletan egoten naiz etengabe klasean, eta arratsaldean igeri egitera joaten naiz igerilekura, kilometro bat-edo, erlaxatzeko. Asko gustatzen zait igeriketa, ondo moldatzen naiz. Hondarribiko triatloian lehena izan nintzen uretatik irteten 150 parte hartzaileetatik.

**Hainbeste kirol eginda, debora aldetik nola zabiltza?**
Lagunekin egoteko oso denbora laburra izaten dut, beti bainago entrenatzen. Baina ikaragarri gustatzen zaidanez, ondo pasatzen dut entrenamenduan.

**Zer du triatloiak karateak ez duena, eta alderantziz?**
Karatean adrenalina asko botatzen da; ematen ez badu ere, bi minutuan karatean ikaragarri nekatzen naiz. Izugarri lantzen da fisikoa, eta bi minutu besterik ez da konbate batean. Triatloia luzeagoa da.

**Nola ikusten duzu karatearen eta triatloiaren egoera herrian?**
Karatean oso gutxi gara, zazpi bat pertsona-edo, baina giro oso ona dago. Triatloian 60 bat pertsona-edo gaude Antxintxika taldean, diferentzia izugarria da. Indartsu dagoela esango nuke, geroz eta jende gehiago animatzen da.

**Eta, orokorrean, herritik kanpo?**
Beste kirol batzuekin alderatuta, garrantzi txikiagoa ematen zaio karateari edo triatloiari. Futbola beti dago goian; niri ez zait gustatzen, egia esan. Triatloia jartzen dut telebistan, nahiago dut, indar handiagoa eman beharko genioke.

**Ba al duzu erreferenterik?**
Bai. Javier Gomez Noya ikaragarri gustatzen zait. Atleta paregabea da. Munduko txapelduna da triatloian.

**Non ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?**
Karatean ez dut uste triatloian bezainbeste jarraituko dudanik, baina uste dut triatloian maila oso ona izatera heltzeko kapaz izango naizela. Oso animatuta nago triatloiari dagokionez, baina asko entrenatu behar dut horretarako.

**Zer esango zenieke orain hasi berri direnei?**
Gogor entrenatzeko esango nieke. Gogor entrenatzen iritsiko baitira kirolari oso onak izatera.

### PERTSONALA

**Ames bat:** Triatloian munduko txapelduna izatera heltzea.
**Musika talde bat:** El Canto del Loco.
**Abesti bat:** *Zapatillas*, El Canto del Locorena.
**Bizitzeko toki bat:** Segovia edo Madril.
**Herriko txokorik gogokoena:** Kiroldegia.
**Lehiaketa bat:** Hondarribikoa.
**Igeri egiteko toki bat:** Aretxabaletako igerilekua.
**Bizikletan ibiltzeko toki bat:** Landa.
**Korrika egiteko toki bat:** Urkulu.



**Andoni Martin Aretxabaletako kiroldegian.**

IRATI ELORTONDO

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Jaca.** Etxebizitza ematen da errentan ekainaren 20tik aurrera, uztail osoan zehar eta abuztuaren 15era arte. Harremanetarako: 669 53 97 03

**Pineda (Tarragona).** 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua, igerilekua eta garajearekin. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zenbakira edota idatzi oskar.carrascal@gmail.com helbide elektronikora.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Egoera onean dagoen bi logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Ezin dugu hilean 500 euro baino gehiago ordaindu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 07 99 70

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 632 92 67 36 edo 602 30 45 86

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Hilean 350-400 euro ordain ditzaket. Berdin da altzaririk ez badago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

### 105. ETXEAK OSATU

**Debagoiena.** Neska espainiarrak logela behar du errentan, azpierrentamendu kontratuarekin. Urgentea da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 45 83 80

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu 5 urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

**Ospitalera joateko laguntzailea.** Aldizka, bi astean behin gutxi gora behera, familia bat Bergaratik Txagorritxura mediku kontsultetara autoz garraiatzeko pertsona bat behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 13 16 23

### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Bergara.** Zaintza lanetan, etxeko lanetan eta garbiketan aritzeko gertu nago. Esperientzia eta erreferentzia onak. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 665 38 20 66 edo 686 44 70 38

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Arrasate.** 58 urteko emakume euskalduna prest lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko. 688 66 76 91

**Bergara.** Esperientziadun erizain laguntzailea goizez pertsona nagusiak zaintzeko prest. 696 70 55 09

**Bergara.** Neska gertu bulego eta lokalak garbitzeko eta nagusiak lagundu edota afariak gertatzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Debagoiena.** Neska gertu arratsaldetan nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 696 84 19 51

**Debagoiena.** 10 urte baino gehiagoko esperientzia daukat pertsona nagusien zaintzan. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Orduka edo etxean bertan lan egiteko prest. 617 72 94 98

**Debagoiena.** 32 urteko emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Harremanetarako: 602 18 95 92 edo rameshparu57@yahoo.com

**Debagoiena.** Baserri lanetan eta ume eta nagusien zaintzan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia dut. 631 14 27 02

**Debagoiena.** Egunean zehar nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketak egiten lan egingo nuke. 681 37 60 13

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Izan daitezke dependentzia dutenak edo ondo moldatzen direnak. Esperientziaduna naiz. 634 94 31 60

**Debagoiena.** Emakumea orduka etxeko lanak egiteko edo emakume nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 632 77 35 38

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:**

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu n **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Etxe garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita ospitalean ere. 655 15 36 59

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela, zaintza eta baserri lanetan arituko nintzateke. 602 32 76 80 (Sebastiana)

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten, egunean zehar nagusiak zaintzen edota denetariko garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. 626 29 55 32

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten, nagusiak zaintzen edota denetariko garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 608 49 89 95

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten, nagusiak zaintzen edota denetariko garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 699 86 22 08

**Debagoiena.** Geriatriako titulua duen neska prest orduka lan egiteko. Etxeetan lan egiteko ere bai, orduka. Eskarmentu handia. Autoa daukat. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: garbiketak, banaketak, mandatuak etxera eramateko edo denetariko lanak. Autoa daukat. 632 77 35 38

**Debagoiena.** Gizona prest adineko pertsonak zaintzeko, garbitasunak egiteko, lorategiko lanak, baserrien mantenua eta abar. 634 14 36 65

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. 647 01 74 66 (Cristino)

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660 90 51 50 (Argelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta abarrean lan egingo nuke. 616 35 54 96 (Carmen)

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo gauez. Etxeak, atariak eta tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Esperientzia dut. 603 45 83 80

**Debagoiena.** Neska eta mutil arduratsuak lanerako gertu. Denetariko garbiketak, nagusiak zaintzen, zerbitzari edo sukalde laguntzaile eta abar. Autoarekin. Ordutegi arazo barik. 602 12 18 27

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko. Berehala hasteko prest. Orduka ere bai. 631 27 02 83

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu eta abarretarako. Txarkuterian ere lan egingo nuke. Orduka edo jardun osoz. 600 61 89 96 (Marisol)

**Debagoiena.** Neska gertu goizez zein arratsaldez nagusi eta umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 622 24 86 64

**Debagoiena.** Neska zaintzan edota garbiketan aritzeko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 603 29 94 29

**Debagoiena.** Sozio sanitario titulua duen mutila etxez etxeko laguntzan aritzeko gertu. Praktikak Aita Menni ospitalean egin nituen. Berehala hasteko gertu. 634 94 31 59

**Debagoiena.** Zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka eta baita asteburuetan ere. 695 40 56 65

**Debagoiena.** Nagusi eta gaixoen zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka eta baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 64 98 53

**Debagoiena.** Zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Orduka, etxean bertan bizi izaten edo gauetan ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672 98 20 91

**Debagoiena.** Zerbitzari moduan edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 632 70 52 82 edo 629 29 11 23

**Lan bila.** Aretxabaletako 22 urteko neska euskalduna lan egiteko prest, haurrak zaintzen, zerbitzari moduan, dendari moduan, garbiketa lanak egiten eta abarrean. Astean zehar zein asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 20 29 87

**Lana.** Ume eta nagusiak zaintzen, gozoki eta arropa dendan edota zerbitzari moduan lan egingo nuke. Presazkoa da. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta baita Eibarren ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 44 85 58

**Oñati, Arrasate edo Bergara.** Emakume oñatiarra, Haur Hezkuntzako ikasketekin, arratsaldetan haurrak zaintzeko edo orduka garbiketa lanak egiteko prest. Kontratuarekin egingo nuke lan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 53 28 56

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Neska bat behar dugu 10 urteko neskatila bati eskola partikularrak emateko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 84 19 51

## 6. MOTORRA

### 602. EROSI

**7 plazakoa.** Bigarren eskuko zazpi plazako ibilgailua erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 76 34 40

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Hozkailua eta logelarako altzariak.** Bi urtez erabilitako hozkailua, egoera oso onean dagoena. Logelarako altzariak: bi ohe 90 zentimetrokoak, gau-mahaia, tokadorea eta 1,50 metroko armairua. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 79 02 57 edo 688 63 99 46

**Logela salgai.** Estreinatu gabeko logelako egurrezko altzariak salgai. 150 cm zabaleko ohea, Pikolin koltxoia jatorrizko plastikoan, bi gau-mahai eta ispiludun armairua. Kalitate ezin hobea, prezio erdian. Kontakturako, hobe Whatsappez, zenbaki honetan: 658 71 44 37

### 802. EROSI

**Josteko makina.** Josteko makina erosiko nuke, merke, maletatxoan garraiatzeko modukoa. 630 80 55 70

### 806. GALDU

**Mugikorra Bergaran.** Kaixo, ostegunean, maiatzak 5, mugikorra galdu nuen Oilagorra soziedade inguruan, Joan XXII plazan. Aurkitu baduzu, mesedez deitu telefono honetara. Mila esker. 649 44 48 99

**Poltsa Bergaran.** Maiatzaren 30eko gauean, umearen Hello Kitty-ren poltsa bat galdu genuen. Aurkitu duenak, telefono honetara deitzea eskertuko nuke. 661 10 29 66

### 807. AURKITU

**Patinetea Bergaran.** Bergarako San Martin Eskolan, orain dela hilabete -maiatz hasieran- patinete bat aurkitu nuen. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 666 09 99 34

**Txamarra Aretxabaletan.** Kaixo, maiatzaren 21 eta 22ko astebukaeran, Iralabarri plazan ume baten txamarra agertu da. Zuena baldin bada deitu zenbaki honetara: 650 59 24 91.

Bergarako Udala

# BI LAN ESKAINTZA

**IGELTSEROEN LAN-POLTSA**
**Izena emateko epea**: 2016ko ekainaren 9ko 13:30ak arte.
**Oinarriak:** idazkaritzako bulegoetan, eta webgunean (*www.bergara.net*).

**UDAL ERAIKINEN GARBITZAILEEN LAN-POLTSA**
**Izena emateko epea**: 2016ko ekainaren 8ko 13:30ak arte.
**Oinarriak:** idazkaritzako bulegoetan, eta webgunean (*www.bergara.net*).

Bergara, 2016ko ekainaren 3an
ALKATEAK

KOROSTI
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Zubiaurre, 86 m², 3 log, trastelekua eta garajea barne. 100.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Artzamendi, 74 m², 3 logela, berriztuta, garajea barne. 210.000 €.
- Aranerreka, 85 m², 3 logela, Berriztuta. Ez du obra beharrik. 175.000 €.
- Bolu, 113 m²2, 4 logela, igogailua eta trastelekua. 210.000 €. Bi garaje aukeran.
- Irizar pasealekua, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 190.000 €.
- Matxiategi, 72 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000 €. Ez du obrarik behar.
- Lizaria, 50 m², 2 logela, Eraikuntza berria. Garajea barne. 197.000 €. Eguzkitsua.
- Zabalotegi, 79 m², 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000 €.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000 €. Ez du obrarik behar.
- Aranerreka, 80 m², 3 logela, igogailua, berriztuta. 149.000 €. Garajea aukeran.
- Madura, 65 m², 4 logela, bi balkoi. 110.000 €. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log, 320.000 €. Terraza, igogailua, patioa.
- Ernai, 52 m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000 €.
- Espoloia, 95 m², 3 logela. Trastelekua. 200.000 €. Garajea aukeran. 25.000 €.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000 €. NEGOZIAGARRIA.
- Koldo Eleizalde, 87 m², 3 logela, Fatxada berriztuta. 199.000 €. PREZIO JAITSIERA.
- Simon Arrieta, 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 130.000 €.
- Simon Arrieta, 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Zubieta, 125 m², terraza eta bi orturekin. Bi etxe egiteko aukera. 192.000 €.
- San Pedro, 90 m², 4 logela. 95.000 €. AUKERA ONA.
- San Antonio, 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000 €. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000 €. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.
- Askarruntz, 60 m², 2 logela. Lasaia eta eguzkitsua. 120.000 €.

**ANGIOZAR:**
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000 €.
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena hornitua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61 m². 3 logela eta trasteroa. BERRIZTEKO. 43.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000 €. AUKERA BIKAINA.

**ANTZUOLA:**
- Buztin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000 €. Garajea aukeran.
- Errekalde, 78 m², 3 logela, Berriztua. 130.000 €. Garajea aukeran.
- Ibarrondo, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitsua. 190.000 €. Garajea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000 €.

**ELGETA:**
- San Roke, etxebizitza, lokala, ganbara eta garajea. Dena eraikuntza batean.
- Gudarien Bidea, 75 m², berrizteko. 72.000 €. AUKERA BIKAINA
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN**

# BATZAR OROKORRA

**DEIALDIA**
**Honen bidez, 2016ko ekainaren 20an, astelehena, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako deia egiten dut.**

**Batzarra Arrasateko Kulturaten izango da, Jokin Zaitegi gelan, 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenean.**

**GAI ZERRENDA**
1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2015eko ekainaren 18ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. Kooperatibaren misioa eguneratzea.
4. 2015eko kudeaketaren memoria azaltzea.
5. 2015eko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
6. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
7. 2016ko kudeaketa plana onartzea.
8. 2016ko aurrekontua onartzea.
9. Bazkide ekarpenen eguneraketa.
10. Errektore Kontseiluko kide berriak aukeratzea.
11. Kontseilu Sozialeko kide berriak aukeratzea.
12. Galderak eta eskaerak.

Aitor Izagirre Navarro
Errektore Kontseiluko lehendakaria.

Arrasaten, 2016ko maiatzaren 31n.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Irene Aranburu Onaindia**
Ekainaren 9an, 7 urte. Zorixonak, printzesa, eta 7 mosutxu.



ARRASATE
**Haizea Martinez Nanclares**
Ekainaren 8an, urtebete. Zorionak, maitia! Maialenek, aitatxo Ikerrek, amatxo Raquelek eta Bilboko eta Errioxako familiek, egun bikaina izan dezazula opa dizugu!



ARRASATE
**Aiora eta Alaia Murgoitio**
Ekainaren 8an, 2 urte. Zorionak, printzesak! Jadanik 2 urtetxo pasatu dira gure artera etorri zinetenetik... Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat, familia osoaren partetik!



BERGARA
**Beñat Barbero**
Ekainaren 7an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, anaia Asierren eta amama Begoren partetik.



ARRASATE
**Julen Alonso Tena**
Ekainaren 7an, urtebete. Zorionak, *kukito*! Oso ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean. Aitatxoren eta amatxoren partetik, patxo handi bat!



ARRASATE
**Alaitz Bergaretxe**
Ekainaren 6an, 10 urte. Zorionak eta ederto pasatu eguna, etxekoen eta familiako guztien partetik!



BERGARA
**Ander Txurruka Jauregi**
Ekainaren 6an, 3 urte. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat jaso, etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**Alain Rodriguez Arca**
Ekainaren 5ean, 3 urte. Zorionak, nire mutikoa! Familia osoaren partetik, muxu mordoa.



BERGARA
**Amets Uribesalgo Uzin**
Ekainaren 5ean, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Bi urte pasatu dira jada! Ondo ospatu zure bigarren urtebetetze eguna eta segi orain arte bezala egun alaiak ematen. Asko maite zaittugu. Zorionak eta patxo asko, familia osoaren eta, batez ere, aitatxoren, amatxoren eta zure lehengusu guztien partetik.



BERGARA
**Peru Montalvo Ruiz de Egino**
Ekainaren 4an, 6 urte. Zorionak eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ARRASATE
**Iraitz Etxagibel Ruidiaz**
Ekainaren 3an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



BERGARA
**Jone Rivera Iñarra**
Zorionak, pitxintxo! Ekainaren 3an, 3 urte! Zorionak eta ondo pasatu, etxeko guztion partetik!



ANTZUOLA
**Maddi eta Iker Larrea**
Maddik ekainaren 3an, 3 urte eta Ikerrek ekainaren 2an, 39 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bat, Ametsen, Oinatzen eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Lide Fernandez Somalo**
Ekainaren 3an, 18 urte. Zorionak, *guapa*, zure 18. urtebetetzean. Oso ondo pasatu.



ESKORIATZA
**Enara eta Olatz Urrutia Lasagabaster**
Enarak ekainaren 2an, 9 urte eta Olatzek ekainaren 4an, 5 urte. Zorionak, printzesak! Heldu da! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna! Patxo zaparrada, guztion partetik!



ESKORIATZA
**Maider Hernandez Baños**
Maiatzaren 30ean, 13 urte. Maider, azkenean zure urtebetetzea heldu da! Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta musu handi bat etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu eta jarraitu horrela!



ARRASATE
**Yune eta Unai Rodriguez**
Yunek maiatzaren 30ean, 17 urte eta Unaik ekainaren 5ean, 12 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunak. Familia osoaren eta, bereziki, Landerren partetik.



OÑATI
**Hegoa Larrea Negeruela**
Maiatzaren 29an, 10 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat etxeko danon partetik. Pa!



OÑATI
**Nerea Bikuña Domingo**
Maiatzaren 29an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, Maiñako familiaren partetik.



ARRASATE
**Rosi Estrella**
Maiatzaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, *Guapa*! Primeran ospatuko degu! Eta gainera ezkontza! Muxu potolo bat Mararen partetik. Asko maite zaitut.



ARETXABALETA
**Araitz Pagaldai Atxa**
Maiatzaren 28an, 4 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo-ondo pasatu zure laugarren urtebetetze eguna. Muxutxo potolo-potolo bat, etxeko eta familiako danen partetik.



OÑATI
**Ander Nogueiras Guzman**
Maiatzaren 27an, 7 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu asko etxeko danon partetik. Asko maite zaittugu. Mua!



ESKORIATZA
**Xabier Orobengoa Nevado**
Maiatzaren 25ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun, etxeko guztien partetik! Jarraitu orain arte bezain alai eta jator, barrea ezpainetan duzula beti. Anaia Anerrek eta lehengusina Olaia eta Malenek besarkada handi bana bialtzen dizkizute.



ANTZUOLA
**Ekain Irizar Fernandez**
Maiatzaren 25ean, 6 urte. Zoriona, artista! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat, etxekoen partetik.

### Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.


# ZORION AGURRAK



**GOIENA TELEBISTA | KORAPILO**

ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN | 10:00 ETA 17:00 | MADDIK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# ASTEA GOIENAN



GOIENA

## Bergarako osoko bilkura osorik

Gaur, egubakoitza, Bergaran astean egin den osoko bilkura ikusi ahal izango da Goiena telebistan. Gipuzkoako errefusa jaso ahal izateko Epeleko zabortegiari kalifikazioa aldatzeko aukerari buruz jardun zuten bertan, beste hainbat gairen artean.

**'Osoko bilkura: Bergara'**
Egubakoitza, 22:00




IMANOL SORIANO

## Herri galdeketari buruzko albistegia

Erain Debagoiena taldeak deitutako herri galdeketari buruzko albistegi berezia eskainiko da domekan telebistan. Uneoroko informazioa emateaz gain, Debagoieneko herrietan jasotako datuen berri ere emango da zuzen-zuzenean 20:00etatik aurrera.

**'Berriak'**
Domeka, 20:00

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 3

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Amaia DJ
**13:30** Korapilo
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Gazta zati bat
**16:40** Berriak
**17:00** Aizank!
**18:00** Ur eta lur
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Kantari
**19:30** Atlantikoa helburu
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Osoko bilkura: Bergara
**23:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Debagoiena zuzenean
**01:30** Berriak
**02:00** Gazta zati bat

### ZAPATUA, 4

**09:00** Kantari
**09:30** Platonic
**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Debagoiena zuzenean
**11:55** Astea iruditan
**12:00** Ertzak: Sindikalgintza
**13:00** Mahaingurua: Komunikatuz eraldatu
**14:00** Harira: Angel Oiarbide
**14:30** Osoko bilkura: Bergara
**15:30** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Platonic
**16:30** Kantari 36
**17:00** Korapilo
**17:30** Amaia DJ
**18:00** Mahaingurua: Komunikatuz eraldatu
**19:00** Debagoiena zuzenean
**19:55** Astea iruditan
**20:00** Kantari
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Harira: Angel Oiarbide
**21:30** Osoko bilkura: Bergara
**22:00** Debagoiena zuzenean
**22:55** Astea iruditan
**23:00** Erreportajea: Gazta zati bat
**00:40** Zegama-Aizkorri

### DOMEKA, 5

**09:00** Kantari
**09:30** Platonic
**10:00** Korapilo
**10:30** Kantari
**11:00** Hurbilean
**12:00** Zegama-Aizkorri
**13:00** Debagoiena zuzenean
**13:55** Astea iruditan
**14:00** Mahaingurua: Komunikatuz eraldatu
**15:00** Ertzak: Sindikalgintza
**16:00** Platonic
**16:30** Kantari
**17:00** Korapilo
**17:30** Debagoiena zuzenean
**18:25** Astea iruditan
**18:30** Korapilo
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Harira: Angel Oiarbide
**20:00** Berriak

### ASTELEHENA, 6

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Korapilo
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ertzak: Sindikalgintza
**18:00** Platonic
**18:30** Berriak
**19:00** Kantari
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Amaia DJ
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak
**01:00** Harmailatik

### MARTITZENA, 7

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Zegama-Aizkorri
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Zaindu zaitez
**17:30** Hurbilean
**18:30** Berriak
**19:00** Korapilo
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harira: Bixente Atxa
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak
**01:00** Harira: Bixente Atxa

### EGUAZTENA, 8

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harira: Bixente Atxa
**13:00** Zaindu zaitez
**13:00** Platonic
**13:30** Korapilo
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Zegama-Aizkorri
**16:00** Ur eta lur
**16:30** Berriak
**17:00** Zaindu zaitez
**17:30** Ertzak: Sindikalgintza
**18:30** Berriak
**19:00** Harmailatik
**19:30** Harira: Bixente Atxa
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Erreportajea: Aiherra-Antzuola Mugak Zubi.
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harira: Bixente Atxa
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

### EGUENA, 9

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Osoko bilkura: Bergara
**13:30** Kantari 35
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Zegama-Aizkorri
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Osoko bilkura: Bergara
**18:00** Harira: Bixente Atxa
**18:30** Berriak
**19:00** Zegama-Aizkorri
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Muga barik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Erreportajea: Aiherra-Antzuola Mugak Zubi.
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

## ARRASATE IRRATIA

### Asteko gainbegiratua entzun ahal izango da asteburuan

Zapatuan eta domekan 10:00etan hainbat elkarrizketa izango dira entzungai. Tartean, Elgetako Magia Mostra izango du berbeta gai Asier Kidam magoak, eta errugbi taldekoak errugbi txapelketari eta antolatu duten garagardo azokari buruz hitz egiten izango dira 107.7an.

### Animatu eta bidali zorion agurrak Arrasate Irratira

Entzuleek aukera daukate 107.7ko uhinetan parte hartzeko; beraz, familiartekoren bat edo lagunen bat irratiaren bitartez zoriondu nahi izanez gero, deitu 943 25 05 05era edo idatzi *irratia@goiena.eus*-era. Zuk nahi duzun abestia eskainiko diote *Igo autobusera!* irratsaioan. Animatu!

# GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 3** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Zapatua, 4** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Domeka, 5** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **Astelehena, 6** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Martitzena, 7** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguaztena, 8** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Eguena, 9** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 3** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 4** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Domeka, 5** | OIARBIDE | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Astelehena, 6** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Martitzena, 7** | ALVAREZ MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 8** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguena, 9** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 3** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 4** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 5** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 6** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 7** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 8** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Eguena, 9** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

# EGURALDIA ASTEBURUAN

## DEBAGOIENA



**Max. 22º**
**Min. 9º**

**ZAPATUA, 4**
Tenperatura zertxobait jaitsiko da zapatuan eta orokorrean zerua lainotuta izango da, nahiz eta oso tarteka ostarteak zabaldu.



**Max. 24º**
**Min. 10º**

**DOMEKA, 5**
Ostarteak sarriago izango dira domekan, eta lainoak gutxitxu joango dira. Tenperaturak gora egingo du zertxobait.

## EUSKAL HERRIA




# GAZTE INFORMAZIOA

## BEKAK

**Global Training bekak 2016.** Garapen Agentzien Euskal Elkartea eta Donostiako Sustapena. Bekak unibertsitate-titulazioa eta goi-mailako lanbide heziketa dituzten gazteentzat dira. Praktika ordainduak egiteko atzerriko enpresa eta erakundeetan, haien profil akademiko eta profesionalarekin lotutako jarduera eta proiektuetan, 6 hilabeteko denboraldian (gutxienez). Informazio gehiago: *www. becasglobal-training.eus*.

## DIRU LAGUNTZAK

**Oñatin gazteen etxebizitzak alokatzeko diru laguntzak.** Informazio guztia: Oñatiko udaleko web orrian.

**Haur eta Gazteria Departamentuak kudeatzen dituen programaren kontura, Oñatin emango diren diru laguntzak.** Informazio guztia: Oñatiko udaleko web orrian.

**META kultur proiekturako diru laguntzak.** METAk zure kultura-proiektua abian jartzeko aukera eskaintzen dizu, *crowdfunding* kanpaina baten bitartez. Proiektuak aurkezteko epea: ekainak 19.

## LEHIAKETAK

**#atrapaunabeca Australian ingelesa ikasteko.** Australian ingelesa ikasteko beka, honako hauek barne: joan-etorriko hegaldia, 4 asteko ingeles ikastaroa, surfeko sarrera-klasea... Lehiaketan parte hartzeko galdera hau erantzun behar da: zein da errutinatik ateratzeko zure trukua? Erantzuna antolatzaileen sare sozialetan partekatu eta botoak lortu behar dira. Epea: Ekainak 9.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate.eus
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

ESKER ONA

## Teresa Ezpeleta Urkia



Manuel Aranaren alarguna

2016ko maiatzaren 25ean hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz bihotzez besarkada handi bana, familiakoen izenean.

**Arrasaten, 2016ko ekainaren 3an.**

ESKER ONA

## Bixente Uribesalgo Aquizu



(Txara baserria)

2016ko maiatzaren 27an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Bergaran, 2016ko ekainaren 3an.**

ESKER ONA

## Teresa Bea Aguirrebalzategui



Jose Luis Urrutiaren alarguna

2016ko maiatzaren 27an hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Alabak.**
**Bergaran, 2016ko ekainaren 3an.**

OROIGARRIA

## Angel Urzelai Gamboa



'Elordui'

Oñatin hil zen, 2016ko ekainaren 1ean.

*Eskerrik asko, Angel, gugatik egin duzun guztiagatik, eskerrik asko zure irribarre samurragatik eta gurekin izan duzun pazientzia guztiagatik.*

*Sekula ez ditugu ahaztuko bi familiek elkarrekin igaro izan ditugun une goxo guztiak.*

**Ane eta Jon.**
**Oñatin, 2016ko ekainaren 3an.**

OROIGARRIA

## Angel M. Urzelai Gamboa



'Elordui'

2016ko ekainaren 1ean hil zen, 56 urte zituela.

*Beti umoretsu, beti alai*
*bizi ginen elkarrekin.*
*Izan zinen bezalakoa izateagatik,*
*eskerrik asko .*

**Hire kuadrillakoak.**
**Oñatin, 2016ko ekainaren 3an.**

OROIGARRIA

## Angel M. Urzelai Gamboa



'Elordui'

2016ko ekainaren 1ean hil zen, 56 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*

**Garaje Oñatiko lagunak.**
**Oñatin, 2016ko ekainaren 3an.**

OROIGARRIA

## Jose Maria Gabilondo Garai

2016ko ekainaren 1ean hil zen.

*Mendia bizi, irriparrea ahoan, betiko aske.*

**Gatzagako lagunak.**
**Bergaran, 2016ko ekainaren 3an.**

OROIGARRIA

## Jose Maria Gabilondo Garai

2016ko ekainaren 1ean hil zen.

*Eskerrik asko Lokatza Ziklismo Eskolan txirrindularitzaren alde laguntzen ibilitako urte guzti hauengatik.*

**Lokatza Ziklismo Eskolako zure lagunak.**
**Bergaran, 2016ko ekainaren 3an.**

3. URTEURRENA

## Jesus Arregi Irastorza



2013ko ekainaren 7an hil zen.

*Hegoak ebaki banizkio*
*nerea izango zen,*
*ez zuen aldegingo.*
*Bainan, honela*
*ez zen gehiago txoria izango.*

**Antzuolan-Urretxun, 2016ko ekainaren 3an.**

## HILDAKOAK

**Pilar Gonzalez Mondragon.** Arrasaten, maiatzaren 24an. 87 urte.
**Frantzisko Davila Algaba.** Arrasaten, maiatzaren 26an. 92 urte.
**Hermogenes Gonzalez Escudero.** Arrasaten, maiatzaren 27an. 98 urte.
**Bixente Uribesalgo Akizu.** Bergaran, maiatzaren 27an, 88 urte.
**Teresa Bea Agirrebaltzategi.** Bergaran, maiatzaren 27an, 87 urte.
**Felisa Zubia Zubia.** Oñatin, maiatzaren 27an. 101 urte.
**Rufina Arrizabalaga Uriarte.** Arrasaten, maiatzaren 28an. 87 urte.
**Manuel Carrascosa Gutierrez.** Bergaran, maiatzaren 29an. 85 urte.
**Concepcion Arruabarrena Aierbe.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 90 urte.
**Angel Urtzelai Ganboa.** Oñatin, ekainaren 1ean. 56 urte.
**Jose Maria Gabilondo Garai.** Bergaran, ekainaren 1ean. 69 urte.

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Ilia eta Iosu

"Ilia eta Iosu zapatuen Aramaixon ezkonduko die. Zorionak lagunen eta familixiaren partetik. Altuna familixien partetik be, ederto pasau egune eta zoriontsuek izen!".



### Ana eta David

Ana Martin eta David Garcia maiatzaren 28an ezkondu ziren Arrasateko udaletxean. "Zorionak, aita eta ama! Bazen ordua! Egun ederra pasatu genuen. Mararen partetik".

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
**BERGARA** Jardun elkartea: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

# ZINEMA

## ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Espias desde el cielo**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Ratchet and Clank**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Alicia a traves del espejo**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

## EIBAR

**COLISEO**

**Warcfrat. El origen**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Noche real**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Acantilado**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Alicia a traves del espejo**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Warcfrat. El origen**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

## GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Warcraft: el origen**
Egubakoitza; 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30, 00:30.
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 23:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 18:30, 20:00, 22:30.

**Warcraft: el origen 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 21:00.

**Idol**
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 20:00, 22:10.
Zapatua: 00:20.
Zapatua eta domeka: 15:40.

**El reino de los monos**
Egubakoitzetik eguenera: 18:10.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Nuestros amantes**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:30, 21:30.
Zapatua: 23:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**X-Men. Apocalipsis**
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 20:30, 21:45.
Zapatua eta domeka: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 19:45, 21:45.

**X-Men. Apocalipsis 3D**
Zapatua: 23:20.

**Alicia a traves del espejo**
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 19:10, 20:10, 21:30, 22:30.

**Alicia a traves del espejo 3D**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**La bruja**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua: 00:30.

**Angry Birds**
Egubakoitzetik eguenera: 17:40.
Zapatua eta domeka: 15:35.

**Capitan America**
Egubakoitzetik eguenera: 22:00.

**El libro de la selva**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Espias desde el cielo**
Egubakoitzetik eguenera: 19:50, 22:40.

**Tini. El gran cambio de Violetta**
Zapatua eta domeka: 16:30.

**Kiki, el amor se hace**
Zapatua: 23:50.
Astelehenetik eguenera: 22:35.

**FLORIDA**

**Warcraft: el origen**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Alicia a traves del espejo**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

**El olivo**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Corazon gigante**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Magallanes**
Egubakoitzetik domekara: 18:20.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Mas alla de las montañas**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

**Angry birds**
Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Un doctor en la campiña**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:00.

**El reino de los monos (euskaraz)**
Egubakoitza: 16:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Una madre imperfecta**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:00.

**Acantilado**
Egubakoitzetik domekara: gubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:00.

**X-Men. Apocalipsis**
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

**El libro de la selva**
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

# Denboraren pisua

Pelikula honetan kontatzen zaigun istorioa garai desberdinetan girotutako hiru ataletan gertatzen da: lehenengoa, 1999. urtean; bigarrena, 2014. urtean; eta hirugarrena, 2025. urtean. Lehenengo biak Txinan kokatuta daude eta azkena Australian. Jia Zhang-kek oso ondo islatzen du denborak eta bizitzak duten pisua eta higatzeko ahalmena. Aldaketak ematen dira gizartean eta pertsonaien izaeran eta sentimenduetan.

Lehengo zatian lagunak diren 25 bat urteko neska bat eta bi mutil ditugu. Baina hirukotea haustuko da bi mutilek neska maite dutelako. Biak arerio bihurtuko dira eta neskak, euren arteko adiskidetasuna mantendu gura duen arren, bat aukeratu beharko du. Harreman horien bitartez ikusten da kapitalismoaren agerraldi boteretsua. Hirukoteko kide bat diru eta enpresa gizona da, eta kapitalismoak duen alde zapaltzailea eta, aldi berean, erakargarria erakusten du. .

Bigarren zatian, hamabost urte pasa dira. Neska bakarrik dago alai. Bananduta dago eta bere semea aitarekin bizi da.

**MAS ALLÁ DE LAS MONTAÑAS**
★★★☆☆
**Zuzendaria:** Jia Zhang-ke.
**Aktoreak:** Tao Zhao, Zhang Yi, Liang Jindong.

Heriotza bat dela medio, semeak ama bisitako du eta hor komunikazio zaitasunak hasiko dira. Interneten bidez, urrun dagoen pertsonekin berba egin dezakegu, baina gero, ondoan daukagun pertsonarekin ez dakigu nola kontaktatu. Ondo ikusten da gizartean ematen den baloreen galera, eta geroz eta isolatuago nola sentitzen garen. Hirugarren zatian, haurra izatetik mutil izatera pasatze den semea Australian bizi da aitarekin. Gaztea nahastuta sentitzen da. Aitarekin duen harremana hotza da eta ez daki ia inposatutako edo zuzendutako bizitzari zer-nolako norabidea eman.

Jia Zhang-ke doitasunez eta behaketa ahalmen handiarekin islatzen du bizitzak duen pisua: denboraren zehar agertzen eta desagertzen diren pertsonak, hartzen ditugun aukerak eta gizartean ematen diren aldaketen eragina.

ANTONIO ZABALA


IMANOL SORIANO

**OÑATI Oñati Abesbatzaren 50. urteurreneko kontzertua**
Abesbatzaren ikur izan diren abestiak kantatuko dituzte: *Aita Gurea*, *Agur Maria* eta *Poema Sinfonikoa*-ren atal batzuk. Esteban Urtzelai eta Aitor Biain zuzendariek ere parte hartuko dute emanaldian.
Bihar, zapatua, Santa Anan, 19:30ean.

**ELGETA Magia mostra**
Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Asier Kidam magoak *1805* magia ikuskizuna egingo du, euskaraz. Bihar, zapatua, ordu berean Tor, Txoborro eta Ituiño magoen txanda izango da. Magia ilusio handiak eta Espainiako Magia Kongresuan saritutako trikimailu bat egingo dituzte.
Aipatutako egunetan eta orduan, Espaloian.



# NON-ZER

EKAINA 3
EKAINA 11

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**BERGARA Vinagre De Moderna, Zarzaparrilla eta DJ Maribi**
Josemi Zumalabe Fundazioaren topagune ibiltariko kontzertua.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

**OÑATI Ikastetxeak kantari**
Ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute: *Sudurgorri*. Urgain, Elkar Hezi eta Txantxiku Ikastolako abesbatzak oholtza gainean. Sarrerak, hiru euro.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

**ARETXABALETA Piano emanaldia**
Leizarra musika eskolako ikasleen kontzertua.
Ekainaren 7an, Zaraia aretoan, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

**ARRASATE Pinturak**
Kulturateko pintura ikastaroko ikasleek euren lanak erakutsiko dituzte.
Gaur, egubakoitza, Seber Altuben, 17:00etatik 20:00etara arte.

**OÑATI Oñati Abesbatzaren historia**
Urrezko ezteiak bete ditu taldeak eta 50 urteko ibilbidearen errepasoa egin dute.
Ekainaren 12ra arte, kultura etxean, 18:00etan

**BERGARA 'Bergara Hiria'**
32. argazki lehiaketara aurkeztutako lanetako batzuk daude ikusgai. Tartean, sari nagusiak irabazi dituzten erretratuak.
Ekainaren 12ra arte, Aroztegin.

## OSPAKIZUNAK

**ARRASATE Garagardo azoka**
Arrasate errugbi taldearen eskutik 18. garagardo azoka. Edatekoa eta jatekoa egongo da (oilaskoa, txerri ukondoa eta saltxitxak).
Domekara arte, Herriko plazako karpan.

**OÑATI Urgain Eguna**
Ibilaldia, bazkaria, puzgarriak, tailerrak, kirola eta DJ festa izango dituzte, besteak beste. Horietan guztietan, Urgaintxoren laguntza izango dute ikasleek eta gurasoek. Era berean, DBHko ikasleek bizkotxoak salduko dituzte.
Bihar, zapatua, ikastetxean, 11:00etan.

**OÑATI Eltzia Eguna**
Eltziako lana eta dinamika ikusteko aukera egongo da. Musika taldeendako egokitu diren lokalak ere ikusi ahal izango dira.
Bihar, zapatua, Eltzian, 11:00etan.

**ARRASATE Elkartasun Eguna**
Gobernuz kanpoko erakundeen erakusketa eta bidezko merkataritzaren aldeko tonbola. Askotariko ekintzak egongo dira umeendako zein nagusiendako.
Bihar, zapatua, Seber Altuben, 11:00etan.

**BERGARA Mahonero Eguna**
Bergara Kirol Elkarteko taldeen jaia aste bukaeran: parrilada, kontzertuak, futbol txapelketa, herri bazkaria eta DJ jaialdia egingo dituzte, besteak beste.
Aipatutako egunetan, Seminarioko karpan.

**BERGARA 'Zure eskuek bizitza bat salbatu dezakete'**
Bosgarrenez egingo du DYAk sentsibilizazio kanpaina, bihotz-biriken geldialdi baten aurrean nola jokatu behar den gizarteari erakusteko. Maniobra hori egoki egitearen garrantzia azpimarratu gura dute. Hainbat stand egongo dira suspertzeko oinarrizko teknikak nola erabili ikasteko.
Ekainaren 1ean, San Martin plazan, 20:00etan.

## HITZALDIAK

**BERGARA Ilustrazio zientifikoaren gainean**
Bergaran artea eta zientzia uztartzeko asmoz, marrazketa librea eta botanikoa landuko dituzte. Azken hori, koloretan eta zuri-beltzean.
Bihar, zapatua, Laboratoriumen, 10:00etan.

**ESKORIATZA 'Gaixotasun kronikoak eta gure bizimodua'**
Aste Zapatisteren ekintza. Rakel Perez de Arenaza baserritarrak egingo du berba.
Ekainaren 6an, ludotekan, 19:00etan.

**OÑATI Juan Carlos Elorzari buruz**
Oñatiko eskubaloiaren alde lan egin zuen Elorza zenaren inguruan berba egingo dute, *Juan Carlos Elorzaren ekarria Gara eta Egin egunkarietan* delako berbaldian.
Ekainaren 7an, kultura etxean, 19:00etan.



Donostia 2016-ri esker
`Solitudes´ antzezlanerako sarrerak ditugu.
Victoria Eugenia Antzokian, Donostian.
Ekainaren 11n, 20:00etan

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO (EKAINAREN 7RA ARTE)
E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA SOLITUDES [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Irabazleei deitu egingo zaie eta *goienakluba.com* webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba


GOIENA


GOIENA

**ESKORIATZA Eskoriatzako 20. Ferixie**
Arizmendi Ikastolak antolatutako ekitaldia. Baserriko produktuak, artisautza, txorimalo lehiaketa eta trikitilariak egongo dira, besteak beste. Almenen 50. urteurreneko bazkaria ere egingo dute.
Bihar, hainbat lekutan, egun osoan zehar.


ARTEMAN

**ARETXABALETA Azkeneko Ostegun Bidaiariak**
Jone Ojea aretxabaletarrak 2015eko urritik abendura bitartean Venezuelan egindako bidaia kontatuko du. Haur Hezkuntzako praktikak egin zituen Meridan. Hango istorioak azalduko ditu.
Ekainaren 9an, Haizea tabernan, 21:30ean.

**ESKORIATZA Chiapasi buruz**
Aste Zapatistaren ekintza. Besteak beste, nazioarteko brigaden eta brigadisten gainean egingo dute berba.
Ekainaren 8an, kultura etxean, 19:00etan.

## GAZTELEKUAK

**OÑATI Udako plangintza**
Lehen Hezkuntzako seigarren mailako neska-mutikoekin batzarra egingo dute, udarako ekintzak zehazten hasteko.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuko kuboan, 17:00etan.

**ARRASATE Gazte jaia**
Ttak! gazte taldeko kideen laguntzarekin.
Bihar, zapatua, erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

**ARRASATE Birziklapen tailerra**
Palet zaharrak berritu eta lokalerako altzari bilakatuko dituzte.
Etzi, domeka, erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

## UMEAK

**BERGARA Ludoteken jaia**
Bergarako, Angiozarko eta Osintxuko ludoteketako haurrak eta hezitzaileak elkartuko dira Bergarako azokaren kanpoko aldean –eguraldi txarrarekin, ludotekan– eta askotarikoak egingo dituzte: karaokea, jolasak, merienda...
Gaur, egubakoitza, azoka kanpoan, 17:00etan.

## ANTZERKIA

**ESKORIATZA 'La caja tonta'**
Ausartak taldearen antzezlana, gazteleraz, Amuskak gonbidatuta. Sarrerak, hiru euro.
Bihar, zapatua, Zaldibarren, 22:00etan.

## BERTSOLARITZA

**ARETXABALETA Bertso saioa**
Erain Debagoienak eta Leikaxokak elkarrekin antolatutako ekitaldia. Aitor Sarriegi eta Nerea Elustondo ipiniko dituzte bertsotan.
Gaur, egubakoitza, Pagaldaixenean, 19:30ean.

## TURISMOA

**ANTZUOLA Antigua eta erdigunea**
Antigua ermita eta Antzuolako erdigunea ezagutzeko bisita gidatua egingo dute. Izena emateko: 943-79 64 63.
Bihar, zapatua, Antiguan, 12:00etan.

**ELGETA Lubakietara bisita**
Euskal Memoriaren Interpretazio Gunea eta Intxorta ezagutzeko bisita gidatua. Izena emateko: 943-79 64 63.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**ARETXABALETA 'Hau izaki bitxia'**
Jaiki elkarteko ikasleen, Izaskus Lapazaren eta Marina Scottoren ikuskizuna.
Gaur, egubakoitza, Durana kalean, 19:00etan.

**ARETXABALETA 'Kiki eta Koko pailazoak'**
Euskal Memoriaren Interpretazio Gunea eta Intxorta ezagutzeko bisita gidatua. Izena emateko: 943-79 64 63.
Ekainaren 8an, Iralabarri plazan, 19:00etan.

**ARRASATE 'Kapulana bat zintzilik'**
Miren Amuriza bertsolariak ipuinekin eta bertsoekin egingo duen ikuskizuna. Mozambikeko emakumeek haurrak lepoan eusteko erabiltzen dituzten oihalak dira Kapulanak.
Ekainaren 8an, Kulturaten, 19:00etan.

**BERGARA Bakarrizketak**
Juanjo Albiñanaren eta Kaco Fornseren saioa. Sarrerak, zortzi euro.
Ekainaren 8an, Zabalotegin, 20:00etan.

**ARETXABALETA Ipuin kontaketa**
Gorkak egingo du emanaldia.
Ekainaren 9an, Gipuzkoa plazan, 19:00etan.

## DEIA

**OÑATI 'Aurrekontuekin Arazerixan'**
2017ko udal aurrekontuak haurrekin eta gazteekin lantzeko partaidetza prozesuaren *Guk ere badugu ahotsa* delako saioa. Haurrek eta gazteek euren proposamenak egin ahal izango dituzte.
Gaur,egubakoitza, merkatuan, 17:00etan.

**OÑATI Buetraitz inguruak garbitzera**
Buetraitz-Artzanburu inguruetan karduak aitzurraz kentzeko auzolan deialdia. Duruko aparkalekuan elkartuko dira. Komeni da izena aurrez ematea: *idazkaritza@onati.eus* helbidean edo udaletxeko harreran.
Bihar, zapatua, Durun, 08:00etan.

**ESKORIATZA Odol ematea**
Arabako Odol Emaileen Elkarteak deituta.
Ekainaren 6an, Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

**BERGARA Odol ematea**
Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak deituta.
Ekainaren 8an, Aranzadi ikastolan, 18:00etan.

**OÑATI Izen-ematea**
*Oteiza. Eskultura Katalogo Arrazoitua* delako liburua aurkeztuko dute Arantzazun ekainaren 11n. Ekitaldian egongo dira Rafael Moneo eta Txomin Badiola. Aurkezpenean parte hartzeko aldez aurretik eman behar da izena: *info@arantzazugandiaga.com* edo 943-71 65 75.
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

## AZOKA

**BERGARA Eguazteneko azoka**
Baserritarren eta bertako produktuak erosteko aukera. Gainera, hondarrezko irudien tailerra egingo dute.
Ekainaren 8an, Oxirondon, 18:00etan.

## TAILERRA

**ESKORIATZA 'Ilargi berdea, oreka eta akrobazia'**
Ibai Egiak oreka eta akrobazia tailerra gidatuko du.
Ekainaren 7an, Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.

**BERGARA Sendabelarrak**
Udalatx mintegiko kide Nerea Altunak eta Idurre Arangurenek egingo dute ikastaroa ekainaren 7an eta 14an, Jardunek gonbidatuta. Sendabelarrak identifikatu, batu, erabilpenak ezagutu ondorengo etekinak zeintzuk diren landuko dute. Leku mugatuak daude eta aurrez eman behar da izena: *jardunkultura@topagunea.com* helbidean, Jardunen egoitzan edo 943-76 36 61 telefonoan.
Izen-ematea aipatutako lekuetan.

## KIROLA

**OÑATI Eskubaloiko Txapelketak**
Euskal Herriko selekzioen arteko kadete mailako partiduak .
Bihar, zapatua, Zubikoan, egun osoan.

**ARRASATE Zazpiko errugbia**
Arrasateko errugbi taldearen eskutik beteranoen (goizez), emakumeen eta gizonezkoen txapelketak jokatuko dituzte. .
Bihar, zapatua, Mojategin, egun osoan.

**OÑATI Arantzazuko Igoera**
Gazte mailakoendako hamar kilometroko lasterketa.
Bihar, zapatua, Portalekuako biribilgunean, 16:30ean.

## BESTELAKOAK

**BERGARA Udaleku irekiak**
Udalak eta Jardunek kudeatzen duten udalekuetara 483 ume apuntatu dira. Hurrengo astean egingo dituzte aurkezpenak: ekainaren 8an, 18:00etan, Zabalotegin, eta, ekainaren 9an, 18:00etan Angiozarko Arbiaska aretoan, 18:00etan.
Aipatutako egunetan, orduetan eta lekuetan.




**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa 2 - Aretxabaleta
Intxaurtxueta 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate.eus

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**
Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus



Laboral Kutxa Baskonia – FC Barcelona Lassa

finalerdietako partidurako 4 sarrera bikoitzen zozketa

**Ekainaren 8an Buesa Arenan jokatuko den partidurako (21:00)**

**PARTE HARTZEKO:**

**WhatsApp:** [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Epea: Ekainaren 6ra arte.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

Euskara irabazle, denok irabazle!



goiena

2016-06-03


BUKATZEKO

# Alavesen itzala, Debagoieneraino

- Gorka Etxabe aretxabaletarrak hemeretzi urte daroa 'speaker' lanetan Mendizorrotzan
- Arabako Garrasia animazio harmailetan gero eta gehiago dira Leintz aldetik joandako zaleak

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Lehenengo Mailan izango da datorren urtean Alaves. Eta Araban ez ezik, Debagoienean ere asko poztu dira lortutakoarekin. Izan ere, gertutik jarraitu dute taldea, batez ere, azken denboraldian.

Alavesen inguruan urte mordoa daroana Gorka Etxabe aretxabaletarra da. Dagoeneko hemeretzi urte egin ditu *speaker* lanetan: "Nik uste dut 1996-1997 denboraldian hasi nintzela. Bekaduna nintzen Radio Vitorian eta proposamenarekin etorri zitzaizkidan; proba egin, eta Mendizorrotza inguruan ibili naiz geroztik. Datorren denboraldian hogei urte egingo ditut", dio, pozik. Lehenengo Mailarako hiru igoera bizi izan ditu: 1997-1998koa; 2003-2004koa; eta aurtengoa. Baita 2001ean Dortmunden (Alemania) jokatutako finala ere. "Garai zailak bizi izan ditugu, taldea ia desagertuta egon da, eta gero etorri da birsortzea", dio, eta gaineratu du: "Batez ere, Gasteizko eta Mendizorrotzako giroaren birsortzea izan da. Liverpooleko zaleek diote "you'll never walk alone" (sekula ez zara bakarrik ibiliko); bada, azken hiru urteotan Alaves ez da sekula bakarrik egon, zaleen babes osoa izan du".



Tokero eta Gorka Etxabe, astelehenean, Andre Maria Zuriaren plazan. | G. ETXABE




Arteman, Alaves zoriontzen. | ARTEMAN

**Mendizorrotzako animazioa**

Zale horien artean debagoiendarrak ere badaude; gero eta gehiago, gainera. "Leintz aldetik asko joaten dira: Aretxabaletatik, Arrasatetik... Taldearekin berarekin baino gehiago, Mendizorrotzan duten futbola bizitzeko erarekin egiten dute bat". Arabako Garrasia du izena Mendizorrotzako animazio-harmailak. Han du kokalekua Iraultza 1921 zaleen taldeak, eta han izaten dira debagoiendarrak ere. "Nik uste dut kategoriako animazio-harmailarik onena dela, eta Euskal Herriko onena ere bai. Partidua hasi aurretik hasi kantuan eta 90. minutua iritsi arte ez dira isiltzen". *Tifo* mordoa egiten dituzte; hau da, izugarrizko tamaina duten kartelak eta muralak. Eta denboraldi guztietan asmatzen dituzte abestiak: "Eta jokalariek kantu horiek guztiak dakizkite. Asteleheneko jaialdian, hain zuzen, horixe erakutsi zuten, jokalariek zaleei abestu zizkieten eta". Bai domekako partiduan, bai asteleheneko ospakizunen inguruan Leintz aldeko zale asko izan ziren; besteak beste, Bixente Etxeandia aretxabaletarra, 50eko hamarkadan Alaves taldeko jokalari izandakoa.

Beste debagoiendar batzuk ere badabiltza Alavesen inguruan; Aitor Orueta oñatiarra, esaterako, behe mailetako trebatzailea da eta Rafa Mungia kazetari arrasatearrak Gasteizko taldearen jarraipena egiten du Radio Vitorian.

Bestetik, Arteman komunikazio enpresa Alavesen ikus-entzunezkoen ekoizle ofiziala da. Harreman estua dute marketin departamentuarekin eta oso gustura dabiltzala lanean dio Etxabek.

AZKEN BERBA



**AINTZANE OIARBIDE**

## Erabakitzeko eskubidea

Hamabi urteko atzerapenarekin gabiltza. Euskaldunok izan ginen aitzindari erabakitzeko eskubidea modu ofizialean aurkezten, kataluniarren aurretik. 2004. urtean, Ibarretxe lehendakariak aurkeztutako Estatutu Berriaren proposamena onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. *Ibarretxe plana* izenpean ezagutu zen egitasmo landu eta artikulatu honen bizkarrezurra euskaldunon erabakitzeko eskubidea da. Ezin dugu ahaztu, baina, Legebiltzarrean onartzerakoan egoera bitxia gertatu zela, gure artean historian zehar, zoritzarrez, gehiegitan gertatzen diren desadostasun eta ika-mika antzuen antzera: bozketa garaian, Ezker Abertzaleak, Arnaldo Otegi buru zuela, hiru bozka eman zituen ekimen honen alde, baina beste hiru aurka. Gure Herriaren nortasun eta etorkizunean nuklearra den kontu honetan, beraz, ez genuen erabateko adostasunik izan abertzaleon artean. Ibarretxe lehendakariaren proposamena Madrilgo Gorteetan atzera bota bazuten ere, Euskal Herriak aukera aproposa izan zuen duela 12 urte apustu horren inguruan indarrak batu eta lehendakariak proposatu zuen kontsultaren alde egiteko. Argi eta ozen esango dut: 2004an erabakitzeko eskubideari baietz esan nion eta gaur ere baietz esaten diot.


MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Izen-ematea

ekainaren 6tik 17ra

www.mondragon.edu/gmhz

gmhz.mgep@mondragon.edu

943 71 21 91

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017

LABORAL Kutxa

HETEL

Fp EUSKADI

MONDRAGON UNIBERTSITATEA